

# TXOSTENA IXOSTILINA

7

**FAMILIA**

**ETA ETXE-ARLOKOA**

**EUSKAL**

**AUTONOMI**

**ELKARTEAN**



**EMAKUNDE**  
EMAKUNEAREN EUSKAL ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

**FAMILIA**

**ETA**

**ETXE-ARLOKOA**

**EUSKAL**

**AUTONOMI**

**ELKARTEAN**

EMAKUNDE  
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

Vitoria-Gasteiz 1994

**IZENBURUA:** "Familia eta etxe-arlokoa Euskal Autonomi Elkartean"

**EGILEA:** EMAKUNDE / Emakumearen Euskal Erakundea.  
Manuel Iradier, 36. 01005 Vitoria-Gasteiz

**DATA:** Maiatza 1994

**ALE ZENBAKIA:** 1.000

**DESKRIBATZAILEAK:** Famili ereduak, ezkontzak, ugalkortasuna, etxeko lana, famili ardurak, datu estatistikoak

**TAJUERA GRAFIKOA:** Ana Badiola eta Isabel Madinabeitia

**FOTOKONPOSATZAILEA:** RALI, S.A.  
Particular de Costa, 12-14. 48010 Bilbo

**INPRIMATZAILEA:** Gráficas Santamaría, S. A.  
Bekolarra, 4. 01010 Vitoria-Gasteiz

**ISBN:** 84-87595-27-8

**LEGE GORDAILUA:** VI-168/94

## AURKIBIDEA

|                                                                                             | Orr. |
|---------------------------------------------------------------------------------------------|------|
| <b>AURKEZPENA</b> .....                                                                     | 9    |
| <b>SARRERA</b> .....                                                                        | 13   |
| – Marko teorikoa .....                                                                      | 15   |
| – Lan hipotesiak .....                                                                      | 19   |
| <b>1. FAMILIA-GUNEAK</b> .....                                                              | 21   |
| 1.1. Familia-guneen bilakaera kopuruaren, tamainuaren eta nolakotasunaren ar-<br>bera ..... | 23   |
| 1.2. Familiaren eraketa: ezkontzak eta jaiotzeak .....                                      | 26   |
| 1.2.1. Ezkontzaz kanpoko jaiotzeak .....                                                    | 31   |
| 1.2.2. Bizikidetza .....                                                                    | 32   |
| <b>2. EZKONTZARI BURUZKO IRITZIAK</b> .....                                                 | 35   |
| 2.1. Ezkontzeko arrazoiak, bizikidetasun-mota eta ekontzaren egonkortasuna .....            | 37   |
| 2.2. Erlijioaren eragina .....                                                              | 43   |
| <b>3. EMAKUMEAK ETA UGALKETA</b> .....                                                      | 45   |
| 3.1. Ugalketarekiko jarrerak, jaiotze-kontrola eta sexualitatea .....                       | 48   |
| 3.2. Emakumeen lan iharduera ugalkortasunari loturik .....                                  | 51   |
| 3.2.1. Inkestari erantzun dioten emakumeen lan iharduera .....                              | 53   |
| <b>4. ETXE-ARLOKOA</b> .....                                                                | 57   |
| 4.1. Etxeko zereginak .....                                                                 | 59   |
| 4.1.1. Etxeko zereginen ardura .....                                                        | 60   |
| 4.1.2. Etxeko zereginen banaketa .....                                                      | 62   |
| 4.1.3. Lan zatiketa edo berdintasuna etxeko lanak egokitzerakoan .....                      | 65   |
| 4.1.4. Etxeko lanarekiko poztasuna .....                                                    | 67   |
| 4.1.5. Etxeko lana ogibide gisa .....                                                       | 70   |
| 4.1.6. Etxekoandreen egunerokoa .....                                                       | 71   |
| 4.2. Seme-alabekiko eta beste senide batzuekiko zaintza eta hartuemanak .....               | 72   |
| 4.2.1. Seme-alaben zaintza .....                                                            | 73   |
| 4.2.2. Famili hartuemanak .....                                                             | 78   |
| <b>5. METODOLOGIA</b> .....                                                                 | 81   |
| <b>BIBLIOGRAFIA</b> .....                                                                   | 87   |
| <b>ERANSKINAK</b> .....                                                                     | 91   |
| A.1. - Taulak .....                                                                         | 93   |

## TAULEN AURKIBIDEA

|                                                                                                           | Orr. |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------|------|
| <b>1. FAMILIA-GUNEAK</b>                                                                                  | 21   |
| 1.1. Jaiotzeen, hilkortasun orokorraren eta umeenaren eta bizitza-itxaropenaren bilakaera E.A.E.an        | 23   |
| 1.2. Familia-guneen tamainua 1960.etik 1980.era bitartean Europako herrialdeetan                          | 24   |
| 1.3. Biztanleria ahaidetasunaren eta guraso bakarreko familia-gune ezberdinen arabera                     | 26   |
| 1.4. E.A.E.ko ezkontzen eta bizirik jaiotakoen bilakera 1975.az geroztik                                  | 27   |
| 1.5. Amaren adinaren araberrako jaiotzeen bilakaera E.A.E.an, 1975-1988                                   | 29   |
| 1.6. Ama-belaunaldi bakoitzeko izandako seme-alaben batzbesteko kopurua                                   | 30   |
| 1.7. Ezkontzaz kanpoko jaiotzeen bilakaera amaren adinaren arabera E.A.E.an                               | 31   |
| 1.8. Ezkontzaz kanpoko jaiotze-tasak (jaiotze guztiekiko %) Europako herrialdeetan 1970-1984              | 32   |
| 1.9. E.A.E.an bizikidetzari heldu dioten emakumeen batzbesteko adina batasunaren hasiera-urtearen arabera | 33   |
| 1.10. Europako herrialdeetan bizikidetzari heldu dioten emakumeak adin-tarteka, hainbat urte (ehunekotan) | 33   |
| <b>2. EZKONTZARI BURUZKO IRITZIAK</b>                                                                     | 35   |
| 2.1. Jendeak ezkontzeko dituen arrazoiak, sexuaren eta adinaren arabera                                   | 38   |
| 2.2. Ezkontzerako arrazoiak (noizbait ezkonduetakoak)                                                     | 39   |
| 2.3. Egoera zibila aldatu nahia, sexuaren eta egoera zibilaren arabera                                    | 41   |
| 2.4. Ezkontzen bilakaera errituen arabera 1976.etik E.A.E.an                                              | 44   |
| <b>3. EMAKUMEAK ETA UGALKETA</b>                                                                          | 45   |
| 3.1. Seme-alabak munduratzeko arrazoiak sexuaren arabera                                                  | 48   |
| 3.2. Seme-alaben kopurua kontrolatzeko arrazoiak, sexuaren arabera                                        | 49   |
| 3.3. Zeinek erabakitzen duen seme-alabak izatea, sexuaren arabera                                         | 50   |
| 3.4. Emakumeen iharduera, adinaren arabera                                                                | 54   |
| <b>4. ETXE-ARLOKOA</b>                                                                                    | 57   |
| 4.1. Zeinek egiten dituen etxeko lanak, sexuaren eta emakumeen ihardueraren arabera                       | 60   |
| 4.2. Etxeko lanak egin ohi diren, sexuaren eta adinaren arabera                                           | 61   |
| 4.3. Zure etxeko lan banaketa borondatezkoa eta justua al da?, sexuaren eta egoera zibilaren arabera      | 63   |

|           |                                                                                                                                                                               |    |
|-----------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----|
| 4.4.      | Etxetik kanpo lanean diharduten senarrak eta seme-alabek etxeko lanetan lagundu behar ote duten, egoera zibilaren (ezkongabeak eta ezkonduak) eta sexuaren arabera .....      | 64 |
| 4.5.      | Etxeko lana berdintasunez banatu beharko ote litzateke gizonaren eta emakumearen artean? umeen zaintza guraso bien erantzukizuna ote da?, adinaren eta sexuaren arabera ..... | 65 |
| 4.6.      | Emakumeak gizonak baino hobeak dira etxeko lanetan. Emakumeen iritzia lan-motaren arabera .....                                                                               | 67 |
| 4.7.      | Etxeko lanengatiko poztasuna, sexuaren arabera (etxeko lanak egin ohi dituztenak) .....                                                                                       | 68 |
| 4.8.      | Etxeko lanari buruzko iritzia (etxeko lanak egin ohi dituztenak) .....                                                                                                        | 69 |
| 4.9.      | Etxeko lana ..... baino nekezagoa dela uste dut, sexuaren arabera .....                                                                                                       | 71 |
| 4.10.     | Seme-alaben zaintza; egiazko soluzioak eta nahi direnak .....                                                                                                                 | 74 |
| 4.11.     | Hautzaindegietan egun bakoitzeko gehienez eman behar den ordu-kopurua .....                                                                                                   | 76 |
| 4.12.     | Hautzaindegietan azpimarratu beharrekoak, seme-alabak izan ala ez izatearen eta sexuaren arabera .....                                                                        | 77 |
| 4.13.     | Zein arduratzen da senideekiko harremanei eusteaz?, adinaren eta sexuaren arabera .....                                                                                       | 79 |
| 4.14.     | Famili hartuemanaren eremua, sexuaren arabera .....                                                                                                                           | 80 |
| <b>5.</b> | <b>METODOLOGÍA</b> .....                                                                                                                                                      | 81 |
| 5.1.      | Laginketaren banaketa .....                                                                                                                                                   | 83 |
| 5.2.      | Jasotzaileak .....                                                                                                                                                            | 86 |
|           | <b>ERANSKINA</b> .....                                                                                                                                                        | 91 |
| I.1.      | E.A.E.ko etheen eta familia-guneen bilakaera 1971.etik 1986.era (I) eta birtarte horretan izan duten portzentaiazko aldaketarena (II) .....                                   | 93 |
| I.2.      | Familia-guneen egiturazko bilakera .....                                                                                                                                      | 93 |
| I.3.      | E.A.E.ko familia-guneak talde-buruaren adinaren arabera 1986.ean (I) eta familiak erreferentziazko pertsonaren adinaren arabera (II) .....                                    | 94 |
| I.4.      | Familia-mota erreferentziazko pertsonaren egoera zibilaren arabera E.A.E.an .....                                                                                             | 95 |
| I.5.      | Ezkontzak emakumeen adinaren arabera E.A.E.an .....                                                                                                                           | 95 |
| I.6.      | Ezkontzeko batzbesteko adinaren bilakaera E.A.E.an .....                                                                                                                      | 95 |
| I.7.      | Lehenengo jaiotze guztien bilakaera guztizkoaren portzentaiak eta lehenengo seme/alaba jaio zeneko batzbesteko adina eta denak jaiotakoan 1975.az geroztik E.A.E.an .....     | 96 |
| I.8.      | Seme-alaba-kopururik hoberena eta jaiotze biren arteko eperik hoberena ....                                                                                                   | 96 |
| I.9.      | Ugalkortasun-aldiaren tarteak .....                                                                                                                                           | 97 |
| I.10.     | Ezkontutako emakumeek izan nahiko litzatekeen eta benetan dituzten batzbesteko seme-alaba-kopurua, adinaren eta ihardueraren arabera .....                                    | 97 |
| II.1.     | Egun hobetsiko litzatekeen bizikidetasun-mota, adinaren eta sexuaren arabera .....                                                                                            | 98 |

|                |                                                                                                                                                                         |     |
|----------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----|
| <b>II.2.</b>   | Egun hobetsiko litzatekeen bizikidetasun-mota, adinaren eta sexuaren arabera .....                                                                                      | 98  |
| <b>II.3.</b>   | Gaur egun aukeratuko zenukeen elkarbizitza, sexuaren eta adinaren arabera (ezkongabeak) .....                                                                           | 99  |
| <b>II.4.</b>   | Egoera zibila aldatzeko nahia, ezkondu gabekoen adinaren arabera .....                                                                                                  | 99  |
| <b>II.5.</b>   | Desleialtasunaren onespina, sexuaren eta egoera zibilaren arabera .....                                                                                                 | 99  |
| <b>II.6.</b>   | Desleialtasunaren onespina, sexuaren eta adinaren arabera .....                                                                                                         | 100 |
| <b>II.7.</b>   | Zure semeak/alabak... bizi izatea onartuko zenuke?, adinaren eta seme-alabak izatearen arabera .....                                                                    | 100 |
| <b>II.8.</b>   | Erlijio-ezkontzari heltzeko arrazoiak, sexuaren eta erlijioaren arabera .....                                                                                           | 101 |
| <b>II.9.</b>   | Erlijio-ezkontzari heltzeko arrazoiak, sexuaren eta adinaren arabera .....                                                                                              | 101 |
| <b>II.10.</b>  | Aukeratuko litzatekeen bizikidetasun-mota, sexuaren eta erlijioaren arabera .....                                                                                       | 102 |
| <b>III.1.</b>  | Seme-alabak munduratzeko arrazoiak, adinaren arabera .....                                                                                                              | 102 |
| <b>III.2.</b>  | Seme-alabak munduratzeko arrazoiak, sexuaren eta adinaren arabera .....                                                                                                 | 102 |
| <b>III.3.</b>  | Seme-alaben kopurua kontrolatzeko arrazoiak, adinaren arabera .....                                                                                                     | 103 |
| <b>III.4.</b>  | Seme-alaben kopurua kontrolatzeko arrazoiak, sexuaren eta adinaren arabera .....                                                                                        | 103 |
| <b>III.5.</b>  | Zeinek erabakitzen duen seme-alabak izatea, sexuaren arabera .....                                                                                                      | 103 |
| <b>III.6.</b>  | Emakumeen iharduera, egoera zibilaren arabera .....                                                                                                                     | 104 |
| <b>III.7.</b>  | Inkestaturiko emakumeen iharduera, egoera zibila eta dikotomizaturiko adinaren arteko erlazioa .....                                                                    | 104 |
| <b>III.8.</b>  | Emakumeen iharduera, ikasketa-mailaren arabera .....                                                                                                                    | 104 |
| <b>III.9.</b>  | Inkestaturiko emakumeen iharduera, ikasketa-maila eta adinaren arteko erlazioa .....                                                                                    | 104 |
| <b>III.10.</b> | Seme-alaben kopuruaren, ihardueraren eta adinaren arteko erlazioa (ezkondutako emakumeak) .....                                                                         | 105 |
| <b>IV.1.</b>   | Zeinek egiten dituen etxeko lanak, egoera zibilaren eta sexuaren arabera ....                                                                                           | 105 |
| <b>IV.2.</b>   | Etxeko lanak egin ohi diren, ezkondutakoen sexuaren eta adinaren arabera .....                                                                                          | 106 |
| <b>IV.3.</b>   | Ezkondutako emakumeek etxeko lanak egin ohi dituzten, sexuaren eta ihardueraren arabera .....                                                                           | 106 |
| <b>IV.4.</b>   | Ezkondutakoek zenbateko maiztasunez egiten dituzten etxeko lanak, sexuaren arabera .....                                                                                | 107 |
| <b>IV.5.</b>   | Zure etxeko lan banaketa justua eta borondatezkoa al da? Etxeko lanak egin ohi dituztenak, sexuaren eta egoera zibilaren arabera .....                                  | 107 |
| <b>IV.6.</b>   | Gizonek lehen baino lan gehiago egiten dute etxean eta gurasoek zeregin ezberdinak agintzen dizkiete seme-alabei, egoera zibilaren, adinaren eta sexuaren arabera ..... | 108 |

|                                                                                                                                                                          |     |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----|
| <b>IV.7.</b> Emakumeak gizonak baino hobeak dira etxeko lanak egiten, sexuaren eta adinaren arabera .....                                                                | 108 |
| <b>IV.8.</b> Emakumeak gizonak baino hobeak dira etxeko lanak egiten, sexuaren eta adinaren arabera (ezkonduak) .....                                                    | 109 |
| <b>IV.9.</b> Erabakiak hartzerako erantzukizunen banaketa ezkonduakoen artean, sexuaren arabera .....                                                                    | 109 |
| <b>IV.10.</b> Erabakiak hartzerako erantzukizunen banaketa; emakume ezkonduak lanaren arabera .....                                                                      | 110 |
| <b>IV.11.</b> Etxeko lanengatiko poztasuna, egoera zibilaren, adinaren eta ihardueraren arabera; etxeko lanak egin ohi dituzten emakumeak .....                          | 110 |
| <b>IV.12.</b> Etxeko lanak egin ohi dituzten emakumeek etxeko lanaz duten iritzia, egoera zibilaren arabera .....                                                        | 111 |
| <b>IV.13.</b> Etxeko lanetan ematen den ordu-kopurua; etxeko lanak egin ohi dituzten emakumeak .....                                                                     | 111 |
| <b>IV.14.</b> Etxeko lanetan ematen den ordu-kopurua, asteburuetan (etxeko lanak egin ohi dituzten emakumeak) .....                                                      | 112 |
| <b>IV.15.</b> Etxeko lanen garrantzia eta zergatik diren garrantzitsuak, sexuaren eta adinaren arabera .....                                                             | 112 |
| <b>IV.16.</b> Etxeko lana ... baino nekezagoa dela uste duzu, lan motaren arabera .....                                                                                  | 113 |
| <b>IV.17.</b> Etxekoandreek erakutsi ohi duten irudia, adinaren eta sexuaren arabera .....                                                                               | 113 |
| <b>IV.18.</b> Etxekoandreek erakutsi ohi duten irudia, adinaren eta sexuaren arabera .....                                                                               | 114 |
| <b>IV.19.</b> Haurtzaindegian hasteko adinik egokiena, seme-alabak izan ala ez izatearen eta sexuaren arabera .....                                                      | 114 |
| <b>IV.20.</b> Haurtzaindegian hasteko adinik egokiena, emakumeen iritzia adinaren arabera .....                                                                          | 115 |
| <b>IV.21.</b> Haurtzaindegian hasteko adinik egokiena, emakumeen iritzia lanaren eta seme-alabak izan ala ez izatearen arabera .....                                     | 115 |
| <b>IV.22.</b> Haurtzaindegietan azpimarratu beharrekoak; emakumeak, sexuaren eta seme-alabak izan ala ez izatearen arabera .....                                         | 116 |
| <b>IV.23.</b> Haurtzaindegietan azpimarratu beharrekoak; emakumeak, lanaren eta seme-alabak izan ala ez izatearen arabera .....                                          | 116 |
| <b>IV.24.</b> Astialdia eta familiarekiko erantzukizunengatik ordutegiak bateratzeko arazoak, seme-alabak izan ala ez izatearen eta sexuaren arabera .....               | 117 |
| <b>IV.25.</b> Astialdia eta familiarekiko erantzukizunengatik ordutegiak bateratzeko arazoak, emakumeak ihardueraren eta seme-alabak izan ala ez izatearen arabera ..... | 117 |
| <b>IV.26.</b> Astia emateko orduak noiz suertatzen diren, sexuaren eta seme-alabak izan ala ez izatearen arabera .....                                                   | 118 |
| <b>IV.27.</b> Astia emateko orduak noiz suertatzen diren; emakumeak, lana eta seme-alabak izan ala ez izatearen arabera .....                                            | 118 |



**AURKEZPENA**


**"F**amilia eta etxe-arlokoa Euskal Autonomi Elkartean" liburu honek familiak bizi duen egoeraren ikuspegi zabala eskaintzen digu. Bizitzaren esparru honetan eginkizunak se-xoen arabera banatu dira betidanik: emakumeei, etxea eta bertan bizi direnak zaintzearen in-guruko lana eman izan zaie; gizonei, etxera dirua ekartzea egokitu zaie. Lan honetan aztertu ditugunak dira familia-eredu desberdinak, ezkontzak, haurrak eta lana, eta baita etxeko arloan sortzen diren harremanak ere.

Bertan jasotzen diren datu eta iritzietatik ondorio hau atera daiteke: egia da aldaketak izan di-rela familiaren egituran; bere barne-antolaketan; gizartean betetzen dituen eginkizunetako zen-baitetan; berari buruz ditugun jarrera eta ideietan; sexu-erlazioetan eta ugalketan; baina hala eta guztiz ere, etxe arloan eginkizunen banaketak lehengoaren antzekoa izaten jarraitzen duela dirudi.

Lan-merkatura lehen baino emakume gehiago iristeak bestelako esparru batzuetan ere ema-kume gehiago egotea ekarri du eta, horren ondorioz, haurrak eta etxea zaintzea bikotearen lana dela dioen ideiarenean aurrean gizartean jarrera zabalagoa somatzen da. Hala ere, oso urrun gaude lan horietan gizon eta emakumeen ardura bera izan dadila lortzetik. Eta ez dezagun ahanztz: familiako erantzukizunak banatzea ezinbesteko baldintza da lanean (eta gizartean) gi-zon-emakumeen arteko berdintasuna lortu ahal izateko.

Egoera horren aurrean, aita edo ama izateak dakartzan eginkizunak langile izateak dituenekin nola elkarlotu pentsatu behar dugu. Irtenbidea desberdina izango da gizarte-maila edo lanbi-de-mailaren eta bestelako ezaugarri batzuen arabera: familia handiagoa edo txikiagoa den, etab. Etxeko eginkizunak eta lanbidea gizartea-bizitzaren bi alderdi osagarri izan behar dute eta horren arabera antolatu behar dira.

Erantzukizunak banatzean orekari eusten badiogu, bakoitzaren nortasuna sexuarekin lotutako mugak alde batera utziaz eraiki ahal izango dute ondorengo belaunaldiek, gizon-emakumeen arteko harremana beste modu batera ulertuko dute eta: beraientzat, berdintasunean eta elkar-tasunean oinarritutako harremana izango da.



Iz. Txaro Arteaga Ansa

EMAKUNDE / Emakumearen  
Euskal Erakundeko Zuzendaria



**SARRERA**

Ikeik egindako txostenean oinarrituriko ikerketa honek etxe-arloko zer guztiekin dituen hartue-  
manen ikuspegitik aztertzen du emakumea, eta horrek Euskal Autonomi Elkartearen familia-  
kundera, beronen ereduak eta hartuemanak aztertzea eskatzen du.

Teoria mailan, azken finean hipotesi-multzo batera garamatzan ikerketa honen abiapuntu izan  
diren giltzarriak agertzen dira.

Azterlan hau egituratzen duten lau atal handiek, hau da, familia-guneak, ezkontzari buruzko  
iritziak, emakumea eta ugalketa eta etxe-arlokoa deiturikoak, ez dute gai hau oso-osorik jorra-  
tzen, baina, nolanahi ere, alderdirik garrantzitsuenenak ikutzen ditu, azterkizun gelditu diren  
beste zenbait alderdiren analisi eta azterketa sakona etorkizunerako utzita.

## Marko teorikoa

Historialari batzuek <sup>1</sup> Goi Erdi Aroan eta aintzinako zenbait gizartetan ere ikusten dute familia  
nuklearraren sorrera eta nagusitzea. Estatistika iturriek erakusten dutenez, Europa mailan, Aro  
Modernoaren hasieratik nabari dira famili antolakera ezberdinak, lurralderik lurralde bata zein  
beste nagusi zela. Ditugun datuen arabera, Europako nekazarien artean hainbat famili eredu  
ageri dira, ekonomi iharduerarekiko lotura-motaren eta lurren besteganaketa eta jaraunspen-  
sistemaren arabera, alegia.

Euskadin, nolanahi ere, ezkontzak ez zekarren, halaber, etxe berriaren eraketa, jatorrizko  
etxearen zabaltzea baizik, horrela bermatzen baitzen bertako ekonomi antolakundera elkarrekin  
parte hartzen zuten gizaldi ezberdinen elkarbizitza. Ezaugarri nagusitzat ezkontzean adintsuak  
izatea eta behin-betiko ezkondu gabekoen proportzio handia zituen ezkontza-ereduari jarraituz,  
ezkontzarako helpidea murriztuta zegoen, lurgintzarako lurrerakoa bezala, jarauspenera zatiezina  
baitzen, eta horrenbestez, familia eratzeak ahalbideak mugatuak ziren gure Lurraldean.

Kantauri aldeko euskal familiaren eredu nagusia <sup>2</sup> familia zabala izan da, hau da, gurasoak etxea  
eta lurgintzarako lurra jarauntsiko dituen semearekin bizi dira eta gainontzeko neba-arrebek  
gurasoen etxetik alde egingo dute nork bere etxea eratzean.

Industrializazio-prozesuak, ordea, baserriaren inguruan atontzen zen nekazarien ekonomian oi-  
narritutako euskal eredu sozioekonomiko zaharraren haustura ekarri zuen. Euskal gizartearen  
funtsezko osagaietako bat, migrazioa alegia, norabidez aldatuko da. Lantegi berriak azken bi  
mendeetan zehar ohizkoa zen Ameriketarako migrazioaren pareko alternatiba bihurtu ziren,  
Euskal Herritik kanpokoentzat ere bai gainera. XIX. mendeko azken herenaz geroztik, Bilbo in-  
guratzen duen meatzaldeak migrazio-aldi nabarmenak hartuko ditu, Gaztelako probintzietatik  
etorkinak ere bertaratuz.

Euskal Autonomi Elkartearen industrializazioak ordurarte nagusi zen famili ereduaren bilakaera  
ekarri zuen, familia nuklearraren nagusitasuna alegia.

<sup>1</sup> Burguiere, André eta beste egile batzuk. "Historia de la Familia". Alianza Editorial. 387. orr. Madrid, 1988.

<sup>2</sup> Kantauri aldeko euskal familia tradizionalak Europako Mendebaldeko Ezkontza-Eredua (Hajnal, 1956) deiturikoan  
sartzen den ezkontza-ereduari eutsi zion, Europako Alpe-aldean hedatutako STEM deritzan famili sistema nuklear  
zabalen ondoan.

1970. hamarkadan gertatzen den bigarren industrializazioaz hasten da emakumeen laneratzeko masiboa, Europako beste herrialde batzuetako emakumeena baino dexente geroago, beraz, nahiz eta zenbait emakume, han hemenka, lehenago laneratu ziren.

Guzti honi antisorgailuetan aplikaturiko garapen teknologikoa erantsi behar zaio, zeren, horrenbestez, emakumeek zenbat seme-alaba noiz eta munduratuko dituzten erabaki ahal izango baitute.

Lan merkatura heltzen diren emakumeak gero eta gehiago diren heinean, politika, kultura zein beste arlo batzuetara heltzea ere errazagoa zaie emakumeei, eta guzti honen ondorioz gizarte-jokabide eta jarreretan halako askatasun-gehitze bat nabari da. Etxeko lanen erantzunkizuna mugatzerakoan ere aldaketa nabarmena suertatu da gizartean, gizon eta emakumeen berdintasunerantz abiatzen diren jokabideak urratzen hasiak direla. Gizartean gero eta argiago dago seme-alaben zaintza eta etxeko lanak ez direla, halabeharrez, emakumeen erantzukizun eskusiboa.

Ezkontza-lokarria hautsi delako edo halako lokarririk ez delako, famili eredu berriak agertzen direnetik, jokamolde aldaketa bat nabari da, emakumeen autonomiaren areagotzea antzematen zaion aldaketa alegia.

Espainiar Estatuari dagozkion 80. hamarkadaren azken urteetako datu demografikoek ere baieztu egiten dute hipotesi hau<sup>3</sup>. Espainian, ezkontzaz kanpo jaiotako seme-alabak, hau da, bizikidetzan diharduten bikoteengandik sortuak, 1970.ean % 1,4 baziren, 1988.ean % 9,2 izatera heldu dira. Europako zenbait herrialdetan (Danimarkan, Frantzian) tasa hauek portzentaia askoz ere handiagoak erakusten dituzte, % 45 eta % 26. Bizikidetzaren beste adierazgarri bat jaiotze-tasan aurkitzen dugu, Espainian nabarmen murriztu dena<sup>4</sup>, 1975.etik 1985.era, beheko jo zuenean, % 41ean gutxitu da, 1,05etik 0,62ra hain zuzen. Hala eta guztiz ere, C.I.S. delakoaren 1991.eko inkesta baten arabera, batasunetik % 2 baino ez dira adostasunezkoak. Alabaina, bai ezkontzaz kanpo jaiotako seme-alabei dagokien adierazleak, bai adostasunezko batasunei dagokienak, Espainiar Estatuaren Europar nagusi diren joeretan sartu dela esatera garatzen diren, hots, bizikidetzako bikoteek gizarte-fenomeno gisa kontutan hartu beharreko famili eredua eratzen dutela.

Bikotearen krisiak, eta gizartean onetsitako famili eredu berrien zuzperketak —gizartearen onepena baita gertaera horren alderdi berria—, familiaren azkentzea ote dakarte? Datuek ez dute horrelakorik erakusten, alderantziz, famili leinuen oinarri izan daitezkeen senitarte-sareen sendotuz doazela dirudi, agian emakumezkoen leinu-segmentuetan bilakatu daitezkeenak, orain ere amak hazten baititu seme-alabak. Badirudi etorkizunean sare hauek arrakasta handia izan dezaketela gizarte industrializatueta, berauetan oinarritzen baitira “papy” eta “mamy boom”<sup>5</sup> deiturikoak edo, beste modu batez esateko, guraso bakarreko familiak.

Estatu industrializatueta familia, senitarte-sare malgu baten barruan dagoena, garapen-bidean aurrera egiten duten neurrian gizarteak helmuga duten eredu nagusi eta unibertsal gisa ageri da.

<sup>3</sup> J.A. Fernández Córdón. “Demografía y Política de la Familia en España” (Emakunde antolatutako Demografia eta Politika Publikoetako buruzko Mintegian aurkeztutako txostena). Gazteiz, 1992.

<sup>4</sup> J. A. Fernández Córdón. aip.

<sup>5</sup> Burguiere, André eta beste batzuk. aip. 541 orr.

Familian izandako aldaketak azaltzerakoan, garrantzizkoena familiak gaur egun betetzen dituen funtzioak zehaztea da, eta bereziki, kontsumo-unitate gisa eta laguntzazko Estatuak eskaintzen ez dituen zerbitzuen emale gisa betetzen duen funtzio ekonomikoa. Izan ere, familiak zerbitzu-kopuru itzela eman eta bermatzen baitie etxekoei, beste erakunde batzuren esku baleude kostu haundikoak liratekeen "pertsonarekiko" zerbitzuei dagokienez, batipat.

Beharrianen eta baliabideen arteko bitartekotza hau emakumeen lanaz eta nekeaz betetzen da hein haundi batean. Biztanleria osoaren ongizatean ezezik, sozializazio-prozesuekin eta gerorako hiritarren heziketarekin duten zerikusi zuzenean datza, hain zuzen ere, etxean ematen diren gizarte-zerbitzu hauen garrantzia.

Horregatik, Emakundek prestatu eta Eusko Jaurlaritza onartu duen Emakumeentzako Ekintza Positiborako 1991-1994 Plangintzan<sup>6</sup> proposatzen den bezala, etxe-arloan burutzen diren prestazio hauek aintzatetsi eta ebaluatu beharra dago, emakumeak eskubide osoko subjektutzat hartzen dituen gizarte-politika berri baten abiapuntu gisa.

Horrez gainera, pentsamoldeak aldarazteari ekin behar zaio, izan ere, Administrazioak burututako laguntzazko politikak ez da ekimen pribatuaren esparruak ezabatzen ahalegindu behar ez eta familian nahiz auzoan betetzen diren zerbitzu guztiak ordezkatzeko. Horretarako, gizonen eta emakumeen artean banatu behar dira familiarekiko erantzukizunak, eta aldi berean, pertsonen oinarritzako beharrianak bete baliabide publikoez.

Ugalkortasunari dagokionez, herrialde industrializatueta nabari den aldaketarik garrantzizkoena jaiotze-tasaren beherakada da, beherakada hau 1980. hamarkadan hasi zen eta oraindik ez da gelditu.

Sarritan erabiltzen da jaiotze-murrizketa hau emakumeak masiboki lan merkaturatzeari lotzen dion argudioa. Hala ere, lan iharduera eta ugalkortasunaren arteko loturak, hainbat gizartetan aztertua izan bada ere, ez du eragin hori zuzena eta garbia denik erakusten.

Ugalkortasunean eragina duten faktoreak direla-eta O.N.U.k 1990. urtean egindako azterlan batean<sup>7</sup> adierazten denez, ekonomiari, gizarteari eta osasunari loturiko faktoreak garrantzitsuak dira baina ez funtsezkoak. Espainiako emakumeen lan merkaturatzea dela-eta egin diren zenbait azterlanetan, berriz, aldagaien arteko loturak matizatzen dira aurrebaldintza edo aurremugape-nik aipatu gabe. Enpleguaren eta ugalkortasunaren arteko erlazio negatiboa, Iraganaldi Demografikoaren Teoriak<sup>8</sup> formulatu duen eran, behinik behin, ezin izan da frogatu.

Emakumeen lan iharduerari eta ugalkortasunari buruzko azterketak, objektiboa izango bada, emakumeen gizarte-lanbide maila, ikasketa maila eta lan egitera bultzatu duten arrazoiak hartu beharko ditu kontutan.

Emakumeen lan ihardueraren eta ugalkortasunaren arteko erlazioari dagokionez, badirudi 1980. hamarkadatik nabari den aldaketaren gakoa balore-aldaketan eta emakumeen burujabetasun ekonomikoa datzala, eta ez horrenbeste amatasuna-etxetik kanpoko iharduera delako bino-mioan.

<sup>6</sup> **Emakunde**. "Euskal Autonomi Elkarteko Emakumeentzako Ekintza Positiborako Plangintza, 1991-1994". Vitoria-Gasteiz, 1991.

<sup>7</sup> **Sarribe, Gabriela**. "Fecundidad y Actividad Femenina". REIS delakoan, 52 zk., 85-90 orr. 1990.eko urria-azaroa.

<sup>8</sup> **Fernández Méndez de Andrés, F.** eta beste batzuk. "Actividad laboral de la mujer en relación a la fecundidad". Kultura Ministraritza. Instituto de la Mujer, Estudios 10 Saldoa. 27-34 orr. Madril, 1987.

Azterlan honetan ikus daitekeenez, Euskal Autonomi Elkarteko jaiotze-tasen beherakadak eragin berdintsua du emakume-mota guztiengan, etxeko nahiz etxetik kanpoko lan iharduera edozein dela. Beste alde batetik, bai ekipamendu mailako gizarte-zerbitzuen gabezia, bai familiak "beste pertsona batzurekiko" zerbitzuak emanez oraindik ere betetzen duen eginkizuna, emakumeei leporatu ohi zaion eta gizartean gutxietsia den eginkizuna alegia, eta bai famili plangintza eragin handia izan dueneko amatasun arduratsuaren bereganatzea, emakumeek ama bihurtzeko erabakia hartzerakoan jarrera berri batez agertzeko eragingarriak izan zitezkeen elementuak ditugu.

Era berean badirudi, emakumeen banan-banako ibilbideak aztertu ditzaten ikerlanak burutu beharko direla, jaiotze-tasen beherakadetan eta gorakadetan eragina duten elementuak mugatu eta zehazteko, izan ere, ugalkortasunaren eta enpleguaren arteko loturen arabera emakumeen tipologia oinarritzat harturik eratutako banan-banako ibilbideek binomio honen funtsezko elementuak sistematikoki mugatu eta zehaztea ahalbidetzen baitute.

Luzerako azterketa hauen ildotik, Espainiako soziologi azterlanetan azken urteotan sartu diren teori eta metodologi mailako berrikuntzetariko bat Bizitza-Zikloa delako kontzeptua dugu.

Ikuspegi honen ezaugarriak nagusia denborazko dimentsioa da, hots, familia, talde txiki hori, Beltrán eta beste batzuek dioten bezala "como algo que posee una historia natural regular que lo hace atravesar ciertas etapas, durante las cuales el comportamiento adecuado para cada posición individual y sus cambios a causa de la edad se rigen por normas sociales"<sup>9</sup> bailitzan ikustea.

Familiaren bizitza-zikloa familiaren beste dimentsio batzuri loturiko aldagai independente gisa erabiliz, denborazko ikuspegia eta azalpen-gaitasuna areagotu egiten dira familiak denboran zehar bere dimentsio ezberdinetan izaten dituen aldaketei dagokienez.

Gure gizarteko familiaren "eraketa" delakoari dagokionez, aldaketarik nabarmenenak aipatzekotan, ezkontzen direnen batzbesteko adina zaharragotu egin dela eta, nahigabeko haurdunaldiak areagotu egin diren arren, gazteen arteko ezkontzak gutxitu egin direla aipatu behar eta, era berean, seme-alaben kopurua gutxitu egin dela nahiz eta haiek munduratzan dituzten gurasoen adinak gora egin duen.

Ezkontzari buruzko iritzia bera ere aldatu egin da, adostasunezko batasunen gehikuntza eta ohizko ezkontza-kopuruaren murrizketa horren erakusgarri dira.

Aldaketa hauek Mendebaldeko Europako gainontzeko herrialdeetan antzematen direnen ildotik doazela dirudi.

Azkenik, familia erakunde malgua dela eta gizarte-maila eta biologi-maila elkarlotu ditzaten tankera ugariz jantzi daitekeela esan beharra dago.

Gure ustez, emakumeak diskriminatzen ez dituen ikuspegi batetik, etxekoen ongizaterako beharrianen eta baliabide publikoen arteko orekari eusten diotenak izanik, emakumeek etxe-arloan betetzen dituzten eginkizunen funtsezkotasuna aitortu beharra dago gizartearen aldetik, etxe-arloan nahiz gizartean emakumeentzako politika positiboak benetan indarrean jartzerako bideari jarraitu beharra dagoen bezala. Zeren familiak, edozein eratakoa izanik ere, gizateriak

<sup>9</sup> Beltrán, M. eta beste batzuk. "Estudio sobre la familia española". Lan eta Gizarte Segurantzako Ministraritzak, 326. orr. Madril, 1987.

gure munduan haren eginkizuntzat onartzen diren zeregin jakinak suntsitu ez ditzan bitartean, familia izateari eutsiko baitio.

## **Lan hipotesiak**

Ikerketa hau lau analisi-atalez osoturik dago, emakumeen egoera familiari eta etxe-arloari dagokionez aztertzen dituzten lau atalok hauexek dira: Familia-Guneak, Ezkontzari buruzko iritziak, Emakumea eta Ugalketa eta Etxe-Arlokoa deiturikoa.

Azterlan hau osotzen duten ataletariko bakoitzean erabilitako lan hipotesiak ondoren adierazten dira.

### **• Familia-guneak**

Familia-kopurua azkar gehitu bada ere, aldi berean, haren tamainua gutxituz joan da, etxe bakoitzeko batzbesteko pertsona-kopurua ezarian-ezarian gutxitu da biztanle-kopuruak gorantz egin duen aldi berean. Bilakaera honekin batera "famiaren testuinguruaren nuklearizazioa" gertatu da, hots, tamainu txikiagoko familiak ugaritu egin dira bizimodu gero eta norberekoia-goa eta independenteagoa nagusituz joan den heinean. Gaitasun ekonomikoan eta gizarteratze-mailan eragozpenak izateko joera duten pertsonak biltzen dituzten pertsona bakarreko eta guraso bakarreko etxe-kopurua asko gehitu da.

Demografia azkar egokitu da krisialdi ekonomikoak sortarazitako egoerara, eta egokitzapen horrekin batera famiaren eta ugalkortasunaren balioari buruzko kontzepzio berria agertu da. Ondorengoak aukera-kostua direlako ustea hedatzen ari da, eta horrenbestez, lortu nahi den familia-tamainua, agian, ezin konpentsatu daiteke hura erdiesteko interesgarritasunaren zenbaterainokoaz, eta aldi berean, lehenengo semea edo alabaren jaiotzea berandutu egiten den heinean bigarren bat munduratzeko ahalbidea eragotzi egiten da.

### **• Ezkontzari buruzko iritziak**

Familiak erakunde gisa badirau, baina gaur egun eratzen diren bikote berriak ezberdinak dira eta ez diete bezain beste lehenagoko jokabideei jarraitzen. Aldaketak, berriz, hala famiaren egituran eta barne-antolamenduan, nola familiak gaur egun betetzen dituen gizarte-eginkizunetan nabari dira. Famiaren barne-dinamikari dagokionez, zenbait adierazlek erakusten duten moduan, pertsonak ezkontzera bultzatzen dituzten arrazoietan eta etxe-arloan ohizkoa izan den sexuan oinarritutako rol-bereizketaren ahultze gero eta nabarmenagoan, besteak beste, nabaritzen dira aldaketak.

Ezkontza-mota ezberdinak onartzeko halako joera bat dago, bikoterik osotu gabeko bizimoduak, esate baterako, onespen orokorra du dagoeneko. Nolanahi ere, ezkontzari eta familiari buruzko ohizko baloreek eragin handia dute oraingoz, bai eta belaunaldirik gazteenengan ere.

- **Emakumeak eta ugalketa**

Ugalketa, gero eta gehiagotan, interes ideologikoei, maitasunezkoei eta kultura-mailakoei loturik ageri zaigu; prozesu hau berezko eta biologiazko gertaera hutsa zelako ustea, taldearen biziraupenari lotua, zaharkitu da dagoeneko. Familiaren eraketa esplikatzerakoan, nahi izaniko, borondatezko prozesu positiboa aipatzen da, zeinetan ondorengoak izateko erabakia arrazoitu egiten den, berorretatik eratorri daitezkeen onurak eta akatsak baloratuz. Amatasuna gizarte-mailako egitate arduratsu bat bezala onartzen da gero eta gehiagotan.

Ekonomiaren ikuspegitik, berriz, seme-alabak kostu bat bailiran hartzen dira, familiaren ekonomia mugatzen duen kostua. Belaunaldi berriek, aitzitik, bizi izateko baliabideak bermatzeaz gainera, aita zein ama izateari dagozkion erantzukizuna eta konpromisu pertsonalari buruzko balorazio eta hausnarketa sakonagoak egiten dituzte.

Emakumeen etxetik kanpoko lan ihardueraren eta ugalkortasunaren arteko erlazioa, batetik balore aldaketa batean datza eta, bestetik, emakumeen burujabetasun ekonomikoan, eta ez horrenbeste amatasuna-enplegua delako binomioan.

- **Etxe-arlokoa**

Emakumea lan merkatura gero eta gehiago heltzen ari den heinean, badirudi familiaren baitako eginkizunen ohizko zatiketan ere aldaketak suertatu daitezkeela berdintasunerantz abiatuz. Familiaren antolamenduan eta ugalketa-mailan izandako aldaketak, aitzitik, ez du eragin nabarmenik izan sexu bakoitzari dagokion apropos "izate" eta "ez izate" hori gizartean nolabait mugatzen diren sexuan oinarritutako rolak etxe-arloan egokitzerakoan. Gazteen artean gero eta gehiago onartzen da etxe-arloa berez ez dela emakumeen arlo hutsa eta, beraz, eginkizunen banaketa zentzuzkoago eta berdintsuago baterantz jo beharra dagoela. Sexuen arteko rolei buruzko kontzepzio aldatuko bada, bi elementu, gutxienik ere, ezinbestekoak dira, hots, ikasketamaila handiagoa eta emakumeen enplegua.

Seme-alabekiko eta beste senide batzuekiko zaintza eta harremanak eta seme-alaben eta gurasoen arteko harreman alderatuak, behar bezala jorratu nahi badira, berriazko arreta eskatzen duten aztergaiak dira, eta horregatik ez dira azterlan honetan agertzen, gainontzeko aztergaiak ere askotxo baitira.

1

**FAMILIA-  
GUNEAK**

## FAMILIA-GUNEEN BILAKAERA KOPURUAREN, TAMAINUAREN ETA NOLAKOTASUNAREN ARABERA

# 1.1

Euskal Autonomi Elkarteko (E.A.E.) zentsu eta errolda ezberdinetako datuek erakusten dutenez, "etxekoa"-ren <sup>10</sup> tamainuan, egituran eta antolamenduan aldaketak gertatu dira demografia eta familian ohizko izan den ereduari izandako aldaketen ondorioz. Aldaketa hauek beste industria-dun herrialde batzutan ere gertatu diren prozesu berdintsuak isladatzen dituzte. Etxe edo familia-kopurua oso azkar gehitu den bitartean, haren tamainuan alderantzizko joera somatu da, hots, etxekoen batazbesteko kopurua ezarian-ezarian gutxituz joan da, biztanleria, oro har, gehituz joan den aldi berean.

XX. mendean zehar, bizitza-itxaropena eta haren kalitatea areagotuz joan dira, hilkortasunaren eragina, oro har, nabarmenkiro murriztu den heinean, umeen hilkortasuna batez ere; aldi berean, 1.1 taulan agertzen den bezala, jaiotze-tasa gorabeherako joera erakusten duela, behe-rakoa gehien bat. Jaiotze-tasa txikiago honek, azken hamarkadetako bizitza-itxaropenaren gehikuntzarekin batera, adin-egitura berri bat sortarazi du, ezaugarri nagusitzat 15 urtez beherako biztanleriaren eragin gero eta txikiagoa eta 65 urtez gorakoen proportzio gero eta nabarmenagoa izateko joera duena <sup>11</sup>.

### 1.1. TAULA. Jaiotzeen, hilkortasun orokorraren eta umeenaren eta bizitza-itxaropenaren bilakaera E.A.E.an.

|      | JAIOTZE TASA<br>GORDINA (%) | HILKORTASUN<br>TASA GORDINA (%) | UMEEN HILKOR-<br>TASUN TASA<br>GORDINA (%) | BIZITZA-ITXAROPENA<br>(Urteak) |           |
|------|-----------------------------|---------------------------------|--------------------------------------------|--------------------------------|-----------|
|      |                             |                                 |                                            | Gizonak                        | Emakumeak |
| 1950 | 19,6                        | 9,9                             | 45,9                                       |                                |           |
| 1960 | 25,0                        | 7,9                             | 33,5                                       | 71,9                           | 65,8      |
| 1970 | 21,0                        | 7,4                             | 25,5                                       | 73,9                           | 67,4      |
| 1980 | 13,5                        | 6,7                             | 14,4                                       | 78,5                           | 70,8      |
| 1989 | 7,9                         | 7,2                             | 8,4                                        | 79,6                           | 72,2      |

\* 1983.eko datuak.

Iturria: MNP, Eustat, 1990.

Bilakera honekin batera, familia-kopuruaren gehikuntza eta haien tamainuaren txikitzea ekartze-ko mesedegarria suertatzen den "famili testuinguruaren nuklearizaioa" gertatzen da, gero indibidualistagoa eta independenteagoa den bizimodu baten onespenez ere eragiten diona.

<sup>10</sup> Zentsu-ondoreetarako familia mugatzerakoan honako definizioa onesten da: "oro har senitartekoak izanik, eta gehienetan etxebizitza oso bat betez, elkarrekin bizi den giza-taldea". Hortaz, familia bat zenbait familia-gunez (edo familiaz zentzu hertsian) osotua izan daiteke hurrengo lau modalitateon arabera: seme-alabarik gabeko senar-emazteak, seme-alabak dituzten senar-emazteak, aita ezkondu gabeko seme-alabekin eta ama ezkondu gabeko seme-alabekin. Familiaren nuklearizazioarako joera dela eta, familia-guneak zentzu hertsiko familia bilakatzeko joera nabari da.

<sup>11</sup> E.A.E.an, esate baterako, 65 urtez gorako biztanleria portzentaiazko 3,4 puntuz gehitu da 1950.az geroztik.

Osantsuagoak direnetik eta ekonomia hobea dituztenetik, pertsona nagusien bizi-kalitatea hobetu egin da, eta horrenbestez, beharrezko izan dezaketen norbaiti lotu beharra berandutu egi-ten da bizitzaren azken etapararte, hots, 75 urtetik aurrera. Horrela ulertzen da pertsona na- gusien bikoteek bakarrik bizi izateko joera gero eta arruntagoa, bikoterik izan ez duten pertsona nagusiengan bezalaxe, senarra edo emaztea hildakoan ere nabari dena.

Lan egiteko adina duten gazteek ere egoera material hobea izanez gero, familiarekiko lotura hausteko aukera gehiago izango lituzkete, heziketa-aldia bukatu aurretik ere <sup>12</sup>. Alabaina, eko- nomiaren krisialdi iraunkorrak gazteen enpleguan sortarazten dituen gorabeherak direla medio, E.A.E.an ez dute eragin handirik izan, ez lan adinera heldu bezain laster burujabetasun ekono- mikoa izateko aukera horrek, Europako zenbait herrialdetan bultzatua izan dena, ez eta hark familiaren tamainuan duen eragin negatiboak. Abagadune honek gurasoekiko menpekotasu- nean kokatzen ditu gazteak, familia-gune berri bat eratzeke egokierak atzeratuz.

Beste alde batetik, etxe-arloaren egitura aldakorrak, otsein nahiz neskameak ia desagertze- ar daudela, hala nola, zenbait belaunalditako senidez eta hainbat gunez osaturiko familien beha- rrizanetara egokitzen ez diren hirietako etxebizitzek ere familiaren tamainua txikitzearen alde jokutzen dute.

Mendebaldeko familiaren batzbesteko tamainuaren bilakaera nahikoa berdintsua izan da. Nuklearizazioaren zabalkundeak eta pertsona bakarreko etxeen nahiz seme-alabarik gabeko etxe nuklearren ugartze garrantzizkoak antzerako eragina izan dute europar gizartean, familia- ren tamainuaren txikitze azkarra gertatu dela. 1.2. taularen arabera, 1960.etik 1980.era, euro- par familiaren batzbesteko tamainua % 20 batez txikitu da batz bestea. Herrialdeetarik gehie- netan etxe bakoitzeko 3 pertsona baino gutxiago izan ohi dira, Europako hegoaldean izan ezik.

## 1.2. TAULA. Familia-guneen tamainua 1960.etik 1980.era bitartean Europako herrialdee- tan

|             | 1960 |        | 1980 |        |
|-------------|------|--------|------|--------|
| Norvegia    | 3,1  |        | 2,7  |        |
| Suedia      | 2,8  |        | 2,3  |        |
| Finlandia   | 3,3  |        | 2,7  |        |
| Danimarka   | 2,9  |        | 2,4  | (1981) |
| Irlanda     | 4,0  | (1966) | 3,9  | (1977) |
| Ingalaterra | 3,0  | (1966) | 2,7  | (1981) |
| Holanda     | 3,6  |        | 2,9  | (1979) |
| Alemania    | 2,9  | (1961) | 2,5  |        |
| Frantzia    | 3,1  | (1962) | 2,9  | (1975) |
| Portugal    | 3,9  |        | 2,9  | (1981) |
| Italia      | 3,6  | (1961) | 3,3  | (1977) |
| Grezia      | 4,1  | (1951) | 3,8  | (1979) |
| Espainia    | 3,9  | (1962) | 3,5  | (1981) |
| E.A.E.      | 4,1  | (1970) | 3,7  | (1981) |

Espainia eta E.A.E.ko datuak: INE 1970, 1981 eta Eustat 1981, 1986.

*Iturria:* K. Schnarz, 1988: 70-71

<sup>12</sup> Munduko II. Gerratearen ostean, lan adinaz geroztik gazteek gero eta gaitasun ekonomiko handiagoa izatea (la- guntzak, bekak), ez da era berean suertatu Mendebaldeko Europan. Gazteen langabeziari dagokionez, Espainiak Merkatu Amankomuneko indizerik handienak erakutsi izan ditu hari atxiki zitzaionetik, eta E.A.E.ko tasak are handia- goak dira.

E.A.E.ari dagokionez, 1986. urteko datuek erakusten dutenez, hemen ere prozesu hau gero eta nabarmenagoa izan da. 1970 eta 1981 urteetako zentsu-argibideen eta 1986.eko Demografiako eta Balidazioko Inkestaren arabera, bitarte horretan funtsezko txikitze bat gertatu da etxea edo familiaren tamainuan, eranskineko I.1 taula. Urteak igaro ahala, etxe edo familia-mota ezberdinen birbanaketa moderatu bat gertatu da. Pertsona bakarreko etxeak gehitu dira etxe guztiaren beheranzko joeraren pentsura. Seme-alabak dituzten senar-emazteak besterik gabe eratutako etxe nuklearra ugaritu eta orokortu egin dela antzematen da, erreferentziazko hiru datatan familia-gune guztietarik % 74a baitagokie, eranskineko I.2 taulan ikusi daitekeen bezala.

Etxe eta familia-gune ezberdinen bilakaeraren funtsezko elementua ez da haien banaketa, kopurua baizik. 1970.az geroztik, guztizko etxe edo familia-kopurua % 31ean gehitu da, batez ere, pertsona bakarreko etxeak eta gune bakarrekoak, amak seme-alabekin bakarrik eratutako ohizko guneak bereziki, eta ohizkoenak diren senar-emazteek eta berauen seme-alabek eratutakoak gehitu direlako. Emakumezkoak eratutako guraso bakarreko familia-kopuruaren gehikuntza da esanguratsuena. Aipatu urteetan gehien ugaritu den familia-mota da, 1970.etik 1986.era bitartean % 21ean hain zuzen.

Familia-gunea adinaren arabera aldatzen da batipat, eranskineko I.3 taula. Bakarrik bizi diren senar-emazteek eratutako familia da arruntena familia-burua 65 urtez gorakoa denean, eta horrela, bakarrik bizi diren senar-emazteetarik % 45a adin horietakoak dira, seme-alabekin bizi direnak gutxiagotuz doazela.

Azkarren gehitzen ari diren etxe eta familia-mota biak bereziki aipatu behar dira, pertsona bakarreko etxeak eta guraso bakarrekoak alegia, azkarren gehitzeaz gainera, berorietara biltzen baitira gaitasun ekonomikoari eta gizarteratzeari dagokienez nolabaiteko gabeziak izateko joera erakusten duten gizataldeak.

Seme-alabekin bakarrik bizi diren emakumeak gero eta gehiago dira 30 urtetako adinetik aurrera. Talde honetan, % 20ak 65 urtez gorako pertsona nagusia du harengana jo ahal izateko erreferentzia gisa, 55 urtez gorako emakumeak direnean, erreferentziazko pertsona hori 75 urtez gorakoa izan ohi dela; gauzak honela, badirudi gurasoetako bat alargunduz gero, egoitza bera konpartitzeko joera handia nabari dela. Talde-burutzat 65 urtez gorako pertsona bat duten guraso bakarreko familia asko izatearen arrazoi bat gizartearen ohitura zahar batean datza, hots, gazte nahiz zahar izanik ere, ezkondu artean, bederen, jatorrizko etxean gelditzeko ohituran alegia. Helduen artean ezkongee ugari duen gizarte batek, halaber, guraso bakarreko familia askotxo izan ohi du, halakoetan erreferentziazko pertsona alarguntsaren bat izan ohi dela. Hor-taz, eranskineko I.4 taulako datuek adierazten dutenez, guraso bakarreko familietarik % 72ren erreferentziazko pertsona nagusia 65 urtez gorako alarguntsa bat da, gainontzeko % 28a ezkondu gabeko helduek, bananduek, dibortziatuek eta alargunek osaturiko guraso bakarreko familiei dagokiela.

Familia-gunearen era pertsona nagusiarekiko ahaidetasunaren arabera kontutan hartzen bada, I.3 taula, guraso bakarreko gune independenteen proportzioa guztien heren bat baino ez dela, hots, guraso bakarreko gune bakar batez eratutako familiei gutxiengoa dagokiela. Guraso bakarreko gunerik gehienak, gainontzeko bi herenak hain zuzen, euren jatorrizko familiei, gehienetan gurasoei eta kasu batzutan bestelako ahaideei loturik bizi diren eta seme-alabak dituzten emakumeak dira.

Adierazgarria da, halaber, pertsona bakarreko familia-kopurua, hau da, bakarrik bizi diren hirurogeita bost urtez gorako pertsonak. Hortaz, bakarrik bizi diren gazteek eratutako "etxeak" gero eta ugariagoak direla aipatzen da banakatzeko eta famili lokarriak ahultzeko joera gero eta nabarmenagoaren erakusgarri gisa. E.A.E.ari dagokionez, gazte helduek burujabetasunari heltzeko eragozpen ekonomikoak dituztelako edo, bakarrik bizi diren hirurogeita bost urtez gorako pertsonak gero eta gehiago direla erakusten dute datuek, bakarrik bizi diren pertsonetarik % 58 hain zuzen. DBI delakoaren datuen arabera, E.A.E.an 1986.ean 28.600 pertsona agertzen ziren talde honetan. Behin adin batera helduz gero gizonezkoen hilkortasuna handiagoa izanik, pertsona bakarreko etxerik gehienetan 65 urtez gorako emakume bakartiak bizi dira, kasu guztien % 86,4era iristen dira hain zuzen.

### 1.3. TAULA. Biztanleria ahaidetasunaren eta guraso bakarreko familia-gune ezberdinen arabera

|                                                  | ERREFERENT.<br>1. PERTSONA | SEMEA<br>ALABA | SUHIA<br>ERRAINA | ARREBA<br>KOINATUA | ILOBA (g)<br>ILOBA (e) | BESTELAKO<br>AHAIDEAK | 2. GUZTIRA | 1/2 (%) |
|--------------------------------------------------|----------------------------|----------------|------------------|--------------------|------------------------|-----------------------|------------|---------|
| Bizi diren amak:<br>Seme-alabekin baka-<br>rrik  | 45,6                       | 87,0           | 0,1              | 0,4                | 0,7                    | 0,7                   | 140,8      | 32,4    |
| Bizi diren aitak:<br>Seme-alabekin baka-<br>rrik | 7,7                        | 13,1           | 0,2              | —                  | 0,6                    | —                     | 21,6       | 35,6    |

*Iturria:* Demografiako eta Balidazioko Inkesta, I, Eustat, 1986.

Familia-mota ezberdinen bilakaera aldi berean gertatu diren aldaketa-prozesuei loturik dago: batetik, kalitatezko aldaketa, azken hamarkadetan familia eta sexu-harremanak direla-eta garatu diren jarrera eta igurikapen berrien ondoriozkoa, eta bestetik, aldaketa demografikoa, ezkontzaren antolakuntza eta egitura —eta horrenbestez jaiotzeena— aldatu egin baita, dagoeneko ezkontzak sexu-harremanetarako marko bakarra edo/eta lehenetsia izate hura galdu duela eta familia berrien eraketa ere murriztu egin dela.

Prozesu honen ondorioz, jatorrizko familiarengandik aldentzetik nork bere familia eratzerara birtarteko bizitza-ziklo berria zuzpertzten ari da, hau da: gazte helduek bakarrik bizi direnako "etxe"-en eta bizikidetzaren etapa, ezkontzeko adinaren eta amatasunaren berandutzea ekarriko duena.

## FAMILIAREN ERAKETA: EZKONTZAK ETA JAIOTZEAK

# 1.2

Lehenago ere aipatu da azken hamarkadetan ezkontzetan eta jaiotzeetan izan diren gorabeherak zuzeneko eragina izan dutela "etxe" eta familia-guneen bilakaeran eta tamainuan. 1950.etik 1970.era bitarteko industrializazio-aldian, Euskal Herriak inoiz baino etorkin gehiago

hartzen du. Garai horretako zentsuarterko hazkundearen ia erdia migrazio-saldo positiboari zor zaio. Populazioaren gorabehera hauek etengabea zirudien ekonomiaren hazkunde-prozesu baten osagarritzat jo daitezke, haren ondorioz etorkizunerako itxaropenak oso positiboak baitziren. Prozesu honi loturik hirigintzazko dinamika zabala sortzen da eta soldataren bat erdiesteko aukerak gehitu ahala kontsumo gaitasuna ere gero eta handiago dela. Sasoi horretan, demografiaren osagai gehienak alderantzizko joeraz ageri dira.

Ezkontzei dagokienez, ohizko ezkontzaren oinarritzko osagaiak aldatzen dira: ezkontzeko adina eta ezkongabe-kopurua gutxitu egiten dira eta, horrenbestez, ezkontzak areagotzeaz gainera, ezkontideak gazteagoak dira. Ezkontzaren egutegian antzematen den aldaketa honek, beraz, jaiotzeen egundoko hazkundera eta lehenengo semea edo alaba gazteago munduratzea dakar, izan ere, aldaketa hori, antisorgailu eraginkorrez baliatzeko eragozpen handiak baditu ere, familia eratzeko aukera gero eta hobeak aurkitzen dituen familiarekiko jarrera tradizionala, batetik, eta sexualitatea ugalketaz aparte ere onartzen duen familia berriaren antolamendu gero eta ugariagoa, bestetik, barruhartzen dituen gizarte batean suertatzen baita.

Etorkinei zor zaien biztanleriaren bolumen handiagoak ezkontzen gehikuntza dakar eta, jakina, baita jaiotzeena ere: 1950.etik-1976.era bitartean magnitude bi horiek bikoiztu egiten dira, mendeko goia jotzen dutela 1.4 taulan agertzen den bilakaeran ikusi daitekeen bezala.

#### 1.4. TAULA. E.A.E.ko ezkontzen eta bizirik jaiotakoen bilakera 1975.az geroztik

|      | EZKONTZAK |       | JAIOTZEAK |       |
|------|-----------|-------|-----------|-------|
| 1950 | 7.729     |       | 20.061    |       |
| 1955 | 9.245     |       | 24.384    |       |
| 1960 | 10.272    |       | 32.506    |       |
| 1965 | 10.630    |       | 39.020    |       |
| 1970 | 13.531    |       | 38.927    |       |
| 1975 | 17.336    | (100) | 39.646    |       |
| 1976 | 16.093    | (93)  | 41.100    | (100) |
| 1977 | 16.078    | (93)  | 38.806    | (94)  |
| 1978 | 14.669    | (85)  | 35.657    | (87)  |
| 1979 | 13.683    | (79)  | 31.835    | (77)  |
| 1980 | 12.314    | (71)  | 28.812    | (70)  |
| 1981 | 10.810    | (62)  | 27.253    | (66)  |
| 1982 | 12.033    | (69)  | 25.672    | (62)  |
| 1983 | 10.993    | (63)  | 23.920    | (58)  |
| 1984 | 10.897    | (63)  | 22.411    | (55)  |
| 1985 | 9.955     | (57)  | 20.970    | (51)  |
| 1986 | 10.114    | (58)  | 20.094    | (49)  |
| 1987 | 10.155    | (59)  | 18.593    | (45)  |
| 1988 | 10.134    | (58)  | 18.021    | (44)  |
| 1989 | 10.309    | (59)  | 17.024    | (41)  |

*Iturria:* MNP, INE eta Eustat.

“Baby boom” izenaz ezagutzen den jaiotze-kopuruaren hazkunde ikusgarri hau Euskaditik kanpo ere ageri da. Mendebaldeko herrialderik gehienetan Munduko II. Gerratea bukatu ondorengo hamarkadan suertatu zen bakoitzaren “baby boom” delakoa. Bat-bateko aldaketa honen

zergatiak horren argi ez badaude ere, herrialde horietan zenbait ezaugarri amankomun ageri dira, hots, aldaketa demografiko horiek gerratearen amaierari lotzen dizkietenak:

- sistema ekonomikoaren hedapenerako joera;
- soldataren truke lan egitearen orokortzea;
- hezkuntza sistemarako sarbidea orori irekitzea, sexua eta gizarte-klasea kontutan izan gabe;
- lehen sektorearen eraginaren ahultzea;
- gizarte zerbitzuen zabalkuntza eta profesionalizazioa.

Demografiaren hedapen-prozesu honen joera deblauki aldatzen da hirurogeita hamargarren hamarkadaren erdialdera. Demografiaren murrizketa-aldia hasten da, ezkontzei eta jaiotzei alde guztietatik eragingo diona, izan ere, batzuk zein bestetarik azkar eta etengabe gutxituko baitira. Bizirik jaiotako umeei dagokionez, esaterako, 1975.aren aldean % 44era iristen dira 1988.ean, eta ezkontzei bagagozkie, % 58ra. Berriro ageri zaizkigu ohizko ezaugarri demografiko batzuk, ezkontzeko batzbesteko adin zaharragoa etab., eta hauen ondoan ezkontzari dagozkion era berriak, izan ere, erlijioz kanpoko ezkontzak gehitzeaz gainera, batasun askeak ere gero eta gehiagotan suertatzen baitira. Prozesu honek, bestalde, amatasunaren berandutzean ere badu eraginik, eta baita ezkondu gabeko gurasoen munduratuak ume kopuruaren gehikuntza txikian ere, nahiz eta E.A.E.an gaur egun ere halako jaiotze gutxi izan (ikus 1.2.1. atala).

Ezkontzei dagokionez, eranskineko I.5 taula, honako prozesua ageri zaigu: hirurogeigarren eta hirurogeita hamargarren hamarkadetan nagusituz joan zen hogeita hamar urte bete baino lehen, eta batez ere 20-24 urtez, ezkontzeko joera, larrogeigarren hamarkadan deblauki aldatzen dena. 25 urtez beherakoen ezkontzak murriztu egiten dira eta, aldi berean, ezkontza-egutegian gertatutako atzerapenen ondorioz, hogeita hamar urtez gorakoen ezkontzak gehitu egiten dira. Orain 25-29 urte dituztenen taldea da, lehen aldiz, emakumezkoen ezkontzarik gehienak biltzen dituenen, 30 eta 39 urte bitarteko ezkontzak bikoiztu egin direla 1975.eko aldean. Ezkontzeko batzbesteko adina ere, beheranzko joera zuena, goranzko oszilazioz ageri da, eranskineko I.6 eta I.7 taulak.

Eranskineko I.8. taulan ikusten denez, jaiotzeen egitura eta egutegia ere aldaturik ageri dira. 70. hamarkadatik aurrera jaiotzeak, oro har, gutxitu egiten dira, baina, funtsean, hirugarren semea edo alabaz gorakoak. Beste alde batetik, 1975.etik 1989.era bitarteko jaiotze guztien artean lehenengo semea edo alabari dagozkionak, portzentaiaz, ia hamalau puntutan gehitzen dira, eta horrek bigarren semea edo alabaren jaiotzea eta ondorengoena, zer esanik ez, asko atzeratu dela erakusten du. Sasoi horretan, jaiotzerik gehienek ugalketaren hasiera dute helburu.

Jaiotzeen bilakaera hau amatasunaren batzbesteko adinaren goranzko joerarekin ere badu zerikusirik, azken honetan ezkontzaren berandutzearen eragina ere nabari den arren. Lehenengo semea edo alaba munduratzen duten amen adina, batzbeste, bi urtez gehitu da 1975.az geroztik, horrek esan nahi du amatasunaren hasiera, batzbeste, 28 urtez gorako adinetan suertatzen dela. Amatasunaren hasierarako adin hau, aitzitik, galdeketari erantzun diotenek egokiena irizten dioten batzbesteko adina, 23,2 urte alegia, baino askoz ere handiagoa da. Harrigarria izan badaiteke ere, gizonezkoen ustez amatasunaren hasierak lehenago suertatu beharko luke, 22,4 urtez hain zuzen, ikus eranskineko I.9 taula.

Era berean, 1.5 taulan bildu den amaren adinaren arabera jaiotzeen bilakaerak adierazten duenez, jaiotzeak 30 eta 40 urte bitarteko emakume-taldera biltzeko joeraz ageri dira, 20 eta 24 urte bitarteko emakume-taldean izandako jaiotzeak, aldiz, gero eta gutxiago dira, 1989.ean 1975.ean izaten zirenen erdia baino gutxiago hain zuzen. Dena den, oraindik ere 25 eta 29 urte bitarteko taldeari dagozkio jaiotzerik gehienak. Demografiaren osagaietan azken urteetan zehar gertatu izan den murrizketa nabarmenak, berriz, seme-alabak munduratzeko eta ezkontzeko egutegian izandako aldaketak, funtsean, abagadune ekonomiko oker baten eraginez gertatu direla iradokitzen du.

### 1.5. TAULA. Amaren adinaren arabera jaiotzeen bilakaera E.A.E.an, 1975-1988

| URTEA | GUZTIRA | AMAREN ADINA SEME-ALABAK JAIO ZIRENEAN |       |       |       |            |
|-------|---------|----------------------------------------|-------|-------|-------|------------|
|       |         | 20tik behera                           | 20-24 | 25-29 | 30-34 | 34tik gora |
| 1975  | 39.646  | 3,3                                    | 24,2  | 38,0  | 21,3  | 13,2       |
| 1976  | 41.100  | 4,1                                    | 26,8  | 36,5  | 20,8  | 11,9       |
| 1981  | 27.255  | 4,7                                    | 25,1  | 36,6  | 22,3  | 11,3       |
| 1986  | 20.094  | 2,8                                    | 16,1  | 40,0  | 28,9  | 12,1       |
| 1987  | 18.593  | 2,5                                    | 14,4  | 40,0  | 30,7  | 12,5       |
| 1989  | 17.024  | 2,2                                    | 11,7  | 37,7  | 35,7  | 12,6       |

Iturria: MNP, INE eta Eustat.

Nahiko luketen familia-tamainuaz une ezberdinetan galdetu zaienean, emakumeek antzerako zifrak adierazi dituzte sistematikoki eta, beti ere, ordezen demografikorako mailatik gorakoak <sup>13</sup>. Bizpahiru seme-alabez osaturiko familia dugu, dudarik gabe, familia-tamainurik arruntena, hirugarren semea edo alaba gero eta gutxiagotan munduratzeko joeraz eta laugarrenak eta ondorengoak gero eta bakanagoak direla. Areago, jaiotzeen murrizketa hain nabarmena eta bat-batekoa izan denez gero, euskal bikoteek familia-tamainu horri ekitea edo halakorik osotzea erabakitzen badute, hogeita hamar urtez gorako amatasunak biderkatzeko joera nabarmenduko da datozen urteetan.

Amatasunari amaiera emateko adinik egokiena dela eta, galdeketa erantzun diotenek nahikoa gora jo dute, 37,2 urte, batz bestea, aukeratu dute emakumeek, eta 38,3 urte gizonek, eta gainera belaunaldirik gazteenek atzeratu egiten dute adin hori: 38,1 emakume gazteen iritziz eta 39,2 gizon gazteen iritziz; gauzak honela, amatasun berankorrak berriro ere onetsiak izango dira gizartean, baby boom delakoan nagusitu zen amatasuna gazteagotzeko joera irauliz, ikus eranskinetako 1.9 taula.

Adin guztietako emakumeen ugalkortasunaren jaitsiera ere argi eta garbi nabari da ugalkortasunaren indize sintetikoetan <sup>14</sup>. Gaur egungo jaiotze-tasa urriagoak ordezen demografikorako mailatik oso beherako aldiko ugalkortasuna erakusten du <sup>15</sup>, UIS 1986.ean = 1,2 seme-alaba,

<sup>13</sup> 1977 eta 1985.eko ugalkortasunari buruzko Nazio Inkestaren arabera, desiratutako batzbesteko tamainua emakume bakoitzeko 2,6 seme-alaba da; Emakunde 1991.eko inkestan 2,4 seme-alaba ateratzen.

<sup>14</sup> UISa aldi bati dagozkion adinaren arabera ugalkortasun tasa berezien batuketak da, kalkuluan hamabosturteko adin-tarteak erabili ohi direla. Indize hau oso erabilia da, aldiko ugalkortasunari buruzko informazioa nahiz emakumezkoen bata bestearen ondorengo belaunaldien joera bereziei buruzkoa biltzen baititu.

<sup>15</sup> Demografiaren ordezen-maila biztanleria egonkor baten joerazko UISari dagokio, Europako herrialdeen kasuan emakume bakoitzeko 2,1 ume jotzen duena.

nahi den familia-tamainuari inola ere ez dagokiona, 2,4 seme-alaba emakumeentzat eta 2,3 gizonentzat, oro har 2,4 seme-alaba<sup>16</sup>. Izan nahi diren seme-alaben kopuru hau, 2,4 alegia, 40 urtetako emakumeek batzbesteko munduratuak seme-alaben kopurua berdintsuak dira, eta are berdina 1986.eko Erroldaren Balidazioko Inkestaren arabera. Datu hauek 1.6 eta eranskineko 1.10 tauletan agertzen dira.

#### 1.6. TAULA. Ama-belaunaldi bakoitzeko izandako seme-alaben batzbesteko kopurua

| BELAUNALDIA | FRANTZIA | ALEMANIA | GREZIA | ITALIA | PORTUGAL | INGALATERRA | ESPAINIA | E.A.E.* |
|-------------|----------|----------|--------|--------|----------|-------------|----------|---------|
| 1901        | 2,12     | 2,12     | —      | 3,14   | —        | 1,96        | —        | 3,02    |
| 1906        | 2,20     | 2,06     | 3,52   | 2,89   | 3,52     | 1,81        | 3,07     | 2,69    |
| 1911        | 2,29     | 2,06     | —      | 2,69   | 3,44     | 1,82        | 2,84     | 2,52    |
| 1916        | 2,41     | 2,12     | —      | 2,52   | 3,23     | 2,00        | 2,65     | 2,56    |
| 1921        | 2,49     | 2,05     | —      | 2,35   | 3,00     | 2,05        | 2,55     | 2,73    |
| 1926        | 2,61     | 2,06     | 2,60   | 2,28   | 2,86     | 2,19        | 2,52     | 2,57    |
| 1931        | 2,61     | 2,20     | 2,21   | 2,30   | 2,87     | 2,33        | 2,61     | 2,67    |
| 1936        | 2,54     | 2,13     | 2,02   | 2,25   | 2,78     | 2,39        | 2,67     | 2,66    |
| 1941        | 2,37     | 1,90     | 2,01   | 2,14   | 2,53     | 2,30        | 2,56     | 2,40    |
| 1946        | 2,17     | 1,78     | 2,14   | 2,05   | 2,18     | 2,14        | 2,39     | 2,15    |
| 1951        | 2,10     | 1,65     | 2,05   | 1,86   | 2,04     | 2,02        | 2,20     | 1,56    |
| 1956        | 2,11     | —        | 1,86   | —      | 1,94     | —           | 1,94     | 0,78    |

\* E.A.E.: Eustaten datuak, EDU, 1986. Bosturteko batzbestekoak (bosturtekoaren hasiera-data belaunaldiarena da).

*Iturria:* VP Gardon, Population, 6, 1990: 962-63.

1900.etik 1945.era bitartean jaiotako emakumezkoen belaunaldien arabera seme-alaben batzbesteko kopuruak berdintsu samar iraun du, batzbesteko 2,3 eta 2,6 seme-alaba bitartean. Baby boom delakoan parte hartu zuten emakumeek, 1936.etik 1945.era bitartean jaiotako belaunalditakoak alegia, gainontzekoek baino familia-tamainu handixeagoa erakusten dute, eta datu honek zera iradokitzen digu: azken bosturtekoetan aldiko ugalkortasunean<sup>17</sup> izan diren gorabeherak jaiotzeen eta ezkontzen egutegia berandutzearen ondorio direla, batez ere, adin ugalkorretako belaunaldien batzbesteko ugalkortasunaren funtsezko murrizketa batena baino gehiago, noski. Alde honetatik, datozen bosturtekoetan ugalkortasun mailako konpentsazio bat izatea espero da, ordeztu-mailako ustezko UISetan eragin zuzena izango duten egutegiaren berandutze hauen lehengoratzak eragingo duena<sup>18</sup>.

<sup>16</sup> Emakundek 1991.ean eginiko inkesta.

<sup>17</sup> Ugalkortasunaren idize sintetikoa (UIS) jaiotzeen eta ezkontzen antolakuntzari dagokion egutegian izan daitezkeen aldaketak berehala nabaritzen dituen neurria da eta, beraz, gizarte-ekonomiazko uneen-uneen gorabeherak ere bai, horregatik, UISan gorabehera handiak agertu arren, horrek ez du esan nahi demografiaren jokabidean egiturazko aldaketak izan direnik.

<sup>18</sup> Ezkontzeko nahiz umeak munduratzeko egutegiaren berandutzearen eragina eta demografiak datozen bosturtekoetan hartu dezakeen jokabideak "Escenarios demográficos: horizonte 2016" izenburuko artikuluan aztertuta, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Sailak argitaratutako Documentos de Economía delakoan, 1990.eko iraila.

Demografia azkar egokitu da egoera ekonomiko okerretara eta egokitzapen horrekin batera familiaren nahiz ugalketaren baliogarritasunari buruzko kontzepzio berri bat agertu da. Seme-alabak aukera bat bezala hartzeko joera nagusituz doa, gauzatuz gero beste aukera batzuri uko egin beharra eskatzen duen aukera alegia, eta, horrenbestez, desiratutako familia-tamainua eta berau erdiesteko interes-mailaren artean halako desegokitze bat izan daiteke eta, horrela, lehenengo semea edo alabaren munduratzeari atzeratzeko joerak bigarren bat izateko ahalbidea eragotzi dezake.

E.A.E.aren jokabide demografikoaren bi osagai, ezkondu gabekoengandiko jaiotzeak eta bizikidetza, hain zuzen ere, bereziki aztertu behar dira, familia-ingurunean duten eragina nabarmenduz baitoa. Euskal gizartean eragin eskasa izan ohi badute ere, tankera bereziko batasun hauek azken bosturtekoetan erakusten duten goranzko joerak Europako beste herrialde batzutan bezalako bilakaera baten atarian gaudela iradokitzen du.

## EZKONTZAZ KANPOKO JAIOTZEAK

# 1.2.1

Ezkontzaz kanpoko jaiotzeak oso urriak izan ohi dira E.A.E.an. Mende honetan 1975.era bitartean izandako bilakaerari erreparatuz gero, ezkontzaz kanpoko jaiotzeen proportzioak, jaiotze guztiekiko, beheranzko joera erakusten du, 1901.eko % 4etik 60. hamarkadan % 0,5az behera jo arte. 1970.az geroztik goranzko joera hazkorra nabari da, gaur egun ezkontza kanpo jaio direnak jaiotako guztien % 7,4ra iristen direla. Gauzak honela, jaiotze-kopurua, oro har, murriztu egin bada ere, ezkondu gabekoengandik jaiotakoak ugaritu egin dira; hala ere, prozesu bi hauek egutegi ezberdinez suertatu dira eta izan duten eragina ere erabat ezberdina izan da. Ezkontzaz kanpoko jaiotze-kopurua hazkorra izan da 1985.era bitartean, harrez gero, gorabeherakor bada ere, beheranzko joeraz ageri dela, 1.7 taulan ikusten den bezala.

### 1.7. TAULA. Ezkontzaz kanpoko jaiotzeen bilakaera amaren adinaren arabera E.A.E.an

|                | 1975       | 1980       | 1985         | 1986         | 1987         | 1988         | 1989*        |
|----------------|------------|------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|
| 19tik behera   | 19,1       | 23,5       | 16,4         | 16,0         | 15,9         | 16,0         | 9,0          |
| 20-24          | 41,7       | 31,7       | 27,0         | 32,8         | 29,8         | 26,0         | 27,3         |
| 25-29          | 19,4       | 23,4       | 31,6         | 23,0         | 25,9         | 28,3         | 22,7         |
| 30-34          | 12,3       | 14,0       | 15,6         | 18,3         | 19,6         | 19,6         | 25,7         |
| 35-39          | 4,5        | 5,5        | 7,2          | 7,4          | 7,4          | 7,4          | 13,1         |
| 40tik gora     | 3,1        | 1,9        | 2,5          | 1,5          | 1,5          | 1,9          | 2,4          |
| <b>GUZTIRA</b> | <b>561</b> | <b>896</b> | <b>1.421</b> | <b>1.178</b> | <b>1.140</b> | <b>1.191</b> | <b>1.262</b> |

\* 1989.eko datuak 1971.az geroztiko belaunaldiari, 1970-66koari, 1965-61koari, 1960-56koari, 1955-51koari eta 1950.etik aurrekoari dagozkie.

*Iturria:* MNP, Eustat, hainbat urte.

- Amaren araberako jaiotze hauen banaketa ez da homogenoa. Tradizioz, nerabegaroko amatasunak, 20 urtez beherakoa, oso garrantzizkoa izan da ezkondu gabeko ama guztien artean, baina, inoiz ere ez 20-30 urtetako emakume ezkongabeengandik jaiotakoena bezain garrantzitsua. Azken hamabost urteetan zehar, ezkondu gabeko nerabeengandik jaiotakoak ezkontzaz kanpo jaiotako guztien % 16tik % 23,5era bitartean izan dira, baina 1979.era arte nabaritzen zitzaion goranzko joerak ez du iraun; aitzitik, ezarian-ezarian, gero eta eragin txikiagoa izan du 1988.eko % 16ra iritsi arte.

Azken urteotan, berriz, ezkontzaz kanpoko jaiotzeek ere gainontzeko jaiotzeen antzerako jokabideari jarraitu diote: ama gero eta adintsuagoa da, eta beraz, 25 eta 34 urte bitarteko amen-gandik jaiotakoen kopurua gero eta nabarmenagoa da talde honetan. Nolanahi ere, eta sistematikoki goranzko joera erakusten duten arren, hala jaiotakoen pisua ez da horren garrantzizkoa Europako zenbait herrialdetan ezkontzaz kanpoko jaiotzeek izandako bilakaeraren aldean, batez ere iparraldekoen erreparatuz gero, ikus 1.8 taula. E.A.E.an gaur egun ezkontzaz kanpo jaiotzen direnen tasak Alemania, Holanda eta Irlandako tasen antzerakoak dira. Hurrengo hamarkadetan ere, funtsean batasun askeen eta berauegandiko jaiotzeen goranzko eragina dela medio, ezkontzaz kanpoko jaiotzeen goranzko joerak iraun dezakeela uste da.

#### 1.8. TAULA. Ezkontzaz kanpoko jaiotze-tasak (jaiotze guztiekiko %) Europako herrialdeetan 1970-1984

|      | SUEDIA | DANIMARKA | NORVEGIA | INGALATERRA | FRANTZIA | ALEMANIA | HOLANDA | IRLANDA |
|------|--------|-----------|----------|-------------|----------|----------|---------|---------|
| 1970 | 18     | 11        | 7        | 8           | 6        | 6        | 2       | 3       |
| 1975 | 32     | 22        | 10       | 9           | 8        | 6        | 2       | 4       |
| 1980 | 40     | 33        | 15       | 12          | 11       | 7        | 4       | 5       |
| 1984 | 45     | 41        | 21       | 17          | 16*      | 9        | 7       | 8       |

\* 1983

*Iturria:* Kiernan, 1989:39.

## BIZIKIDETZA

### 1.2.2

Jaiotzeen murrizketa, ezkontzena eta ezkontzaz kanpoko jaiotzeen gehikuntza batasun askeen areagotze progresiboari lotu ohi zaizkio. Bizikidetzari buruzko aipamen estatistikoak oraintsukoak direnez gero, badirudi dauzkagun zifrek ez dutela batasun egonkor eta ez ofizialek benetan duten garrantzia erakusten. Hortaz, zenbatezko balorazioak, erabiltzekotan, kontuz erabili behar dira.

E.A.E.an, bizikide ziren bikoteen lehendabiziko zenbaketa 1986.ean agertu zen, EUSTATEk 1986.ean egin zuen demografiako eta Balidazioko Inkesta zela eta, ia hamar mila pertsonak hala bizi zirela adierazi zutenean. Euren batasuna legebidezkotu gabeko bikoteak betidanik izan badira ere, gehienak Gerrate Zibilaz geroztik jaiotako belaunaldietakoak dira. Bizikidetzari heldu dioten emakumeen kasuan, berorietako % 83 1951.az geroztik jaiotakoak dira, 35 urte edo

gutxiago zuten inkestari erantzun ziotenean, batasunaren hasieran batazbeste 23,7 urte zutela, 1.9 taula. Adostasunezko batasunen aldeko jarrera-aldaketetan adinaren eragin handia nabari da, batez ere heldutako belaunaldi gazteengan gertatzen direla.

**1.9. TAULA. E.A.E.an bizikidetzari heldu dioten emakumeen batazbesteko adina batasunaren hasiera-urtearen arabera**

| GUZTIRA | 1985 | 1984 | 1983 | 1982 | 1981 | > 1980 |
|---------|------|------|------|------|------|--------|
| 23,7    | 23,1 | 25,6 | 21,8 | 22,3 | 27,4 | 23,3   |

*Iturria:* Demografiako eta Balidazioko Inkesta, I, Eustat, 1986.

E.A.E.an aitortutako bizikidetzaren eragina, ezkontzaz kanpoko jaiotzeena bezalakoa, oso eskasa da Europako hainbat herrialdetan, iparraldekoetan batez ere, jokamolde honek duen garrantziaren aldean. Herrialde hauetan, gazteen arteko bizikidetzaren proportzio handiak, sexu-harremanei lehenago ekitearekiko onespene handiagoa ezezik, jatorrizko familiarekiko menpekotasunari utzi eta maitasunezko batasun egonkor bateratzeko gaitasun ekonomikoa eskatzen du, eta halaber, urrats hori emateko lagungarria den familiaren eta gizartearen onespenean.

Dena den, bizikidetzarako joera ez da homogenoa herrialde guztietan. Hortaz, 1.10 taulan ikusten den bezala, Suedian eta Danimarkan, 20 eta 24 urte bitarteko hamar emakumeetarik lau legeztatu gabeko batasunen bati heldu diote, proportzio oso nabarmena Britainia Handiko, Frantziako eta Holandako datuen aldean.

**1.10. TAULA. Europako herrialdeetan bizikidetzari heldu dioten emakumeak adin-tarteka, hainbat urte (ehunekotan)**

|       | 1979<br>INGALATERRA | 1981<br>FRANTZIA | 1977<br>NORVEGIA | 1982<br>HOLANDA | 1981<br>DANIMARKA | 1981<br>SUEDIA | 1986<br>E.A.E. |
|-------|---------------------|------------------|------------------|-----------------|-------------------|----------------|----------------|
| 20-24 | 5                   | 8                | 12               | 16              | 37                | 44             | 0,8            |
| 25-29 | 4                   | 5                | 5                | 10              | 23                | 31             | 1,4            |
| 30-34 | 2                   | 2                | 2                | 4               | 11                | 14             | 1,1            |

*Iturria:* Kierman, 1989:39.

Bizikidetzaren ezkontzaz aurretiko egoera gisa edo haren ordezkari batasun egonkor gisa hartzeko joera gorantz doa mendebaldeko Europan. Joera hori baieztatu egiten da bizikidetzak gazteenen eragin handiagoa duela ikustean. Austriako datuek erakusten dutenez, lehenengoz ezkontutako emakumeetarik % 44k, 1977.ean, ezkondu aurretik ere euren senarrekin bizi izanak zirela adierazi zuten. Bizikidetzari dagokionez erdi-maila batean, Holanda eta Danimarkaren artean, dagoen Mendebaldeko Alemanian, esate baterako, batasun askeak laukoiztu egin ziren 1972.etik 1982.era bitartean.

E.A.E.an, 25 urtez beherakoen artean batez ere, bizikidetza-tasak nahiko eskasak dira, eta beheko maila hori ezkondu artean jatorrizko familiarekin bizitzeko ohiturari zor zaio, gizarte-maila batzutan, ordea, ohitura hori hausten ari da ikasle gazteen joan-etorriak direla medio eta, askoz ere gutxiagotan, lan aukerak direla eta. Argi dago, bestalde, gazteek jasaten duten langabezia itzelak eta bestelako diru-iturririk ez izateak familiarekiko menpekotasuna areagotu eta luzatu egiten dutela. Norberaren "etxea" eratzeko ahalbidea hain berandu agertzeak, zuzenean ezkonzearen alde jokatzeko du, horrela familia bat eratzeko, bikotearen historia edozein izanik ere.

Adinak eragin nabarmena du bizikidetzan: 35 urtez beherako pertsonen artean gertatzen da gehien bat, eta zaharragoen artean askoz ere urriagoa da, Eskandinaviako herrialdeetan izan ezik; hortaz, Europako toki gehienetan jaiotzeak ezkontzaren barne suertatzen dira. Gizarte hauetan, bestalde, batasunaren legeztatzea familia bat eratu nahiari lotzen zaio, eta beraz, behin adin batera iritsiz gero, emakumeen kasuan batipat, bizikidetzaren eragina progresiboki murriztuz doa. E.A.E.an, emakumeei dagokien bizikidetza-portzentaia handienak 25 urtez gorakoen artean gertatzen dira, hau da, bizikidetzaren hasiera beste herrialdeetan baino beranduago suertatzen da, haietan 23,7 urtez batazbeste ekiten baitaio.

E.A.E.an bai bizikidetzak eta bai ezkontzaz kanpoko jaiotzeek duten eragina hain motela izanik, ezin esan daiteke haren gehikuntza bigarrenaren ondorioz sortu denik. Arlo honetako baliozketak aintzat harturik, badirudi, gazteek osoturiko bikoteek burujabetzerakoan aurkitzen dituzten oztopoak direla medio, batasun aske hauek, egonkorak izan arren, ez direla bizikidetzazkoak, eta jatorrizko familiarekiko menpekotasunak, etxebizitzari eta mantenuari dagokienez, "batasun bananduak" eratzeraz behartzen duela.

Egoera honexen ondorioz, halaber, ezkontzara heltzeko nahiz familia bat eratzeko ahalbideak urritu egiten dira. Europako beste herrialde batzutan fenomeno hau aztertu denean, bizikidetzarako joera handiagoak ezkontzaz kanpoko jaiotzeen gehikuntza dakarrela ikusten da. Alabaina, iparraldeko herrialdeetan gertaturikoa kontutan hartzen bada, badirudi prozesu honek ez duela funtsezko eraginik bikoteen egonkortasunean nahiz familien tamainuan, bikote ofizialen egonkortasunaren aldean.

# 2

## **EZKONTZARI BURUZKO IRITZIAK**

Lehenago aipatu diren estatistika iturrietatik datuek erakusten dutenez, Euskadiko biztanleriak ezkontzara jo ohi du. Biztanle gehienak ezkondu egiten dira edo bestela maitasunezko batasun egonkorren bati heltzen dio, umeak munduratzea erabakitzean formalizatu ohi dena.

Familiak erakunde gisa badirau ere, gaur egun eratzen diren bikoteak ezberdinak dira, eta lehengo jokabideei gutxiago jarraitzen diete. Aldaketa hauek, familiaren egituran eta barne-antolaketan ezezik, familiak gaur egun betetzen dituen zenbait gizarte-zereginetan ere antzematen dira. Familiaren barne-dinamikari dagokionez, hainbat adierazlek erakusten dute aldaketak gauzatzen ari direla, hots, jendea ezkontzera daramatzaten arrazoietatik, familia barruan sexuan oinarritutako rol bereizketa tradizionalen ahultze gero eta nabarmenagoraino.

Ondoren, ezkontzari buruzko arrazoiak, iritziak, eta itxaropenak direla eta, inkestan jasotako datuak azaltzen dira, belaunaldien arteko aldaketa garrantzitsua nolabait erakusten dutenak. Horrez gainera, labur bada ere, bizikidetasun-mota erabakitzerakoan erlijioak duen eragina ere aztertzen da.

## **EZKONTZEKO ARRAZOIAK, BIZIKIDETASUN-MOTA ETA EZKONTZAREN EGONKORTASUNA**

# 2.1

Ezkontzea familia bat eratzeko erabakiari lotu ohi zaio. Zergatik ezkontzen den jendea galde-tutakoan, erantzun dutenetako erdiek, emakumeek gizona bakoitzeko baino gutxiago, familia bat eratzeko asmoa aipatzen dute arrazoi nagusitzat, 2.1 taulan ikusi daitezkeen bezala. Bigarrenik, baina beti ere aurreko arrazoiari dagokiona baino portzentaia dexente txiagoraz, % 30 emakumeentzat eta % 27a gizonentzat, arrazoi funtzionalagoa agertzen da, hots, egoera bat legezta-tzea. Gizartean normaltzat jotzen den bidetik ez ateratzea dugu ezkontzera eramanezakeen beste arrazoi bat, baina eragin txikiagoa duena, izan ere % 12,3 emakumeek eta % 10,8 gizo-nek baino ez dute aipatzen arrazoi hori.

## 2.1. TAULA. Jendeak ezkontzeko dituen arrazoiak, sexuaren eta adinaren arabera

|                                                 | 15-29      |             | 30-44      |             | 45-59      |             | 60-70      |             | GUZTIRA      |            |
|-------------------------------------------------|------------|-------------|------------|-------------|------------|-------------|------------|-------------|--------------|------------|
|                                                 | Abs.       | %           | Abs.       | %           | Abs.       | %           | Abs.       | %           | Abs.         | %          |
| <b>EMAKUMEAK</b>                                |            |             |            |             |            |             |            |             |              |            |
| Familia bat eratzeko                            | 151        | 35,4        | 172        | 48,5        | 172        | 50,7        | 116        | 60,1        | 611          | 46,5       |
| Egoera legeztatzeko                             | 179        | 41,9        | 120        | 33,8        | 77         | 22,7        | 22         | 11,4        | 398          | 30,3       |
| Ohizkoa delako                                  | 48         | 11,2        | 35         | 9,9         | 47         | 13,9        | 31         | 16,1        | 161          | 12,3       |
| Seguritate ekonomikoa                           | 9          | 2,1         | 7          | 2           | 8          | 2,4         | 2          | 1           | 26           | 2          |
| Emakumeak/gizonak ez du ezkondu gabe egon behar | 1          | 0,2         | 1          | 0,3         | 2          | 0,6         | 1          | 0,5         | 5            | 0,4        |
| Bestelako arrazoiak                             | 30         | 7           | 17         | 4,8         | 16         | 4,7         | 11         | 5,7         | 74           | 5,6        |
| Ez d./Ez du er.                                 | 9          | 2,1         | 3          | 0,8         | 17         | 5,-         | 10         | 5,2         | 39           | 3          |
| <b>GUZTIRA</b>                                  | <b>427</b> | <b>32,5</b> | <b>355</b> | <b>27</b>   | <b>339</b> | <b>25,8</b> | <b>193</b> | <b>14,7</b> | <b>1.314</b> | <b>100</b> |
| <b>GIZONAK</b>                                  |            |             |            |             |            |             |            |             |              |            |
| Familia bat eratzeko                            | 76         | 43,4        | 48         | 45,7        | 45         | 60          | 40         | 66,7        | 209          | 50,4       |
| Egoera legeztatzeko                             | 55         | 31,4        | 39         | 37,1        | 12         | 16          | 9          | 15          | 115          | 27,7       |
| Ohizkoa delako                                  | 21         | 12          | 10         | 9,5         | 9          | 12          | 5          | 8,3         | 45           | 10,8       |
| Seguritate ekonomikoa                           | 7          | 4           | 1          | 1           | 1          | 1,3         | —          | —           | 9            | 2,2        |
| Emakumeak/gizonak ez du ezkondu gabe egon behar | 2          | 1,1         | —          | —           | —          | —           | 1          | 1,7         | 3            | 0,7        |
| Bestelako arrazoiak                             | 11         | 6,3         | 6          | 5,7         | 3          | 4           | 4          | 6,7         | 24           | 5,8        |
| Ez d./Ez du er.                                 | 3          | 1,7         | 1          | 1           | 5          | 6,7         | 1          | 1,7         | 10           | 2,4        |
| <b>GUZTIRA</b>                                  | <b>175</b> | <b>42,2</b> | <b>105</b> | <b>25,3</b> | <b>75</b>  | <b>18,1</b> | <b>60</b>  | <b>14,5</b> | <b>415</b>   | <b>100</b> |

*Iturria:* Emakunderen 1991.eko inkesta.

Gehiengoaren ustez, ondorengoak munduratzeko egoerarik egokiena gurasoak ezkondu eta egoitean datza. Seme-alabek familia erakundea sendotu egiten dute eta, era berean, senideen eta belaunaldien arteko harremanen suspengarri dira, eta prozesu hau nabarmendu egiten da delako batasuna ofizialki legeztatzen denean.

Sexuaren eta adinaren arabera iritziak ez dira oso ezberdinak, hala ere, zenbait joera somatzen dira, adinaren arabera batipat. Familia bat eratzeko asmoz ezkontzearen aldekoak, ugariagoak dira 45 urtez gorakoen artean, gizonen kasuan batez ere. Beste alde batetik, ezkontza lege-kontu hutsa dela esaten dutenen artean gazteak dira nagusi eta, kasu honetan, joera honen aldekoen artean emakumeak gizonak baino gehixeago dira. Gazteek, nolabait, erlatibizatu egiten dute ezkontzari atxeki ohi zaizkion ondoreak, hots, erlazio batekiko erantzukizun handiagoa eskatzen duela edo bikotea batzen duen lokarriaren sendotzea dakarrela.

Noizbait ezkondu direnek adierazten dituzten arrazoiak ezaguturik, errazagoa da ezkontzera dararamaten arrazoiak jorratzea, 2.2. taulan agertzen direnak alegia. Erabaki hau hartzeko gakoak gizarte-arau edo jokabide jakin batetik ez desbideratzea dela dirudi, hots, elkar maite duten bi pertsonen "normalean" egiten dutena egitea. Inkestari erantzun dioten noizbait ezkonduetako gizon eta emakume gehienek, ia % 80, arrazoi hori aipatzen dute, adinaren arabera ezberdin-

tasun oso gutxi agertzen dela. Bigarren tokian, % 26tik % 28ra bitarteko portzentaiez, familia bat eratzeke arrazoiak agertzen da. Gainontzeko aukerak eragin eskasa dute <sup>19</sup>.

## 2.2. TAULA. Ezkontzerako arrazoiak (noizbait ezkontutakoak)

|                                    | 15-29     |            | 30-44      |            | 45-59      |            | 60-70      |            | GUZTIRA    |            |
|------------------------------------|-----------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|
|                                    | Abs.      | %          | Abs.       | %          | Abs.       | %          | Abs.       | %          | Abs.       | %          |
| <b>EMAKUMEAK</b>                   |           |            |            |            |            |            |            |            |            |            |
| Normalena zen, maita-<br>sunagatik | 39        | 76,5       | 250        | 77,9       | 257        | 79,8       | 142        | 78,9       | 688        | 78,7       |
| Elkarrekin bizi ahal iza-<br>teko  | 2         | 3,9        | 18         | 5,6        | 12         | 3,7        | 4          | 2,2        | 37         | 4,2        |
| Gurasoen etxetik ate-<br>ratzeko   | 1         | 2,0        | 6          | 1,9        | 3          | 0,9        | 1          | 0,5        | 11         | 1,2        |
| Haurdun izateagatik                | 7         | 13,7       | 16         | 5          | 4          | 1,2        | 1          | 0,5        | 30         | 3,4        |
| Erlijio eraginez                   | —         | —          | 5          | 1,6        | 13         | 4,0        | 13         | 7,2        | 30         | 3,4        |
| Familia bat eratu nahi<br>nuelako  | 9         | 17,6       | 86         | 26,8       | 91         | 28,3       | 48         | 26,7       | 233        | 26,6       |
| Bestelakoak                        | 1         | 2          | 6          | 1,9        | 1          | 0,3        | 1          | 0,5        | 9          | 1,0        |
| Ez d./Ez du er.                    | 1         | 2          | 1          | 0,3        | 5          | 1,6        | 4          | 2,2        | 11         | 1,2        |
| <b>GUZTIRA</b>                     | <b>51</b> | <b>100</b> | <b>321</b> | <b>100</b> | <b>322</b> | <b>100</b> | <b>180</b> | <b>100</b> | <b>874</b> | <b>100</b> |
| <b>GIZONAK</b>                     |           |            |            |            |            |            |            |            |            |            |
| Normalena zen, maita-<br>sunagatik | 7         | 53,8       | 63         | 79,7       | 52         | 77,6       | 48         | 85,7       | 170        | 79,1       |
| Elkarrekin bizi ahal iza-<br>teko  | 1         | 7,7        | 1          | 1,3        | 1          | 1,5        | 3          | 5,3        | 6          | 2,8        |
| Gurasoen etxetik ate-<br>ratzeko   | —         | —          | —          | —          | 2          | 3,0        | 3          | 5,3        | 4          | 1,9        |
| Haurdun izateagatik                | —         | —          | 3          | 3,8        | —          | —          | —          | —          | 3          | 1,3        |
| Erljioaren eraginez                | —         | —          | 3          | 3,8        | 4          | 6,0        | 1          | 1,8        | 8          | 3,7        |
| Familia bat eratu nahi<br>nuelako  | 5         | 38,5       | 22         | 27,8       | 21         | 31,3       | 11         | 19,6       | 60         | 27,9       |
| Bestelakoak                        | 1         | 7,7        | —          | —          | —          | —          | —          | —          | 1          | 0,5        |
| Ez d./Ez du er.                    | —         | —          | —          | —          | 2          | 3,0        | —          | —          | 2          | 0,9        |
| <b>GUZTIRA</b>                     | <b>13</b> | <b>100</b> | <b>79</b>  | <b>100</b> | <b>67</b>  | <b>100</b> | <b>56</b>  | <b>100</b> | <b>215</b> | <b>100</b> |

*Iturria:* Emakunderen 1991.eko inkesta.

<sup>19</sup> Erantzun hauen ostean arazo bat dago, ezkondu aurretiko haurdunaldiari dagokiona, alegia. Lehenengoz ezkon-  
tzen diren lau emakumetarik bat, batazbeste, haurdun ezkontzen diren arren, inkestari erantzutean oso gutxi aipatu  
zuten arrazoi hau: ezkontutako emakumeen %3,4k eta gizonen %1,3k baino ez. Nolanahi ere, proportzio hau na-  
barmenki gehitzen da emakume gazteen artean (ikus 2.2 taula). Baliteke ezkontzeko asmoa duen bikote egonkor  
batek ustekabeko haurdunaldia ezkontzeko arrazoi nagusitzat ez hartzeko joera izatea.  
Ezkondu aurretiko haurdunaldiaren eragina erabat aldatzen da adinaren arabera eta oso azkar gehitzen ari da  
E.A.E.an. EUSTATen 1986ko DBIren emaitzen arabera, haurdun ezkontzen diren emakumeen proportzioa emaku-  
meen adina jaitsi ahala igotzen da. Horrela, 1956-60ean jaiotako emakume ezkonduen belaunaldietako %24, 1961-  
65ean jaiotako %41,6 eta 1965-70ean jaiotako %43 haurdun ezkondu ziren. Aipatutako taulan ere joera ber-  
bera ikusi daiteke.

Ezkontzara daramaten arrazoiez, besterik gabe, galdetzen denean, "gizarte-araua" delakoaren eragina ez da arrazoi nagusienetakotzat hartzen, aitzitik, hausnarketa sakona eskatzen duen eta familia bat eratzeraz zuzenduta dagoen erabaki dela uste da. Galdera hau ezkontzei egiten zaienean somatzen da gizarte-jokabidearen eragina: behin adin batera iritsiz gero, normalena ezkontzea eta familia bat eratzea da, bestelako planteamenduak aintzat hartu gabe.

Bizikidetasunari dagokionez, eranskinen II.1 taulan azaltzen dena ikusirik, inkestari erantzun diotenetatik erdia baino gehiago elizaren bidez ezkontzearen alde agertzen dira, %67 emakume eta %61 gizon, hain zuzen. Ondoren, ezkontze gabeko bikotea osatzaren aldekoak eta ezkontza zibila hobesten dutenak ageri zaizkigu portzentaia berdintsuz, emakumeen artean batez ere, %11 eta %13az hain zuzen. Gizonen, aldiz, ezkontze gabeko bikotea osatzaren aldeko joera argiagoa erakusten dute, %17, ezkontza zibilaren aldeko %12,5 agertzen direla.

Adina delako aldagaia kontutan harturik, bi jarrera nabarmentzen dira emakumeentzat zein gizonentzat. Batetik, zenbat eta urte gehiago izan, orduan eta gehiago nabarmentzen da elizaren bidez ezkontzeko aukera. Bestetik, adina jaitsi ahala, ezkontze gabeko bikotean bizi izateko erabakiaren aldekoak ugaltzen direla, nahiz eta gutxiak izan nolanahi ere. Hots, nagusiek, oro har, ohizko jokabideari jarraitzearen alde agertzen diren bitartean, gazteen artean konbentzionalismoak gaintzeko nolabaiteko nahia somatu daiteke.

Bizikidetasun-mota erabakitzerakoan egoera zibilak duen eragina neurtzea ere garrantzizkoa dela iruditu zaigu, nahiz eta adinaren arabera erabat aldatzen den aldagaia izan, eranskinen II.2 taula. Elizaren bidez ezkontzeko aukeraren alde dauden artean ezkontzeak eta alargunak nabarmentzen dira, hortaz, beren erabakiekin ados eta pozik daudela ematen du. Aitzitik, ezkontze gabeko gehienak ere aukera horren alde agertu arren, bikotean ezkontzeke bizi nahiko luketenak ere askotxo dira, %24 emakume eta %30 gizon, hain zuzen. Era berean, ezkontza zibilaren aldekoek ere garrantzizko portzentaia dagokie talde honetan.

Bizikidetasun-motari buruzko iritzia direla eta, ez da ezberdintasun nabarmenik somatzen sexuen artean. Nolanahi ere, bizikidetasun-mota berriak hobesten dutenak gizatalde jakin batzuetan ageri dira. Lehenago ere aipatu den bezala, adina da aldagaririk erabakiorrena, belaunaldi-aldaketari lotuta baitago: belaunaldirik gazteenetako ezkontzeak, 40 urtez beherako adin-tarteetakoak batez ere. Emakume eta gizon gazteen belaunaldiak dira batasun askeen eta ezkontza zibilaren aldekoenak, %25 eta %15 hurrenez hurren, eranskinen II.3. taulan agertzen den moduan. Gauzak honela, bizikidetzarako joera gorantz joango litzateke etorkizunean. Hau horrela izanik ere, batasun ofizialak hobesten dituzten ezkontze gabeko emakumeak gizonak baino gehiago dira, eta hori familiarekiko, familia harremanekiko eta abarrekiko jarrera tradizionalago baten adierazgarri da.

Inkestaturiko pertsonen euren bizikidetasun-mota atsegin zaien ala ez jakiteko adierazle bat egoera zibila aldatzeko nahia izan daiteke. Egoera zibila aldatzeko nahirik ez daukatenei euren bizimodua atsegin zaiela pentsa daiteke. 2.3 taulan agertzen denez, inkestari erantzun dioten gehiengo handi batek ez dute egungo egoera aldatu nahi, bereziki ezkontzeak. Ezkontze gabeko artean bada egoera aldatu nahiko lukeen talde bat, hots, ezkontze nahiko luketenak, %22 emakume eta %18 gizon, hain zuzen.

### 2.3. TAULA. Egoera zibila aldatu nahia, sexuaren eta egoera zibilaren arabera

|                 | EZKONGABEA |             | EZKONDUA   |             | ALARGUNA  |            | DIBORTZIATUA |            | GUZTIRA      |            |
|-----------------|------------|-------------|------------|-------------|-----------|------------|--------------|------------|--------------|------------|
|                 | Abs.       | %           | Abs.       | %           | Abs.      | %          | Abs.         | %          | Abs.         | %          |
| EMAKUMEAK       |            |             |            |             |           |            |              |            |              |            |
| Bai             | 96         | 21,8        | 42         | 5,3         | 18        | 30,5       | 9            | 39,1       | 165          | 12,6       |
| Ez              | 317        | 72          | 743        | 93,8        | 39        | 66,1       | 12           | 52,2       | 1.111        | 84,6       |
| Ez d./Ez du er. | 27         | 6,1         | 7          | 0,9         | 2         | 3,4        | 2            | 8,7        | 38           | 2,9        |
| <b>GUZTIRA</b>  | <b>440</b> | <b>33,5</b> | <b>792</b> | <b>60,3</b> | <b>59</b> | <b>4,5</b> | <b>23</b>    | <b>1,8</b> | <b>1.314</b> | <b>100</b> |
| GIZONAK         |            |             |            |             |           |            |              |            |              |            |
| Bai             | 36         | 18          | 2          | 1           | —         | —          | 1            | 33,3       | 39           | 9,4        |
| Ez              | 152        | 76          | 200        | 97,6        | 6         | 85,7       | 2            | 66,7       | 360          | 86,7       |
| Ez d./ez du er. | 12         | 6           | 3          | 1,5         | 1         | 14,3       | —            | —          | 16           | 3,9        |
| <b>GUZTIRA</b>  | <b>200</b> | <b>48,2</b> | <b>205</b> | <b>49,4</b> | <b>7</b>  | <b>1,7</b> | <b>3</b>     | <b>0,7</b> | <b>415</b>   | <b>100</b> |

*Iturria:* Emakunderen 1991.eko inkesta.

Ezkongabeen artean adina delako aldagaia kontutan harturik <sup>20</sup>, 30etik 40era bitarteko emakumeek egoera zibila aldatzeko nahi nabarmenagoa dutela ikusten da, 45 urtez gorakoek, aldiz, euren egoeraz konformatzen dira, eranskineko II.4 taulan agertzen den bezala. Era berean, adina igo ahala erantzun-portzentaia jaitsi egiten dela antzeman daiteke. Gizonen kasuan, berriz, aldatzeko nahia 30 eta 44 urte bitartekoengan somatzen da gehien bat.

Batasunen sekularizazioak nahiz bikote-harremanekiko onespren gero eta zabalagoak ez dute aldaketarik ekarri, oraingoz bederen, bikote harremanean izaten diren igurikapenei dagokienez. Bai gizonek eta bai emakumeek, funtsean, euren ezkontzak zein batasunak monogamikoak eta iraunkorrak izan daitezen nahi dute. Bikote harremanei buruzko ikuspegi zehatz eta hertsia da nagusi, eta jokabide horretatik ez bata ez bestea ez ateratzea espero izaten da. Bestearengana leialtasuna funtsezkotzat jotzen da bikotearen batasunak iraungo badu, eta horrenbestez, ezkontzaren oinarritzko baloretzat hartzen da.

Desleialtasunaz galdetzean, onartuko zen ala ez alegia, erantzunik gehienak jokabide horren aurkakoak dira. Eranskineko II.5 taulan agertzen denez, erantzun dutenetako hiru laurdenek ez lukete bikote-kideak beste pertsona batekin sexu-harremanak izatea onetsiko, emakumezkoen gaitzespen-maila handixeagoa dela. Desleialtasunak bikotean izan zezakeen garrantzia hark sortaraziko lituzkeen ondoreek erakusten dizkigute.

Inkestaren arabera, konponbiderako joeraren alde agertzen diren pertsonak erabaki latza, bikotea haustea adibidez, hartuko luketenak baino gehixeago dira. Lehenengo taldean, egoera hori berriro ez gertatzeko ahaleginak egingo zituztela adierazten dutenak ere sartzen dira, emakumeen %42,4a eta gizonen %38,8a, eta bigarrenean, portzentaia berdintsuaz ageri zaizkigu sexu bietakoak, %34az hain zuzen. Egoera zibilaren arabera, ezkongabeen eta ezkontutako

<sup>20</sup> Zenbait adin-tartetan, 30 urtez gora bereziki, inkestari erantzun diotenak ez dira asko izan, eta beraz, lagin-erakuntzak ere gehitu egiten direla esan behar da.

jarrera, berdin emakumeena zein gizonena, ez da alargunena, bananduena eta dibortziatuena bezain hauskorra, azken hauek zirt edo zart egitearen aldekoagoak dira, alabaina, talde horietakoak gutxi direnez gero, ondorioztapen hauek kontuz erabili behar dira.

Kasu honetan, inkestatuak izan direnen iritziak oso gutxi aldatzen dira adinaren arabera, eranskineko II.6 taulan ikus daitekeen bezala.

Seme-alabek, ezkontza ezezik, bestelako bizikidetasun-mota batzuri heltzea onesten den ala ez azterturik, hautabide horiekiko gizarte-jasankortasuna neurtu daiteke. Hainbat galderaren bitartez, seme-alaben ustezko jokabide jakin batzuri buruzko iritziak eskatu dira, hots, haien burujabetasunari, ezkondu aurretiko bizikidetzari, ezkontzeko asmorik gabeko bizikidetasunari eta, azkenik, sexu berekoen arteko harremanei eta komuna batean bizi izateari helduko baliote, zer nolako jarrera hartuko luketen gurasoek, eranskineko II.7 taula.

Planteaturiko hautabideen artean, seme-alabak beren kabuz, burujabetasunez, bizi izatekoa da onespenik handiena jaso duena: emakumeetarik %82,3k eta gizonetarik %85,1ek horrela erantzun dute. Seme-alaben emantzipazioarekiko adostasun hau, aldiz, ez da neurri berekoa ama diren emakumeen kasuan eta seme-alabarik ez dituztenen artean. Burujabetasunaren aldeko iritzia dutenak gehienak badira ere, desadostasuna nabarmenagoa da seme-alabak dituztenen artean, %19,6, seme-alabarik ez dutenen artean baino, %3.

Bai gizonak eta bai emakumeak ezkontzaren antzerako hautabideak onartzeko prest agertzen dira, hau da, bikoteko bizikidetasuna onetsi egiten dute eta are onargarriago deritzote ezkondu aurretiko urrats gisa planteatzen bada. Lau emakumetarik hiruk onargarria deritzote euren semea edo alaba ezkondu aurretik bere bikote-kidearekin bizi izateari, eta gizonen artean %79,3 dira hautabide hori onartzen dutenak. Kasu honetan ere, seme-alabarik ez duten emakumeen nahiz gizonen artean portzentaia handiagoak lortzen ditu hautabide honek, amen eta aiten artean, aldiz, aurkako iritzia ere nabarmentzen dela. Seme-alabak dituzten lau emakumeetarik batek baino gehixeagok gaitzetsi egiten dute bizikidetzaren ezkondu aurretiko urrats gisa planteatu arren, hamarretik lau proportzioraino iristen direla ezkontzeko asmorik ez denean. Seme-alabak dituzten gizonen artean ere proportzio berdintsuak ageri dira.

Horren konbentzionalak ez diren bizikidetasun-motak, komuna batekoa edo bikote homosexuala adibidez, errefusatu egiten dira; halakorik onartzen ez dutenak hiru emakumetarik ia bi dira lehenengo kasuan eta %50etik gora bigarren hautabideari dagokionez. Gizonen artean, %50 baino gehiagok ez dute ez bata ez bestea onartzen.

Laburbilduz, ezkontzaz bestelako bizimoduekiko jarrera zabalagoxeagoa nabari dela esan daiteke, bikoteaz gaindi, nor bere kabuz bizi izatearekiko onespen orokorra nabarmentzen dela, gizarte aurreratuenen ezaugarri den indibidualizaziorako joera gero eta indartsuagoaren erakusgarri dena. Hala ere, ezkontzari eta familiari buruzko ohizko pentsamoldeek tinko diraute, baita gazteen artean ere.

Erljioak familiarengan izan ohi duen eragina zimelduz joan bada ere, katolizismoaren funtsezko sineskizunak oso hedaturik daude biztanlerik gehienek artean eta, ezbairik gabe, euskal gizartearen oinarritzko sineskizunen funtsezko osagai ditugu. Euskadiko biztanlerik gehienek fededun eta katolikotzat dute beren burua, nahiz eta katoliko izate hori, sarritan, Eliza Katolikoarekiko, eta are gutxiago eliz hierarkiarekiko adostasun osoari, begiruneari eta haren esana betetzeari loturik ez egon.

Erljio-errituak eta gizarte-erritu handiak banaezinak dira, oso zaila da haien arteko mugari antzematen edo jendeak zergatik burutzen dituen batzuk ala besteak jakiten. "El matrimonio y la muerte siguen siendo también transiciones sociales que la mayor parte de la población prefiere situar en un contexto religioso católico" <sup>21</sup>.

Egungo gizartean gero eta nabarmenagoa den fedearen eta erljio-jardueraren arteko bereizketa honen ildotik ulertu daitezke inkestan ematen diren erljio-ezkontzari eusteko arrazoiak. Eliza Katolikoaren bitartez ezkontzen direnak, sarritan ez dira halako uste oso batengatik edo katoliko izatearen ondoriozko jokabideari jarraitzearen ezkontzen, gizarte-ohitura betetzearen baizik.

Eranskinen II.8 taulan bildutako erantzun-multzotik ezkontzari buruzko ikuspegi laikoagoari lotzen zaienak nagusitzen dira. Aurrena, eta sexua kontutan hartzeke, erantzun dutenetarik erdiek gizarte-ohiturari lotzen diote erljio-ezkontza. Bigarrenik, bikote askok euren familiek bultzaturik heltzen diotela erljio-ezkontzari adierazten da, hots, norberaren ustearekin bat datorren erabakia izan beharrean inposizio bat izan ohi dela. Hala mintzatzen dira erantzun dutenetako laurik bat, gizonak zein emakumeak. Azkenik, emakumeengan portzentaia handixeagoa nabari dela, sineskizunak aipatzen dira Elizaren bidez ezkontzeko arrazoi nagusitzat.

Erljio-ezkontza aukeratzeko arrazoietan ia ez dago ezberdintasunik sexu bien artean. Eranskinen II.9 taulan agertzen den bezala, adinak ere ez du eragin handirik iritzi ezberdinak sortzerakoan. Aldagai honen arabera, bi argudiotan baino ez dira somatzen halako ezberdintasun txiki batzuk. Lehenengoa, familiarren presioei dagokie, 15 eta 29 urte bitarteko gazteek %5eko portzentaiaz aldentzen baitira batazbestekotik. Bigarrena, erljio-ezkontzara daraman arrazoi nagusitzat sinezkizunak aipatzen dutena, adintsuenak nabarmentzen direla, 60 urtez gorakoak baitipat, batazbestekotik lau puntuz gora agertzen direla.

Erljio-ezkontzaren ikuspegi sekular hau, bestalde, erritu zibilaren bidezko ezkontzak gero eta ugariagoak izatean ere antzematen da. 1975.ean, ezkontza zibilak ezkontza guztien %1era ere ez ziren iristen, 1989.ean, berriz, %23tik gora daude, 2.4 taulan erakusten denez.

<sup>21</sup> Durán, M.ª Angeles eta beste batzuk. "De puertas adentro. Kultura Ministraritzak. Instituto de la Mujer. Serie Estudios, 12. Madril, 1988. 125. orr.

## 2.4. TAULA. Ezkontzen bilakaera errituen arabera 1976.etik E.A.E.an

|      | GUZTIRA  | ERLIJIO BIDEZ |      | ZIBILAK |      |
|------|----------|---------------|------|---------|------|
|      | Ezkontza | Abs.          | %    | Abs.    | %    |
| 1976 | 17.170   | 17.065        | 99,4 | 105     | 0,6  |
| 1981 | 10.810   | 9.814         | 90,8 | 996     | 9,2  |
| 1986 | 10.114   | 8.031         | 79,4 | 2.083   | 20,6 |
| 1988 | 10.134   | 7.803         | 77   | 2.331   | 23   |
| 1989 | 10.309   | 7.960         | 77,2 | 2.349   | 22,8 |

*Iturria:* MNP, INE eta Eustat.

Inkestari erantzun diotenetarik gehienek Elizaren bidezko ezkontza aukeratu dute bizikidetasun-motaz galdetzerakoan, dena den, lehenago aipatu den bezala, adinaren arabera zenbait iritzia zertxobait aldatzen da bestelako hautabideei dagokienez. Belaunaldirik gazteenak erlijio-ezkontza zokoratu eta beste bizikidetasun-mota batzuri heltzeko joeraz ageri dira. Inkestari erantzun dioten erlijio-iritziaaren arabera, eranskineko II.10 taulan agertzen dena, ez diharduten katolikoak direla diotenetarik gehienek erlijio-ezkontza aukeratu dute, gizonek batez ere, %60ra iristen direla. Bigarren hautabide gisa, emakumeen artean gehiago, %20,6az, ezkondu gabe bikotean bizi izateko aukera hobetsi dute. Ondoren, ezkontza zibila ageri da, emakumeen artean %17,1eko harreraz eta gizonen artean %13,5ekoaz.

3

**EMAKUMEAK  
ETA  
UGALKETA**

Amatasuna nahiz aitatasuna pertsonen bizitzaren barruko katemaila logiko eta berezkoztat jo izan da historikoki. Emakumeen kasuan bereziki, izan ere, emakumeak ama izateari dagokion betekizunaren ikuspegitik hezituak eta gizartean baloratuak izan baitira, eta horrenbestez, hura ez betetzeak hala huts egin izanaren sentimena nola gizarte-gaitzespena sortarazi izan ditu.

Gizarterik aurreratuenetan balore, jarrera eta jokabide berriak onartu eta bere egin dituzte, berrietako zenbait ugalketari zuzenean lotzen zaizkionak. Gero eta ohizkoagoa da ugalketa interes ideologikoak, maitasunezkoak eta kulturalak aintzat harturik mugatzea, prozesu hau taldearen biziraupenerako beharrezkoa izalatzaren duen instintuzko eta berezko eginkizun bati besterik gabe lotzeko pentsamoldea zaharkiturik gelditu dela. Hortaz, familiaren eraketa nahiari eta borondateari jarraitzen dien prozesutzat hartzen da, abantailak eta akatsak neurtuz, seme-alabak munduratzeko erabakia arrazoibidez hartzen deneko prozesua alegia.

Europako mendebaldeko herrialdeetan azken hamarkadetan nabari izan den jaiotze-kopuruaren beherakada handia, batera diharduten zenbait faktoreren elkarloturaren ondorio da, hots, kultura, ekonomia, soziologia eta abarrei dagozkien faktoreena. Herrialde hauek industrializazio, hirigintza, berrikuntza, sekularizazio eta abarretan aintzindari izan ziren bezala, iraganaldi demografikoan ere (jaiotze eta hilkortasun-tasa handiak izatetik jaiotze eta hilkortasun-tasa txikiak izatera) aintzindari gertatu dira.

Gai hau jorratu duten ikerlan ugarietatik, gertaera honi buruzko ikuspegi orokorrari eutsi diotenei, hau da, kausa-ondorea tankerako erlazio zuzenak alde aurretik ezartzen ez dituztenek ahalbidetzen dute prozesuan parte hartzen duten elementuen ezagupiderik argiena.

Demografiaren ikuspegitik, ezkontza-tasa, ezkontzeko adina, familia-eredu berrien sorrera eta antzerako adierazleen azterketa izan daiteke interesgarriena. Ekonomiaren aldetik, berriz, ekonomi abagadune jakin batzuek zenbaterainoko eragina duten aldagai demografikoetan mugatu nahi da. Gizarte-kulturazko ikuspuntutik, balore-aldaketei heltzen zaio batipat, eta zenbait alderi aztertzen dira, hala nola, ezkontzari buruzko balorazio berria, bizimodu ezberdinen balorazioa eta emakumearen zereginetan gertatutako aldaketak: lan merkaturatze gero eta handiagoa, ezkontzaz kanpo aurreratzeko hautabide berriak, norberaren diru-sarrera oparagoak izateko aukera, etab.

Argudio-multzo honetatik, emakumearen zereginari dagozkion aldaketek duten garrantzia nabarmentzen da jaiotze-kopuruaren beherakada esplikatzerakoan. Hain zuzen ere, emakumearen lan merkaturatzea aipatu ohi da egoera hau sortarazi duten funtsezko elementuetaz hitz egitean. Gai hau kapitulu honen bigarren zatian jorratuko da. Aurrenekoan, inkestari erantzun diotenei gurasotasunari, jaiotzearen kontrolari eta abarrei buruz uste dutena aztertzen da, belaualdi berrien pentsamolde-aldaketa erakusten duten iritziak alegia.

## UGALKETAREKIKO JARRERAK, JAIOTZE- KONTROLA ETA SEXUALITATEA

# 3.1

Egin den inkestan gizonak eta emakumeak zernolako arrazoiak dituzten seme-alabak munduratzeko galdetu da. Talde biek aipatzen duten arrazoi nagusia, % 36 inguru, ugalketa ezkontzaren helburutzat hartzea da, ezkontzeko arrazoiak galdetzean adierazitakoarekin bat datorren argudioa. Bigarren eta hirugarren tokian, eta kasu honetan ere sexu biak berdintsu agertzen direla, seme-alabak umeenganako zaletasuna izateagatik eta, gainera, ugalketa gizakiari datxekion "berezko zerbait" delako munduratzeko direla adierazten dutenak daude, 3.1 taula.

**3.1. TAULA.** Seme-alabak munduratzeko arrazoiak sexuaren arabera

|                            | EMAKUMEAK    |           | GIZONAK    |           | GUZTIRA      |            |
|----------------------------|--------------|-----------|------------|-----------|--------------|------------|
|                            | Abs.         | %         | Abs.       | %         | Abs.         | %          |
| Berezkoa da                | 321          | 24,4      | 115        | 27,7      | 436          | 25,2       |
| Emakumeen izatearen funtsa | 38           | 2,9       | 10         | 2,4       | 48           | 2,8        |
| Ezkontzaren helburua       | 479          | 36,5      | 151        | 36,4      | 630          | 36,4       |
| Urreak atsegin zaizkit     | 374          | 28,5      | 107        | 25,8      | 481          | 27,8       |
| Bestelakoak                | 65           | 4,9       | 11         | 2,7       | 76           | 4,4        |
| Ez d./Ez du er.            | 37           | 2,8       | 21         | 5,1       | 58           | 3,4        |
| <b>GUZTIRA</b>             | <b>1.314</b> | <b>76</b> | <b>415</b> | <b>24</b> | <b>1.729</b> | <b>100</b> |

*Iturria:* Emakunderen 1991.eko inkesta.

Adinaren arabera, ugalketarako arrazoi ezberdinak nabarmentzen dira. eranskinen III.1. taulako datuetan ikusten denez, alde batetik, 45 urtez gorako pertsonen artean, adintsuenen artean batez ere, ugalketa pertsonen bizitzako berezko prozesuaren ondorioz hartzen duen argudioa eta ezkontzaren helburu izateari dagokiona gailentzen dira. 60 urte baino gehiago dutenentzat, % 35,2k lehenengo arrazoiak aipatzen dute eta, ia % 42k, bigarrena; inkestatu guztiak aintzat harturik, aldiz, erantzun horiek % 25,2ra eta % 36,4ra iristen dira hurrenez hurren. Bigarren argudioak, ezkontzaren helburua izateari buruzkoa, 45 eta 49 urte bitarteko artean ere arrakasta du, adin horietako hamar pertsonatarik lau arrazoi hori aipatzen baitute.

Beste alde batetik, 45 urtez beherakoak daude, bereziki gazteenak, hauen iritziz, arrazoi nagusia umeenganako zaletasun edo joera berezia da, horixe adierazten dute, % 39a baino gehixeagok, erantzun honek datu orokorretan erdiesten duen portzentaia lau puntuz gainditzen dela.

Zenbateratzeko garrantzia ezezik, kalitatezkoa batez ere duten datu hauek sakonago aztertutik, belaunaldien arteko ezberdintasun argi bat antzematen da ezkontza eta ugalketa elkarlotzeari dagokionez. Gazteenek aski argi bereizten dituzte bata eta bestea, belaunaldirik helduenek, ordea, ezkontzaren xedea eta haren izatearen funtsa ugalketa dela uste dute oraindik. Inkestatutako artean, beraz, ezkontza ugalketari lotzen zaio, baina lotura horren zenbaterainoan ezberdintasuna nabari da, ezberdintasun honek erakusten digu, hain zuzen ere, azken urteotan suertatu den belaunaldien arteko aldaketa, dagoeneko kontzeptu bi hauek ez direla halabeha-

rraz lotutakoak bailiran hartzen. Familiari buruzko hainbat azterlanek<sup>22</sup> erakusten dutenaren arabera, euskal biztanleriak adierazitako iritzi hau bat dator azken urteotan Estatuko gainontzeko biztanleriak adierazitakoarekin, izan ere, azterlan horietan argi eta garbi ikusten baita 35 urtez beherako biztanleen artean oso gutxi direla ezkontza ugalketarekin identifikatzen dutenak, 60 urtez gorako gizon zein emakumeetarik gehienek identifikazio horri eusten diotelarik.

Adinaren araberrako joerak, lehenago aipatutakoak, ezer gutxi aldatzen dira, aldagai horri sexua eransten badiogu, izan ere, kasu honetan sexua delako aldagaiak ezberdintasun gutxi sortarazten baititu, eranskinetako III.2 taulan agertzen den moduan.

Seme-alaben kopuruarekiko kontrola eta plangintza erabat zabaldurik daude biztanleen artean, eta hori oso argi isladatzen da E.A.E.an erregistraturiko jaiotze eta ugalkortasun-tasa urrietan, aurreko kapituluetan aztertu direnak. Hainbat antisorgailu ezagutu eta erabiltzeko aukerak jaiotzeen kontrola arindu du eta, praktikan, ezkontza eta ugalketa bereiztea ahalbidetzen du.

Ondorengo gutxi izatea, oro har, bizi-kalitate hobetoagoari lotzen zaio. Inkestari erantzun dioten hamarretik seik, emakumeak zein gizonak berdin, seme-alaba gutxi izanik, bi baino gehiago ez behinik behin, arreta osotuagoa eta gaur egungo gizartearen eskakizunei areago egokitzen zaiena bermatu dakizkiekeela uste du. Hemen sartuko lirateke bai gauzazko arazoak eta bai kualitatezkoak ere, pedagogiari lotuak alegia. Ekonomiaren aldetik, berriz, seme-alabak kostu bat bezala hartzen dira eta horrek familiaren ekonomia baldintzatzen du. Eta gainera, bizi izateko baldintza materialak bermatu beharraz gainera, belaunaldi berriek balorazio eta gogoeta sakonagoi ekin diete guraso izateari dagozkion erantzunkizun eta konpromisu pertsonala direla eta, 3.2 taula.

Lagineko gainontzekoen iritziak sei arrazoi ezberdin nagusitzen dira, aipatuenak bizi-maila hobea izatea, emakumeen % 13,9az eta gizonen % 16,4az aukatua, eta norberekeria eta erosotasuna dira, azken hauek emakumeen % 8,4az eta gizonen % 9,4az.

### 3.2. TAULA. Seme-alaben kopurua kontrolatzeko arrazoiak, sexuaren arabera

|                                      | EMAKUMEAK    |           | GIZONAK    |           | GUZTIRA      |            |
|--------------------------------------|--------------|-----------|------------|-----------|--------------|------------|
|                                      | Abs.         | %         | Abs.       | %         | Abs.         | %          |
| Seme-alaba gutxi beharrezkoa emateko | 797          | 60,7      | 247        | 59,5      | 1.044        | 60,4       |
| Bizi-maila hobea                     | 183          | 13,9      | 68         | 16,4      | 251          | 14,5       |
| Norberekeria eta erosotasuna         | 110          | 8,4       | 39         | 9,4       | 149          | 8,6        |
| Emakumeak lan ihardueraren balioa    | 93           | 7,1       | 20         | 4,8       | 113          | 6,5        |
| Etxebizitzaren tamaina               | 8            | 0,6       | 5          | 1,2       | 13           | 0,8        |
| Laguntzarik eta GG.SS.rik ez izatea  | 33           | 2,5       | 8          | 1,9       | 41           | 2,4        |
| Bestelakoak                          | 41           | 3,1       | 8          | 1,9       | 49           | 2,8        |
| Ez d./Ez du er.                      | 49           | 3,7       | 20         | 4,8       | 69           | 4          |
| <b>GUZTIRA</b>                       | <b>1.314</b> | <b>76</b> | <b>415</b> | <b>24</b> | <b>1.729</b> | <b>100</b> |

<sup>22</sup> Beltrán, M. eta beste batzuk "Estudios sobre la familia española". Lan eta Gizarte Segurantzaren Ministerioa, Serie Estudios. Madril 1987. 40. orr.

Erantzun hauek oso interesgarriak suertatzen dira gaur egun, zeren euskal bikoteek familia bat eratzeko erabakia hartzerakoan aurkitzen dituzten erraztasunak eta oztopoak, batetik, eta erabaki horren arrazoibidea, bestetik, dagokien testuinguru ekonomiko eta ideologikoan kokatzen baitituzte.

Argi dago bizi-kalitatearekiko ardurak norberaren inplikazioa eskatzeaz gainera, familia ugari bat edo nahi den beste seme edo alaba bat gehiago munduratzeari eragozten duten gastu jakin batzuk daramatzala bere baitan. Etxebizitza txiki bat dela eta, edo umeentzako gizarte-zerbitzu egokiak, hala nola haurtzaindegia nahiz eskola-jantokiak, ez izatetik eratorritako eragozpenak familiaren tamainuaren kaltegarri dira. Alde horretatik, nabari den estualdi ekonomikoari eta etorkizunerako somatzen denari begiratzuz esplikatu daitezke, hein batean bederen, egungo ugalkortasun urriaren zergatiak.

Hala eta guztiz ere, seme-alaben kopurua mugatzeko arrazoiak ematerakoan, norberekeria eta erosotasuna azpimarratzeko halako joera bat antzematen zaie pertsona nagusiei. 60 urtez gorakoen % 14,2k eta 45 eta 49 urte bitartekoek % 12,1ek darabilte argudio hau, inkestaturiko guztien erantzunetan % 8,6ra iristen dena. Ikus eranskineko III.3 taula.

Sexuaren eta adinaren baterako analisiak ez die banan-banan erabilitako aldagaietarako bakoitzaren kasuan aipatu direnei ezer berririk generatzen, eranskineko III.4 taulan ikusten den bezala.

Bikoteko batek, bere kabuz, bestearen iritzia aintzat hartu gabe, seme-alabaren bat munduratzeko erabakia hartzea, bikote-harremanetan suertatu daitezkeen era askotako ezberdintasunen adibide argia dugu. Nahigabeko haurdunaldia atzeratzera, aurreratzera edo izatera behartu izanak bikoteak familia-eraketari buruzko iritzia zeharo ezberdinak dituela eta bere batasunerako helburu amankomunik ez dutela erakusten du. Halako egoerak, familia-taldearen eta familia-buruaren iritzia senitartekoen interesen gaineratik izan ohi direneko gizarteetan ohizkoak direnak, euskal gizartean ez dira normalak. Izan ere, 3.3 taulan agertzen den bezala, iritzirik hedatuena, ia orobatekoa, seme-alabak munduratzeko erabakia bikoteari eta ez beste inori dagokiola adierazten du. Adinaren arabera zein sexuaren arabera, inkestatuen erantzunak ezer gutxi aldatzen dira, eranskineko III.5 taulan ikusi daitekeenez.

### 3.3. TAULA. Zeinek erabakitzen duen seme-alabak izatea, sexuaren arabera

|                 | EMAKUMEAK    |           | GIZONAK    |           | GUZTIRA      |            |
|-----------------|--------------|-----------|------------|-----------|--------------|------------|
|                 | Abs.         | %         | Abs.       | %         | Abs.         | %          |
| Emakumeak       | 41           | 3,1       | 12         | 2,9       | 53           | 3,1        |
| Gizonak         | 8            | 0,6       | 2          | 0,5       | 10           | 0,6        |
| Bikoteak        | 1.235        | 94        | 387        | 93,3      | 1.622        | 93,8       |
| Gizarteak       | 6            | 0,5       | 4          | 1         | 10           | 0,6        |
| Inork ez        | 13           | 1         | 5          | 1,2       | 18           | 1          |
| Ez d./Ez du er. | 11           | 0,8       | 5          | 1,2       | 16           | 0,9        |
| <b>GUZTIRA</b>  | <b>1.314</b> | <b>76</b> | <b>415</b> | <b>24</b> | <b>1.729</b> | <b>100</b> |

*Iturria:* Emakunderen 1991.eko inkesta.

Antisorgailua aukeratzeko erabakia dela eta, bereizketa bat ageri da emakumeen eta gizonen artean, seguruenik norberaren esperientziarekin, erabilitako baliabideen eraginkortasunarekin eta

sexukako baliabideon erabilgarritasunarekin zerikusirik baduena, praktikan emakumeak bikotearen ugalketa-arazoez zuzenean arduratzera bultzatzen dituenak.

Antisorgailua zeinek aukeratzen duen galdetzean, emakume zein gizonetarik gehienek, % 65 eta % 69 hurrenez hurren, biek erabaki behar dutela adierazi arren, emakumeen % 13k eta gizonen % 10ek erabakia batek hartu ohi duela esaten du. Portzentaia garrantzitsu batek medikuak erabakitzen duela adierazten du, % 17ak gutxi gorabehera sexu bietan, eta hau antisorgailu eranginkor batzuek, pilula eta umontziko eragingailua, besteak beste, bestelako ondoreak ere badakartzatelako gertatzen da. Honi produktu hauen eraginkortasuna nahiz arriskuak direla eta ez direla aldian-aldian izan ohi diren eztabaidak generatzen badizkiogu, azkenean aditua izan ohi da antisorgailua aukeratzeaz arduratzen dena.

## EMAKUMEEN LAN IHARDUERA UGALKORTASUNARI LOTURIK

# 3.2

Emakumeen lan ihardueraren eta ugalkortasunaren arteko erlazioa hainbat gizartetan jorratu den gaia dugu, kasurik gehienetan, ez dagoela eragin zuzenik ezta linealik ere deliberatu dela.

Ugalkortasuna ikutzen duten faktoreak direla eta, Nazio Batuek egindako azterlan batean ekonomia, gizarte, demografi eta osasun mailako faktoreak azpimarratzen dira<sup>23</sup>. Ikerlan hau Iraganaldi Demografikoari buruzko Teorian sartuta dago, Modernizazioaren Teoriaren gehikin gisa. Hipotesi gisa, emakumeen enpleguak ugalkortasunean eragin negatiboa duelako ustea ageri da, aztertutako gizartearen aurrerapen-maila edozein izanik ere. Enpleguaren urruntasuna eta ama ordezkatu dezaketen senideen laguntza izateko aukera ere kontutan hartzen dira, baina, aldagai bien arteko erlazioa zeharka ikutzen dutelakoan. Mendebaldeko herrialdeetan, aitzitik, eragin hau funtsezkoa litzateke, bestelako faktoreak kontrolaturik ere. Kasu bitxiak, aipatutako azterlanaren arabera beti ere, Polonia, Italia, Espainia eta Jugoslavia dira, estatistikaren aldetik adierazgarriak ez diren ezberdintasunak baitituzte. Hortaz, emakumeen enplegua eta seme-alaben heziera bateraezinak izateko joeraz ageri zaizkigu herrialderik aurreratuenetan (UN, 1983). Nazio Batuen azterlana adierazpen baten orokortzearen adibide argia da, eta baita mugaturiko marko teorikoan ezin esplikatutako daitezkeen egoera batzuren bazterreratzearena ere.

Espainiako emakumeen lan merkatuari buruzko azterlanetan aldagaien arteko erlazioaren abar-durak azaltzen dira, kondizionamendu berezirik edo aurremugapenik aipatu gabe<sup>24</sup>. Heziera da lan egiten duten emakumeen diru-sarrerak argitzen dituen faktorea. Hezkuntza sistemaren bitartez lortutako gaikuntza eta delako lana elkarloturik daudela frogaturik gelditzen da. Emakumeek jasotzen duten soldataren arabera ebatziko da emakumeek lan iharduerari eusten dioten ala ez. Bere etxean ordezkaturik izateko ahalbidea bere ekonomi mailaren menpe dago, hau da,

<sup>23</sup> Sarribe, Gabriela. "Fecundidad y Actividad femenina. REIS, 52 zk., 1990eko urria-azaroa, 85-99 orr.

<sup>24</sup> Fernández Méndez de Andrés, F. etab. "Actividad laboral de la mujer en relación a la fecundidad". Kultura Min-istraritza. Instituto de la Mujer. Serie Estudios 10. Madril 1987.

azken finean, enpleguaren eta ugalkortasunaren arteko erlazio negatiboa, iraganaldi Demografikoaren Teoriak formulatu den bezala, egiaztatzea gertatu da oraingoz.

Arazo hau behar den moduan aztertuko bada, status-maila aintzat hartu beharra dago. Lan eta lanbide-maila ezberdinetako emakumeek era zeharo ezberdinaz bizi izaten dute amatasuna eta berorren ondorioz etxe barruan sortarazten diren arazoak ebazterakoan ere jokabide ezberdinei jarraitu ohi dizkiete. Lan merkatuatzeko diren emakumeen artean gero eta gehiago dira ikasketak maila handia dutenak, eta egitate hau, emakumeen gaikuntza-maila goratuz doala erakustea gainera, ama eta langilea direlako rolak bateratzeko era berri baten erakusgarri ere bada. Aldi berean, kualifikaziorik txikiena duten emakumeak biztanle aktibo izateari uzten ari zaizkio ezarian-ezarian. Azken hamarkadan ugalkortasunean gertatu diren aldaketak behar bezala ulertuko badira, funtsezkoa da emakumeak lan merkatuan izan duen bilakaera kontutan hartzea.

Hortaz, ugalkortasunaren eta lan ihardueraren arteko elkarlotura aztertzen denean kontutan hartu beharreko alderdi nagusienetarikoa bat emakumearen kategoria sozioprofesionala da. Bere ikasketak maila eta lan egitea bultzatzen duten arazoak amatasunaren eta lanaren arteko bitartean klasikoa baino garrantzizkoagoak izan daitezke.

Biztanleria aktiboan sartzeari dagokionez, aski ezaguna da emakumeentzako eta gizonentzako sarbideak ez direla berdinak. Enplegu bat erdiesteko aukerei ezezik, titulazio berberaz egokitzen zaien tokian ere dago koska. Emakumeek burujabetasunera heltzeko aukera gutxiago dute eta profesionarien artean nabari den soldatapekotze-prozesua askoz ere nabarmenagoa da emakumeen kasuan. Emakumeek, lan egingo badute, gizonen baino batazbesteko ikasketak maila handiagoa eduki behar dute. Gizonetarik gehienek lanean diharduten bitartean, emakumeek enplegu on bat lortu badute, edo lortzeko zorian badaude baino ez dira laneraten.

Lan merkatuan sartzeko bultzagarri edo arrazoiei bagagozkie, ezberdinak izan ohi dira emakumeen eta gizonen kasuan. Emakumeak, irizpide ezberdinen arabera, biztanleria aktiboan orain sartu orain irten egiten direla ageri zaizkigu. Ekonomiaren krisialdiaren eragina latzagoa izan ohi da emakumeengan. Lanaren bila ari diren bitarteko ordezkariaren prezioa garestiegia suertatu daiteke eta, halaber, ekonomia egoeraren aldaketaren zai gelditzen dira. Emakumezko biztanleria aktiboa gutxietsia izanaren arrazoiak ere, agian, horixe izan daiteke, horrela, egoera kritikoak suertatzen direnean, gaikuntza-maila txikiak emakumeak ezkutuko ekonomian sartu baiditezke.

Emakumeen ikasketak mailan suertatu den hobekuntza horrek ez du biztanleria aktiboan emakume gehiago izatea ekarri, aktibo bihurtzen direneko adinaren gehitze nabarmena baizik. Hamarkada honetan, emakume aktiboen proportzioan gertatu den atzerapena emakumeek jasan behar dituzten kondizionamenduen erakusgarri da<sup>25</sup>. Emakumeak, abagadunezko arazoak direla medio, sartu eta irten egiten badira, oso zaila suertatuko da amatasunarekiko proiektuak lanari eutsi izanaren menpe izan daitezen. Espainian, ugalkortasuna eta emakumeen lan iharduera aldi berean gutxitu dira erabat. Oso zaila da aldagai bien arteko alderantzizko erlazioa ezartzen. Epe laburrera, bietako bakoitzaren fluktuazioak nolabaiteko independentzia izan dezake. Epe luzera, emakumeen bizi-proiektuetan sartzen direnetik, elkarrekiko kondizionamenduak ezarri behar dira.

Kualifikaziorik gabeko emakumeek zalantzak sortu dakizkieke lan egitea edo seme-alabak muntatzea erabakitzerakoan, eta ez bere kondizioetatik edo bere ikasketak mailagatik, ekonomi

<sup>25</sup> Sarribe Gabriela, aipat. lana, 90. orr.

arrazoiengatik baizik. Etxetik ateratzeak bikoteak aurre egin behar duen kostu ekonomikoa dakar. Horretarako, bion soldatek etxetik kanpo lan egitetik eratorritako kostuak konpentsatu beharko dituzte. Gaikuntza-maila txikiko jendeak gaur egun dituen lan baldintzak aintzat harturik, emakumeek etxean gelditzea aukeratzen dute, etxetik kanporatzea ekonomikoki onuragarria suertatzen ez zaien bitartean. Honek zera erakusten du: ordaindutako lana ala etxekoandre hutsa izatea aukeratzerakoan, funtsezkoena irabazi litekeen soldataren zenbaterainokoa izan behar dela eta ez emakumeen bizi-proiektuak.

Erdi-mailako gaikuntza eskatzen duten enpleguetan diharduten emakumeen egoera ezberdina da. Hauen soldata eta lan baldintzak kualifikazio txikiko langileenak baino hobeak dira, eta beraz, errazagoa da beren enpleguei eustea. Gizatalde hauxe da, hain zuzen ere, seme-alabarik gutxien munduratzeko duena, hala gure Elkartean, nola Espainian zein beste herrialdeetan. Alabaina, nolabaiteko statusa eta bizi-mailari eutsi nahi izatearren, emakumeen soldata familia osoarentzako beharrian bihurtu daiteke.

Lanbide-kualifikazioa duten emakumeen helburuak bestelakoak dira. Beren ikasketa-mailak eta hezierak ezkontza berandutzeroa bultzatu dituzte. Lehenengo alaba edo semea jaiotakoan ere, euren bizimodua funtsean ez aldatzeko aukera izan dezakete. Etxean dagokien eginkizuna beteko duten ordeko pertsonak lortzea errazagoa zaie bai ekonomikoki eta bai sentipenen aldetik ere. Etxean laguntzaileren bat izatea euren bizimoduari loturiko zerbait da eta, beraz, halako erabakia arazorik gabe hartzea ere errazagoa suertatzen zaie. Umea txiki txikitatik hezkuntza sisteman sartzea ere ez da lan merkatuan egotearen ondorio hutsa, heziera ulertzeko modu batena baizik. Kostua, berriz, ez da arazo handia diru-sarrera oparoak dituen familia batentzat.

Testuinguru honetan, umeen munduratzeko ugaltza emakumeek enpleguari utzi diezaioten planteatzen duten jokabide politikoek emaitza eskasak lortzeko zorian daude. Alde batetik, nori zuzentzen zaizkion kontutan hartu beharko litzateke. Beherengo kualifikazioa duten emakumeen artean jasoko luke harrerarik hoberena proposamen honek, enplegu bat izatera bultzatu duten arrazoi berberengatik. Erdi-mailako nahiz goi-mailako lanpostuetan diharduten emakumeek, ordea, lan egiteko beste arrazoi batzuk dituzte, eta bizi-proiektu nahiz familiarekiko asmo bereziak, proposamen ekonomiko batek nekez aldaraziko dituenak.

### **INKESTARI ERANTZUN DIOTEN EMAKUMEEN LAN IHARDUERA**

## **3.2.1**

Ugalkortasunaren eta lan ihardueraren arteko erlazioari buruzko analisia egiteak, lehenago aipatu diren faktoreen eragina aztertuko lukeen azterlan berezia eskatzen du. Egin den inkestak ez du gai hau sakontasunez ikertzea eskaintzen, etxeko bizimoduaren azterketara, batipat, zuzendutako galderak egin direlako gehien bat. Nolanahi ere, ondoren, inkestari erantzun dioten emakumeen lan ihardueraren eta aldagairik adierazgarrien arteko erlazioa aztertzen da, aldagaiok adina, egoera zibila eta ikasketa-maila direla. Horrez gainera, eta labur bada ere, ez-kondutako emakumeengan, ondorengoak munduratu ala ez munduratzeko eta berauen kopurua mugatzeko iharduerak eta adinak duten eragina aztertzen da.

Inkestaturiko bi emakumeetarik batek etxeko lanetan dihardu (jubilatua ere kontutan harturik). Laurden batetik gora dira lan egiten dutenak, % 16,4 ikasleak dira eta % 5,3 langabezian daude, 3.4 taula.

### 3.4. TAULA. Emakumeen iharduera, adinaren arabera

|                        | 15-29      |             | 30-44      |           | 45-59      |             | 60-79      |             | GUZTIRA      |            |
|------------------------|------------|-------------|------------|-----------|------------|-------------|------------|-------------|--------------|------------|
|                        | Abs.       | %           | Abs.       | %         | Abs.       | %           | Abs.       | %           | Abs.         | %          |
| Landuna                | 139        | 32,6        | 152        | 42,8      | 49         | 14,5        | 9          | 4,7         | 349          | 26,6       |
| Langabea               | 51         | 11,9        | 10         | 2,8       | 9          | 2,7         | —          | —           | 70           | 5,3        |
| Etxekoandrea-jubilatua | 24         | 5,6         | 200        | 53,6      | 281        | 82,9        | 184        | 95,3        | 679          | 51,6       |
| Ikaslea                | 213        | 49,9        | 3          | 0,8       | —          | —           | —          | 216         | 16,4         |            |
| <b>GUZTIRA</b>         | <b>427</b> | <b>32,5</b> | <b>355</b> | <b>27</b> | <b>339</b> | <b>25,8</b> | <b>193</b> | <b>14,7</b> | <b>1.314</b> | <b>100</b> |

*Iturria:* Emakunderen 1991.eko inkesta.

Adinaren arabera, 45 urtez beherako ia erdiek enpleguren bat dute, 30 eta 44 urte bitartekoak batez ere, hauetako % 43 enplegaturik baitaude. Langabeen artean gazteak ere badira, 15 eta 29 urte bitarteko nesken % 12 lanik gabe daude, alabaina gehienak ikasleak dira, adin horretako erdiak hain zuzen. Etxeko lanetan dihardutenak 45 urtez gorakoak dira gehien bat: 45 eta 59 urte bitarteko emakumeen % 82,9 eta 60 eta 70 urte bitarteko ia denak.

Egoera zibilaren arabera, eranskineko III.6 taula, adinak erabateko eragina duen aldagaia izanik ere, honako banaketa ageri da:

— Lan iharduerarekin zerikusirik duten emakumeak, landunak zein langabeak, gehien bat dibortziatuak edo bananduak eta ezkongabeak dira. Hortaz, dibortziatu edo bananduriko emakumeetarik % 52,2k lan egiten dute eta ezkongabeetako % 35,2k. Dibortzietuei eta bananduei dagokienez, laginaren zenbateko urriak kontutan harturik, baieztapen hori orokortzekotan kontu handiz orokortu beharra dago. Dena den, erlazio hau hainbat ikerlan eta estatistikazko datuetan azaldu denetik, ondorioztapen onargarria da, joera moduan behinik behin.

— Ikasleak ezkongabeak dira eta etxeko lanetan dihardutenak ezkonduak dira batez ere.

Emakumeen iharduera, egoera zibila eta adina direlako aldagaiak batera kontutan hartuz gero, 45 urtez beherakoak eta gorakoak bereizirik, nabarmenagoa da ezkondua egotearen eta enplegurik ez izatearen arteko lotura, eranskineko III.7 taulan agertzen den bezala.

Enplegua duten emakumeen gehiengo zabala 45 urtez beherakoek osotzen dute, etxeko lanetan dihardutenak, aldiz, 45 urtez gorakoak izan ohi dira. Alabaina, egoera zibilak ere eragin adierazgarria du, 45 urtez beherako ezkonduetarik erdiak ere etxekoandreak baitira. Nolanahi ere, 45 urtez beherako emakume ezkonduen artean gainontzeko emakume ezkonduen artean baino enplegatu-proportzio handiagoak nabari dira.

Nahiko argia da, bestalde, ikasketa-mailak ihardueran duen eragina (eranskineko III.8 taula): ikasketa-mailan gora egiten den neurrian, enplegua duten emakumeen proportzioak ere gora egiten du, izan ere, BBB, LH edo UBI ikasketak dituzten emakumeetarik % 32k eta goi-mailako ikasketak dituztenen ia laurden batek enplegua dute. Ikasketarik gabeko edo lehen mailakoak baino ez dituzten emakumerik gehienak, ordea, etxekoandreak dira.

Eranskineko III.9 taulan, ihardueraren ikasketa-mailaren eta adinaren arteko erlazioa aztertzen da. Gurutzatze hirukoitz honetatik joera orokor bat ateratzen da: ikasketa-maila zenbat eta handiagoa izan, orduan eta ahalbide gehiago ditu emakumeak enpleguren bat izateko. Alabaina, adina delako aldagaiak eragin nabarmena du erlazio horretan, izan ere, belaunaldirik gazteenei, oinarrizko ikasketa-maila izan arren, helduagoek baino enpleguratzeko joera handiagoa nabari baitzaie.

Lan iharduerak jaiotze-kopurua urritu egin ahal duelako hipotesia, hau da, etxetik kanpo lan egiten duten emakumeek ondorengo gutxiago izaten dituztelakoa abiapuntutzat harturik, seme-alaben kopurua, iharduera eta adina direlako aldagaiak elkarlotzea planteatu du. Adinaren eta landuna izan ala ez izatearen artean, batetik, eta adinaren eta seme-alaben kopuruaren artean, bestetik, dagoen lotura hain estua izanik, nahiko zaila da hiru aldagaiok alderatzen. Hortaz, aldagaiok ezkonduetako emakumeen taldean alderatu dira, zeren kolektibo hau suertatu baitaiteke aproposena, amatasunari eta enpleguari dagokienez, adinaren eragina zehazteko.

Eranskineko III.10 taularen arabera, 45 urtez gorako emakumeen artean, seme-alaben batzbesteko kopurua gazteagoen artekoa baino handixeagoa da<sup>26</sup>. 45 urtez beherako taldean %25,9k seme-alaba bat du eta ia %50ak bi seme-alaba ditu. Adin hori gainditu duten amen artean, halaber, gehiengoak bi seme-alaba ditu, bosten batek hiru eta % 4,3ak lauzpabost.

45 urtez beherakoei begiratuz, landunen eta etxekoandreen artean ezberdintasun argi bat nabari da, hots, lehenengoen artean, askotxo direla seme-alabarik gabekoak eta etxekoandreen artean portzentaia hori murriztu egiten dela. Horrez gainera, landunen artean, seme-alaba bakarra dutenen portzentaia ere handiagoa da etxekoandreen artean baino. Hortaz, ezberdintasun hauen arrazoietakoa bat zera izan daiteke: etxetik kanpo lan egiten duten emakumeek amatasuna atzeratu egiten dutela eta/edo landuna izatearen eta aztertutako taldeko gazteenetakoa izatearen arteko kointzidentzia bat gertatzen dela. Zalantza bat argitzeke geratzen da, nolana ere, hots, jaiotze-tasen beherakadaren eragina lan ihardueraren bat duten emakumeen etxetan nabarmenagoa ote den ala, alderantziz, horrelako erlazorik ezartzerik ez ote dagoen.

45 urtez gorakoen artean, lanean diharduten emakume ezkonduak ordezkatzan dituztenak horren gutxi izanik, ezinezkoa da seme-alaben kopuruaren eta ihardueraren arteko erlazioa nolabait erakutsi dezakeen etxekoandreekiko erkaketarik egitea.

<sup>26</sup> 45 urtez beherako emakume-taldea oraingoz ugalkorra dela kontutan hartu behar da, eta baita lehenengo kapituluaren Ugalkortasunari buruzko Indize Sintetikoaren (UIS) beherakadaz emandako datuak ere.

4

**ETXE-ARLOKOA**

Emakumeek etxetik kanpoko ihardueretan gero eta partehartze handiagoa dutenetik, badirudi, horrek etxe barruko eginkizunen banaketa tradizionala aldatu lezakeela, hura berdintsuagoa izateko joera nagusitu litekeela, alegia. Aitzitik, hainbat ikerlanek adierazten dutenez, familia-antolaketa eta ugalketa inguruan izandako aldaketek ez dute eragin nabarmenik izan etxe-arloko sexuaren arabeko rolen asignazioan, gizartean, azken finean, sexu bakoitzari dagokion egoki "izatea" ala "ez izatea" mugatzen dutenak <sup>27</sup>.

Hau da, familiaren antolaketa tradizionalari industria-ondoko hiriko gizartean dagokion koka-menduan eta zereginetan gertaturiko aldaketen eraginez, herri bizitzan, oro har, sexuaren arabeko rol tradizionalen aldakuntza gero eta nabarmenagoak izan litezkeelako igurikapenak izan arren, eragin hori ez da aldi berean etxe-arlokoan ohizkoa den genero-zatiketaren nabaritu.

Etxeko antolamendua, seme-alaben zaintza eta familia-harremanak jorratzen dituen ondorengo azterketak argituko du aldaketa hori norainokoa izan den euskal biztanleen familia-arloan, oro har, eta emakumeei dagokienean bereziki.

## ETXEKO ZEREGINAK

# 4.1

Etxeko lanaren, familiaren eta emakumeek duten posizioaren testuinguruan, emakumeek gero eta autonomia handiagoa eta gizarte-ospe hobea lortzen ari direlako ustea planteatzen da. Prozesu hau bai gizonek eta bai emakumeek lortutako hezkuntza-mailari lotzen zaio, sexuen arteko prestakuntza-ezberdintasunak ezarian-ezarian murriztuz doazen hein berean. Hala eta guztiz ere, prozesu horrek ez du legokiokkeen emakumeen lan merkaturatze egokirik ekarri, hots, emakumeek erdietsitako hezkuntza-maila goragokoari legokiokkeena, ez eta beren laneratzeko nahien arabera, etxeko lanak eta familiaz arduratu beharrak bestelako ihardueretan aritu ahal izatea eragozten baitiete.

Jakina denez, etxekoandre hutsa nahiz bestelako lanen baten diharduena izanik ere, etxeko lanen zama, funtsean, emakumeen gain dago; alabaina, belaunaldi berriak berdintasunarekiko kontzientziario handiagoaz datozkigu. Etxe-arloko ardura ez dagokiela emakumeei soilik eta zereginak berdintsu eta eginkortasunaren arabera banatu behar direlako ustea gero eta arrakastatsuagoa suertatzen ari da gazteen artean. Batzbesteko hezkuntza-maila handiagoa eta, batez ere, emakumeen lan merkaturatze hazkorra dira pentsamolde berri honen funtsezko eragileak.

Egindako inkestaren bidez, halaber, E.A.E.an ere etxeko lanak emakumeen eginkizun direla ikusi daiteke, baina, era berean, gazteen artean etxe-arloko monolitismoa hausteari ekin zaiola eta gizonak zein emakumeak etxean elkarlanean aritzen hasiak direla.

<sup>27</sup> Henwood, M. "The family and the home", Occasional papers. Family Policies Studies Centre, 1987.

## 4.1.1

“Adierazi ezazu zein sexutakoak diren etxe honetan etxeko lanak egiten dituztenak”<sup>28</sup> delako galderari erantzutean, etxeko zereginak betetzeko ardura oso-osoa emakumeena deneko etxeak % 54 dira. Hauei, etxeko lanak emakumeek batez ere burutzen dituzten kasuak, % 28,4, gehitzen badiugu, guztira % 82,4ko portzentaia ateratzen da, 4.1. taulan agertzen den bezala.

**4.1. TAULA.** Zeinek egiten dituen etxeko lanak, sexuaren eta emakumeen ihardueraren arabera

|                       | LANDUNAK   |             | EMAKUMEAK          |             |                     |             | GUZTIRA      |            | GIZONAK    |            | GUZTIRA      |            |
|-----------------------|------------|-------------|--------------------|-------------|---------------------|-------------|--------------|------------|------------|------------|--------------|------------|
|                       | Abs.       | %           | ETXEKOANDR./JUBIL. |             | GAINONTZ. LANGABEAK |             | GUZTIRA      |            | GUZTIRA    |            | Abs.         | %          |
| Emakumeek bakarrik    | 151        | 43,3        | 446                | 65,9        | 147                 | 51          | 744          | 56,6       | 189        | 45,5       | 933          | 54         |
| Emakumeek batez ere   | 105        | 30,1        | 154                | 22,7        | 97                  | 33,7        | 356          | 27,1       | 134        | 32,3       | 490          | 28,4       |
| Emakumeek eta gizonak | 92         | 26,4        | 76                 | 11,2        | 43                  | 14,9        | 211          | 16,1       | 82         | 19,8       | 293          | 16,9       |
| Gizonak batez ere     | 1          | 0,3         | 1                  | 0,1         | 1                   | 0,3         | 3            | 0,2        | 3          | 0,7        | 6            | 0,3        |
| Gizonak bakarrik      | —          | —           | —                  | —           | —                   | —           | —            | 7          | 1,7        | 7          | 0,4          |            |
| <b>GUZTIRA</b>        | <b>349</b> | <b>26,6</b> | <b>677</b>         | <b>51,5</b> | <b>288</b>          | <b>21,9</b> | <b>1.314</b> | <b>100</b> | <b>415</b> | <b>100</b> | <b>1.729</b> | <b>100</b> |

*Iturria:* Emakunderen 1991.eko inkesta.

Etxeko lanetan, eskusiboki, diharduten emakumeen kasuan, etxekoandre huts izatea lan egoerari hertsiki loturik egon ohi da: landunetako % 43,3k adierazten dute emakumeek bakarrik egiten dituztela etxeko lanak, etxekoandreen artean, aldiz, portzentaia horrek % 66a jotzen du. Emakume landunak dira, halaber, gizonaren partehartze handiagoa aipatzen dutenak, % 26 baino gehixeago, emakume guztien kasuan portzentaia hori % 16,1era iristen dela.

Emakumeak eta gizonak ez datoz bat sexu bakoitzak bere buruari atxikitzen dizkion etxeko eginkizunen zenbaterainokoari dagokionez. Eranskineko IV.1 taularen arabera, gizonak etxeko zereginetan emakumeek adierazitakoa baino partehartze handiagoa dutela uste dute, euren laguntza % 20koa dela diote, emakumeen ustez, aldiz, laguntza hori % 16,1ekoa baino ez da. Eta kurioski, ezkonduetako gizonak dira etxeko lanetan duten partehartzeaz mintzatzean bai gizonen iritzi orokorretik, hiru puntuz, eta bai ezkonduetako emakumeen irititik, lau puntuz, gehien aldentzen direnak. Dena den, gizonetarik % 77,8k aitortu egiten du etxeko lanak emakumeek bakarrik edo emakumeek batez ere egiten dituztela.

Eraitza hauek oso ezagunak dira, batetik, emakume gazteen gizarte eta ekonomi proiektio berria eta guztiz dirauen sexuaren araberrako ohizko esparru eta jakintza-banaketa erakusten dutela eta, bestetik, etxe-arloko ohitura eta jokabide berrien eragin xumea, gure gizarteko zenbait sektoretan pixkanaka pixkanaka nabaritzen ari dena.

<sup>28</sup> Egin den galdera hau da: “Adierazi ezazu zein sexutakoak diren etxe honetan etxeko lanak egiten dituztenak”.

Inkestari erantzun diotenen etxeetan eginkizunak sexuaren arabera nola banatzen diren jakin ondoren, norberaren partehartzearen zenbaterainokoaz galdetu da. Aurrez aipatutakoarekin bat etorritik, 4.2 taulako datuetan ere, emakumeen artean ia denek etxeko lanak egin ohi dituztela ageri da<sup>29</sup>, gizonen artean % 43,1 direla halakoak. Diferentzia hau areagotu egiten da talde biak eginiko lan-kopuru handiagoa erakusten duten kategorietan alderatzen baditugu: lau emakumetarik ia hiruk lanetako asko edo denak egiten dituzte, hala diharduten gizonak, aldiz, % 16,4 dira.

#### 4.2. TAULA. Etxeko lanak egin ohi diren, sexuaren eta adinaren arabera

|                        | 15-29      |             | 30-44      |             | 45-59      |             | 60-70      |             | GUZTIRA      |            |
|------------------------|------------|-------------|------------|-------------|------------|-------------|------------|-------------|--------------|------------|
|                        | Abs.       | %           | Abs.       | %           | Abs.       | %           | Abs.       | %           | Abs.         | %          |
| <b>EMAKUMEAK</b>       |            |             |            |             |            |             |            |             |              |            |
| Ez, inoiz ez           | 17         | 3,9         | —          | —           | 1          | 0,3         | 4          | 2,1         | 22           | 1,7        |
| Noizean behin          | 58         | 13,6        | 6          | 1,7         | 4          | 1,2         | 3          | 1,5         | 71           | 5,4        |
| Bai, eginkizun gutxi   | 195        | 45,6        | 42         | 11,8        | 14         | 4,1         | 10         | 5,2         | 261          | 19,9       |
| Bai, eginkizun asko    | 117        | 27,4        | 128        | 36,1        | 93         | 27,4        | 42         | 21,8        | 380          | 28,9       |
| Bai, eginkizun guztiak | 40         | 9,4         | 179        | 50,4        | 227        | 67          | 134        | 69,4        | 580          | 44,1       |
| <b>GUZTIRA</b>         | <b>427</b> | <b>32,5</b> | <b>355</b> | <b>27</b>   | <b>339</b> | <b>25,8</b> | <b>193</b> | <b>14,7</b> | <b>1.314</b> | <b>100</b> |
| <b>GIZONAK</b>         |            |             |            |             |            |             |            |             |              |            |
| Ez, inoiz ez           | 37         | 21,1        | 14         | 13,3        | 19         | 25,3        | 19         | 31,7        | 89           | 21,4       |
| Noizean behin          | 63         | 36          | 34         | 32,4        | 29         | 38,7        | 21         | 35          | 147          | 35,4       |
| Bai, eginkizun gutxi   | 53         | 30,3        | 31         | 29,5        | 14         | 18,7        | 13         | 21,7        | 111          | 26,7       |
| Bai, eginkizun asko    | 18         | 10,3        | 24         | 22,8        | 11         | 14,7        | 5          | 8,3         | 58           | 14         |
| Bai, eginkizun guztiak | 4          | 2,3         | 2          | 1,9         | 2          | 2,7         | 2          | 3,3         | 10           | 2,4        |
| <b>GUZTIRA</b>         | <b>175</b> | <b>42,2</b> | <b>105</b> | <b>25,3</b> | <b>75</b>  | <b>18,1</b> | <b>60</b>  | <b>14,5</b> | <b>415</b>   | <b>100</b> |

*Iturria:* Emakunderen 1991.eko inkesta.

Adinaren eta etxeko lanak egitearen arteko erlazioa dago. Emakumeen kasuan, adina gehitzen den heinean, etxeko lan gehiago egiten dira. Gizonen kasuan, alderantziz, zenbat eta zaharra-goak izan, orduan eta gutxiago dihardute etxeko eginkizunetan. 15 eta 29 urte bitarteko gizonen artean asko dira etxeko lanetan laguntzen ez dutenak, ia % 60 hain zuzen, adin berbereko emakumeen artean, aldiz, % 28 baino ez; portzentaia hauek garbi asko erakusten dute sexuaren araberako eginkizunen banaketa, nahiko etxeetan dirauena, izan ere, gazte horietako gehienak jatorrizko familiarekin bizi izaten baita eta guraso zahar samarrekin.

Eratu berriak izan diren etxeetan, hau da, bikote gazteen artean ere, eginkizunen ohizko asig-nazioa aldatu den ala ez ikusteko, eranskineko IV.2 taulan aztertzen dira ezkontuta zeudenek inkestari erantzundakoa adinaren arabera.

<sup>29</sup> Etxeko lanak egin ohi direla ulertzen da haiek sistematikoki egiten direnean, gutxi, nahiko, asko zein denak izanik ere. Hau da, etxeko lanetan inoiz ere ez diharduten pertsonak eta noizean behin aritzen direnak salbuetsirik daude.

Ezkondutako emakumeen artean, ia denek hartu ohi dute beren gain etxeko lanekiko ardura eta etxeko eginkizun gutxitan dihardutenak % 6,7 baino ez dira. Gizonen kasuan egoera arras ezberdina aurkitzen dugu. Inkestari erantzun diotenetarik ia % 45ek etxean lan egiten dutela adierazten dute, baina % 25,4k eginkizun gutxi burutzen dituzte.

Erantzun duten ezkonduak adinaren arabera erakutsitako jokabide ezberdinak aintzat harturik, nolabaiteko ohitura-aldaketa antzematen da familien baitan. Adina gehitu ahala, ezkondutako emakumeek bere gain hartzen duten zama ere gero eta astunagoa izaten da. Alderantziz, ezkondutako gizonen kasuan, belaunaldirik gazteenetakoak etxeko lanak egiteko joera nabarmenagoaz ageri dira. Belaunaldirik gazteenak, 45 urtez beherakoak, adintsuagoak baino berdintzaileagoak dira etxeko lanak banatzerakoan, emakumeek bakarrik eginiko etxeko lana ezarian ezartzen gertatzen doala bion arteko lana gehituz doan heinean.

Ezkondutako emakumearen lan iharduera kontutan hartzen denean, eranskineko IV.3 taula, emakume landunen zama nola arintzen den ikusi daiteke, seguruenik, etxean beste senitartekoren baten laguntzaz baliatzen direlako, baina ez ezkontidearenaz. Funtsezko ezberdintasuna zera da, langabeak baino denbora gutxiago ematen dutela etxeko lan "guztiak" egiten. Nola-nahi ere, etxeko eginkizunik gehienez arduratzen dira, izan ere, ezkondutako emakume landu-netarik % 75ek etxeko lanik gehienak edo denak egiten baititu, horrela bi ihardunaldi dutela, etxekoa eta etxetik kanpokoa.

## **ETXEKO ZEREGINEN BANAKETA**

### **4.1.2**

Etxe barruko lanen asignazioa ezberdinaren ondorioak, emakumeek eta gizonak eginiko lan-kopuruan ezezik, generoen arabera zatiketa garbian ere nabari da: lan batzuk emakumezkoenak dira oso eta beste batzuk gizonak egin beharrekoak. Eranskineko IV.4 taulan erakusten da inkestari erantzun dioten ezkonduak zenbateko maiztasunaz egiten dituzten etxeko lan jakin batzuk, sexuaren arabera.

Lan hauetan era guztietako iharduerak sartzen dira: hala betiko garbiketa eta erosketa, nola horren ohizkoak ez diren banku-gestioak, konponketak, etab. Adierazitako guztien artean, ezkondutako emakumeek, % 75etik gorako portzentaiaz, beti egiten dituzten hauek agertzen dira: aspiragailuaz garbitu, komuna txukundu, harrikoa egin, janariak prestatu, ikuzi eta lizatu eta etxea antolatu. Portzentaia txikixeagoz, % 58 eta % 67, asteroko erosketa egin, umeak medikuarengana eraman eta mandatuak egin ohi dituzte.

Ezkondutako emakumeen ardurapean baino ez egote hori % 50etik beherakoa da zereginok, etxe-arloko zeregin huts ez ezik, etxetik kanpoko sektorekiko harremanak eta ezagupen bereziak eskatzen dituztenean, hala nola, konponketak egiterakoan, % 14,9, umeen eskola-lanetan laguntzerakoan, % 30,4, eta banku, udal eta abarrekiko gestio orokorrak egiterakoan. Eginkizun hauek dira, hain zuzen ere, gizonen partehartzerik handiena erakusten dutenak eta hauexek dira, halaber, ezkondutako emakumeek inoiz ere egiten ez dituzten ihardueren artean portzentaiarik handienak erakusten dituztenak. Gizonak bete ohi dituzten eginkizunak, beraz, gizonari familiaren baitan egokitu izan zaion zeregina zailentzen jartzen ez dutenak dira.

Familiaren iharduerak antolatzeko era honek argi eta garbi erakusten duenez, etxeko lanetako partehartze berdina urruti dago oraindik, izan ere, haiek banatzerakoan jarraitu ohi zaizkien ohizko rolen asignazioak, dedikazio-mailako ezberdintasunek eta sexuaren arabera zatiketak indarrean dirautela.

Etxe-arloan nabari den zatiketa argi hau izanik ere, ezkonduetako gizon nahiz emakumerik gehienek etxeko lanen banaketa hala nahi izanikoa eta justua dela adierazten dute, diferentzia txiki batekin, hala ere, azken alderdiari dagokionez batipat. % 69,1 emakumek eta % 72,5 gizonak borondatezkotzat dute eta % 60,9k eta % 64,8k, hurrenez hurren, justua dela deritzote, 4.3 taulan agertzen den bezala.

#### 4.3. TAULA. Zure etxeko lan banaketa borondatezkoa eta justua al da?, sexuaren eta egoera zibilaren arabera

|                       | EZKONGABEAK |             | EZKONDUAK  |             | ALARG./BAN./DIB. |            | GUZTIRA      |            |
|-----------------------|-------------|-------------|------------|-------------|------------------|------------|--------------|------------|
|                       | Abs.        | %           | Abs.       | %           | Abs.             | %          | Abs.         | %          |
| <b>EMAKUMEAK</b>      |             |             |            |             |                  |            |              |            |
| Borondatezko banaketa |             |             |            |             |                  |            |              |            |
| Bai                   | 263         | 59,8        | 581        | 73,4        | 64               | 78         | 908          | 69,1       |
| Ez                    | 169         | 38,4        | 198        | 25          | 17               | 20,7       | 384          | 29,2       |
| Ez d./Ez du er.       | 8           | 1,8         | 13         | 1,6         | 1                | 1,2        | 22           | 1,7        |
| Banaketa justua       |             |             |            |             |                  |            |              |            |
| Bai                   | 225         | 51,1        | 510        | 64,4        | 65               | 79,3       | 800          | 60,9       |
| Ez                    | 202         | 45,9        | 259        | 32,7        | 15               | 18,3       | 476          | 36,2       |
| Ez d./Ez du er.       | 13          | 3           | 23         | 2,9         | 2                | 2,4        | 38           | 2,9        |
| <b>GUZTIRA</b>        | <b>440</b>  | <b>33,5</b> | <b>792</b> | <b>60,3</b> | <b>82</b>        | <b>6,2</b> | <b>1.314</b> | <b>100</b> |

|                       | EZKONGABEAK |             | EZKONDUAK  |             | ALARG./BAN./DIB. |            | GUZTIRA    |            |
|-----------------------|-------------|-------------|------------|-------------|------------------|------------|------------|------------|
|                       | Abs.        | %           | Abs.       | %           | Abs.             | %          | Abs.       | %          |
| <b>GIZONAK</b>        |             |             |            |             |                  |            |            |            |
| Borondatezko banaketa |             |             |            |             |                  |            |            |            |
| Bai                   | 126         | 63          | 166        | 81          | 9                | 90         | 301        | 72,5       |
| Ez                    | 60          | 30          | 28         | 13,7        | 1                | 10         | 89         | 21,4       |
| Ez d./Ez du er.       | 14          | 7           | 11         | 5,4         | —                | —          | 25         | 6          |
| Banaketa justua       |             |             |            |             |                  |            |            |            |
| Bai                   | 98          | 49          | 162        | 79          | 9                | 90         | 269        | 64,8       |
| Ez                    | 84          | 42          | 30         | 14,6        | 1                | 10         | 115        | 27,7       |
| Ez d./Ez du er.       | 18          | 9           | 13         | 6,3         | —                | —          | 31         | 7,5        |
| <b>GUZTIRA</b>        | <b>200</b>  | <b>48,2</b> | <b>205</b> | <b>49,4</b> | <b>10</b>        | <b>2,4</b> | <b>415</b> | <b>100</b> |

*Iturria:* Emakunderen 1991.eko inkesta.

Onespen hau, ordea, oso aldakor ageri zaigu egoera zibilaren arabera, adinaren eragina ere nolabait antzematen zaiola. Gizonen artean lan banaketarekiko jarrera positiboagoa ageri bada ere, eta galdera horrek, oro har, ezkonduen artean baino onespen txikiagoa jaso badu ere, ezkongabeen artean ere banaketa hau borondatezkoa eta justua delako erantzuna nagusitzen da.

Etxeko lanak egin ohi dituzten 1.221 emakume eta 179 gizonen artean, berriz, lan hori borondatez eta era justu batez banandu ote den galdetzerakoan jaso diren baiezkotako erantzunak talde osoarenak bezalako portzentaiaz gutxi gorabehera agertzen dira, eranskinetako IV. 1 taulan ikusi daitekeenez.

Orain arte aztertutako datuek erakusten duten arabera, gizonek etxeko lanetan ematen duten benetako laguntza nahiko eskasa den arren, gizonek etxeko lanetan zenbateraino parte hartzen duten galdetzerakoan jaso diren erantzun oso bestelakoak izan dira.

Senarrak eta seme-alabek etxeko zereginetan lagundu behar ote duten galdetu denean, 4.4 taula, % 70 emakume eta % 67tik gora gizonen artean, bai batzuek eta bai besteek etxeko lanetaz arduratzearen alde agertzen dira. Aurreko galderan bezalaxe, ezkondu gabeko emakumeak dira, gazteenak eta ikasketa-mailarik handiena dutenak alegia, etxeko lanen banaketa berdintasunez egitearen aldeko jarrera gehien defendatzen dutenak; ezkondu gabeko gizonen iritzia eta gainontzeko gizonena, ordea, oso antzerakoak dira.

**4.4. TAULA. Etxetik kanpo lanean diharduten senarrak eta seme-alabek etxeko lanetan lagundu behar ote duten, egoera zibilaren (ezkongabeak eta ezkonduak) eta sexuaren arabera**

|                 | EZKONGABEAK |             | EMAKUMEAK<br>EZKONDUAK |             | GUZTIRA      |            | EZKONGABEAK |             | GIZONAK<br>EZKONDUAK |             | GUZTIRA    |            |
|-----------------|-------------|-------------|------------------------|-------------|--------------|------------|-------------|-------------|----------------------|-------------|------------|------------|
|                 | Abs.        | %           | Abs.                   | %           | Abs.         | %          | Abs.        | %           | Abs.                 | %           | Abs.       | %          |
| Bai             | 352         | 80          | 567                    | 64,9        | 919          | 69,9       | 131         | 65,5        | 148                  | 68,8        | 279        | 67,2       |
| Noizean behin   | 72          | 16,4        | 248                    | 28,4        | 320          | 24,4       | 54          | 27          | 50                   | 23,3        | 104        | 25,1       |
| Ez              | 7           | 1,6         | 53                     | 6,1         | 60           | 4,6        | 8           | 4           | 13                   | 6           | 21         | 5,1        |
| Ez d./Ez du er. | 9           | 2           | 6                      | 0,7         | 15           | 1,1        | 7           | 3,5         | 4                    | 1,9         | 11         | 2,7        |
| <b>GUZTIRA</b>  | <b>440</b>  | <b>35,5</b> | <b>874</b>             | <b>66,5</b> | <b>1.314</b> | <b>100</b> | <b>200</b>  | <b>48,2</b> | <b>215</b>           | <b>51,8</b> | <b>415</b> | <b>100</b> |

*Iturria:* Emakunderen 1991.eko inkesta.

Ezberdintasunak badirela onetsi arren, etxeko lanetan gizonek gaur egun lehenago baino partehartze handiagoa dutelako iritzia hedaturik dago, horixe adierazi dute inkestari erantzun dioten emakume eta gizonetarik % 80k hain zuzen, eranskinetako IV.6 taulan agertzen den bezala. Hala ere, egoera zibila eta adina kontutan harturik, ezkongabeek eta gazteenek, emakumeak batez ere, ez dute egoera hau hain argi ikusten. Litekeena da, emakumeek etxetik kanpo gero eta gehiagotan ihardutearen ondorioz, agian, etxeko lana ulertzeko moduan nolabaiteko aldaketa somatzen ari dela, nahiz eta, momentuz behintzat, aldaketa hori ez den rolen asignazioan eta etxeko lanen erantzukizunean eta antolaketan nabaritzen. Badirudi, beraz, pentsamoldeen aldaketa hau errealitatearen beraren aintzindari izan litekeela, baina, dena den, pentsa liteke, era berean, "behar da" delakoaz edo emakumeenganako diskriminazio ezberdinen deuseztapena dela eta nagusi den pentsamoldeaz erantzutea.

Nolanahi ere, mutikoei eta neskatoei hezkuntza ezberdina ematen zaiela eta etxeko lanaren sexu-zatiketa berresten duten eginkizunak atxikitzen zaizkiela aitortzen da. Emakumeek gizonen baino zabalago baieztan dute errealitate hau, % 60,2 eta % 55,9, hurrenez hurren. Kasu honetan ere, ezkondu gabeko emakumeek eta gazteenek dira ezberdintasun hau gehien salatzen dutenak, baina, ezkongabe eta gazte guztien jarreraren barruan, hau da, belaunaldi berrien iritzi orokorra agertuz.

Ulertze-modu ezberdin hau, pertsona helduek sexu-rolak barneratuago izatearen ondorioa izan daiteke, horrek oharkabe semeekin eta alabekin jokaera ezberdina izatera baitaramatza; belau-naldi gazteenak, ordea, berdintasunean oinarritutako harremanekiko sentiberatasuna garatua-goia izaki, ezberdintasun horietaz oharturik daudela.

## LAN ZATIKETA EDO BERDINTASUNA, ETXEKO LANAK EGOKITZERAKOAN

### 4.1.3

Etxeko lanak eta erantzukizunak generoaren arabera egokitzearen atzean gizakiek, mutiko nahiz neskatoak, gizon zein emakumeak, "berezko" gaitasun edo habileziak dituztelako ustea dago. Uste honek etxera zokoratu ditu emakumeak, bertan eta ez beste inon garatuko zituztelakoan emakume-izakera eta nortasuna. Sektore askotako emakumeen errealitatea hauxe izan arren, belaunaldirik gazteenek, kasu honetan ere, ekarri dezaketen aldaketa baten erakusgarri izan daitezkeen datu batzuk ageri dira.

Egoera honen nondik-norakoak ezagutzeko, etxeko zereginen arduradun nork izan behar duen galdetu zitzaizen inkestatuei. 4.5 taulako datuen arabera, gehiengo zabal baten iritziz, etxeko lana berdintasunez banatu beharko litzateke, horrela mintzatzen dira 10 emakumetarik 9 eta 10 gizonetarik 8, hain zuzen. Berdintasunaren aldeko jarrerarik porrokatuenak gazteengan ageri dira, jarrerarik tradizionalenak, aldiz, adintsuenengan. Era berean, emakumeen artean gizonen artean baino arrakasta handiagoa du berdintasunaren aldeko jarrerak adin-tarte guztietan. Hala ere, 29 urtez beherako emakume-taldea nabarmentzen da, hauen artean ia denak agertzen baitira etxeko lana berdintasunez banatzearen alde, jarrera horren alde dauden adin berbereko gizonak % 86,9 direla.

#### 4.5. TAULA. Etxeko lana berdintasunez banatu beharko ote litzateke gizonaren eta emakumearen artean? umeen zaintza guraso bien erantzukizuna ote da?, adinaren eta sexuaren arabera

|                       | 29tik beh. |             | EMAKUMEAK<br>29tik gor. |             | GUZTIRA      |            | 29tik beh. |             | GIZONAK<br>29tik gor. |             | GUZTIRA    |            |
|-----------------------|------------|-------------|-------------------------|-------------|--------------|------------|------------|-------------|-----------------------|-------------|------------|------------|
|                       | Abs.       | %           | Abs.                    | %           | Abs.         | %          | Abs.       | %           | Abs.                  | %           | Abs.       | %          |
| Etxeko lanen Banaketa |            |             |                         |             |              |            |            |             |                       |             |            |            |
| Bai                   | 414        | 97          | 761                     | 85,8        | 1.175        | 89,4       | 152        | 86,9        | 176                   | 73,3        | 328        | 79         |
| Ez                    | 10         | 2,3         | 90                      | 10,1        | 100          | 7,6        | 14         | 8           | 49                    | 20,4        | 63         | 15,2       |
| Ez d./Ez du er.       | 3          | 0,7         | 36                      | 4,1         | 39           | 3          | 9          | 5,1         | 15                    | 6,3         | 24         | 5,8        |
| Umeen zaintza         |            |             |                         |             |              |            |            |             |                       |             |            |            |
| Bai                   | 421        | 98,6        | 829                     | 93,5        | 1.250        | 95,1       | 165        | 94,3        | 216                   | 90          | 381        | 91,8       |
| Ez                    | 4          | 0,9         | 53                      | 6           | 57           | 4,3        | 7          | 4           | 20                    | 8,3         | 27         | 6,5        |
| Ez d./Ez du er.       | 2          | 0,5         | 5                       | 0,6         | 7            | 0,5        | 3          | 1,7         | 4                     | 1,7         | 7          | 1,7        |
| <b>GUZTIRA</b>        | <b>427</b> | <b>32,5</b> | <b>887</b>              | <b>67,5</b> | <b>1.314</b> | <b>100</b> | <b>175</b> | <b>42,2</b> | <b>240</b>            | <b>57,8</b> | <b>415</b> | <b>100</b> |

*Iturria:* Emakunderen 1991.eko inkesta.

Umeen zaintzaz nork arduratu behar duen galdetzean, guraso bien arteko erantzukizuna aipatzen duten iritzia nagusitzen dira, horrela erantzun dute % 95,1 emakumek eta % 91,8 gizonen. Adinaren arabera fluktuazio txikiak ageri dira, gazteek berdintasunaren aldekoagoak direla berriro ere nabaritzen dela. Erantzukizun hitza, agian, orokorregia da eta baliteke galdera horrek askori ondorengoak munduratzeko gurasoek euren gaitasunak erakusten dituzten konpromisua bururatu izana, hots, bizitzeko baldintza jakin batzuk, hala nola, zaintza, mantenua, hezkuntza, etab., bermatu beharra. Hala ere, erantzukizun zehatzagoi bagagozkie, dedikazioari eta abarrei hain zuzen, umeen eguneroko zaintzaz benetan arduratzen direnak emakumeak direla ikusten dugu, etxekoandreak nahiz etxetik kanpo lanean dihardutenak alegia.

Orain arte esandakoaren arabera, etxeko lanen berdintasunezko banaketa izango bada, praktikan egingarria izateko ezinbesteko baldintza bat bete beharko du, hots, sexu bien habilezia eta trebaketa ere antzerakoa izatea. Alabaina, antza denez ez da hala gertatzen, edo zehazkiago esateko, ez da hala denik uste. Eranskinen IV. 7 taulan agertzen den bezala, etxeko lanak egiteko emakumeek gizonen baino gaitasun handiagoa dutelako iritzia da nagusi. Sexuka, gizonen artean emakumeen artean baino gehiago nabarmentzen da iritzia hau, % 68ko eta % 57,1ko portzentaiekin hurrenez hurren.

Galdera honi dagokionez, ezberdintasun nabarmen bat dago adinaren arabera: iritzia honen aldeko gazteak gutxiago dira helduekin konparatuz, ados ez daudenetatik 15 eta 29 urte bitarteko emakumeak nabarmentzen direla, hauetako % 52,2 ez baitaude ados emakumei atxekitako ustezko habilezia handiago horrekin, 30 eta 44 urte bitarteko emakumeen % 44,5a bezalaxe.

Planteatu beharrekoa, hala ere, zera da: etxeko lanetan aritzeko emakumeen gaitasun handiago hau berezkoa edo sorkurazkoa ote den ala, aitzitik, gizonengan eta emakumeengan kalitate ezberdinak garatzera daraman sozializazio-prozesu baten ondorioz sortua. Arazo bi hauek bereizten ez badira, gizarte eta ekonomi eremuen sexu-azigrazioa finkatu eta sendotu baino ez da egiten, sexu bakoitzari "berezko" zaionaren kultur asmakizuna oinarritzat harturik.

Ezkonduen artean, berriz, hedatuago ageri da etxeko lanetarako emakumeek trebeagoak direlako ustea: emakume guztiak kontutan harturik hala uste dutenak % 57,1 diren bitartean, ezkonduetako emakumeen artean % 64,5 dira hala deritzotenak, eta gizonen artean % 68 eta % 74,6a iristen dira portzentaia hauek, eranskinen IV.8 taulan agertzen den bezala. Adinaren eragina talde honetan ere nabari den arren, inkestaturiko guztiak kontutan hartzen direnean baino gutxiago, beti ere.

Lan munduarekiko loturak, bestalde, ikuspegi ezberdina ematen die emakumei auzi honetan. Hortaz, 4.6 taularen arabera, etxetik kanpo lan egiten duten emakumeen artean iritzia horren aldekoak % 50era iristen dira, aurkakoak bezalaxe, emakume guztien artean, aldiz, % 70,3 dira emakumeek gaitasun handiagoa dutela uste dutenak.

Gainontzeko emakume langabeei dagokienez, gehienak, % 53,1, baieztatu horren aurka agertzen dira, hauetako gehienak ikasleak direla. Ezadostasun hauen arrazoiak bat zera izan daitezke: etxetik kanpo lan egiten duten emakumeek gehiagotan banatzen dutela etxeko lana gizonekin. Eta gainera, emakume hauek, etxekoandreei ez bezala, ez zaie horren beharrezkoa euren gizarte-zeregina legebidezkotzea etxe-eremukoaren mugetan. Haiek beste eremu batzutan ere gizartearen aintzatespena jasotzen duten bitartean, etxekoandreak etxe-eremukoan aurkitu beharra daukate aintzatespen sozial hori, eta hortik dator etxeko lanetarako trebetasun handiagoa erakutsi behar hori.

#### 4.6. TAULA. Emakumeak gizonak baino hobeak dira etxeko lanetan. Emakumeen iritzia lan-motaren arabera

|                 | LANDUNAK   |             | ETXEKOANDR./JUBIL. |             | GAINONTZ. LANGABEAK |             | GUZTIRA      |            |
|-----------------|------------|-------------|--------------------|-------------|---------------------|-------------|--------------|------------|
|                 | Abs.       | %           | Abs.               | %           | Abs.                | %           | Abs.         | %          |
| Bai             | 162        | 46,4        | 476                | 70,3        | 112                 | 38,9        | 750          | 57,1       |
| Ez              | 172        | 49,3        | 177                | 26,1        | 153                 | 53,1        | 502          | 38,2       |
| Ez d./Ez du er. | 15         | 4,3         | 24                 | 3,5         | 23                  | 8           | 62           | 4,7        |
| <b>GUZTIRA</b>  | <b>349</b> | <b>26,6</b> | <b>677</b>         | <b>51,5</b> | <b>288</b>          | <b>21,9</b> | <b>1.314</b> | <b>100</b> |

*Iturria:* Emakunderen 1991.eko inkesta.

Lanen eta erantzukizunen banaketaren berdintasuna neurtzeko beste era bat etxe-arloko zereginei loturiko ihardueretan erabakiak hartzerako berdintasunari dagokio. Erantzunak oso banaturik badaude ere, finean, ekintza-arloak mugatzeko joera bat antzematen zaie, sexuaren arabera lan ezberdinak egitean nabari den etxeko lana eta etxetik kanpokoaren arteko zatiketa iraunarazten duen joera alegia.

Emakumeak eta gizonak bat datoz familian erabakiak zeinek hartzen dituen argitzerakoan. Eranskinen IV.9 taularen arabera, erabaki gehienak bion artean hartzen badira ere, batzutan bereizketa garbia nabari da. Aisia eta umeen etorkizuna bion artean erabakitzen dira, baina "etxeko kontuak" eta familiaren aurrekontua antolatzeke modua emakumeen erabakipean daude. Teknika arlokoak, alderantziz, konponketak edo etxeko gasturik garrantzizkoenetako bat izan ohi den kotxe-erosketa gizonen erabakitzen dituzte.

Ezkondutako emakumeak okupazioaren arabera kontutan hartuz gero, familiaren erabakiak hartzei dagokionez, ezberdintasun bat baino ez da ageri landunen eta langabeen artean, hau da, azken hauek haiek baino gehiagotan arduratzen direla familiaren aurrekontuaz, % 36 eta % 25,8, hurrenez hurren. Zeregin hau emakumearen ardurapekoa izan ohi da eta emakumeak lan egiten dueneko familietan erabaki hau konpartituagoa izatea nolabaiteko aldaketaren erakusgarri izan daiteke, nahiz eta gainontzeko erabakietan ezer gutxi aldatu den, hortaz, gertaera hau arrazoitzeko beste argudioren bat bilatu beharra dago, halaberrez gertatu izana baztertu gabe. Ikus eranskinen IV.10 taula.

#### ETXEKO LANAREKIKO POZTASUNA

### 4.1.4

Emakumeen hezkuntza-maila edozein izanik ere eta soldata baten truke lan egin arren, familia eta etxe-arloko lana nahiz antolaketa, den dena edo ia dena, finean emakume helduek eraman beharreko zama izan ohi dela kontutan harturik, rol hau betetzean erdietsitako poztasunaren neurketak emakumeek somatzen duten gizarte-aintzatespenera garamatza eta, beraz, norberarekiko uste onera.

Etxeko lanetan ihardun ohi dutenei lan hori egiteagatiko poztasunaz galdetu zitzairen. Galdera honi erantzun dioten gizonak oso gutxi izan dira eta honek, berriro ere, sexu bien arteko iharduera-banaketa garbia agerian uzteaz gainera, etxeko ihardunari legokiokkeen statusa dela eta ez dela, are gehiago beste alde batetik aitortzen zaion gizarte-garrantzia aintzat harturik, nabari diren iritzi kontrajarrien erakusten dizkigu. Emakumeei, soldatapeko iharduerarik duen ala ez berdin dela, etxeko iharduna dagokie; gizonen kasuan, berriz, etxeko lanetan hoain gutxitan iharduteak ez du emakumeen lan iharduerarekin zerikusirik eta, emakumeekin gertatzen den bezala, balio ezberdinak atxiki zaizkien iharduerak sexuaren arabera banatzeko ohiturari loturik daude.

Etxe-arlokoa dela eta antzematen den ez-ulertze orokorra, hura produkzio-lanaren ikuspegitik aztertu nahi ez denetik eta soldatapeko ekonomi iharduerari lotzen zaizkion aurikuspen, antolaketa eta garrantzia hari aitortzen ez zaizkionetik sortzen da. Eta hau etxe-arloko testuigurua-ren eta emakume izatearen artean ezartzen den lotura hertsitik dator, gauzak horrela, emakume izate hori gizarte-statusa garatzeko abiapuntu den produkzio-prozesutik banandu egiten baita.

Taldearen iritzia ia erdibiturik ageri da, ia % 50ean, hortaz, batetik, poztasun handia edo nahikoa adierazten dutenak, eta bestetik, poztasun txikia edo bat ere ez diela ematen aitortzen dutenak ditugu, haiek gehixeago direla. Iritzi hau, 4.7 taulan ikusten den bezala, ezer gutxi aldatzen da sexuaren arabera.

#### 4.7. TAULA. Etxeko lanengatiko poztasuna, sexuaren arabera (etxeko lanak egin ohi dituztenak)

|                 | EMAKUMEAK  |             | GIZONAK      |             | GUZTIRA      |            |
|-----------------|------------|-------------|--------------|-------------|--------------|------------|
|                 | Abs.       | %           | Abs.         | %           | Abs.         | %          |
| Handia          | 34         | 19          | 215          | 17,6        | 249          | 17,8       |
| Nahikoa         | 66         | 36,9        | 429          | 35,1        | 495          | 35,4       |
| Txikia          | 62         | 34,6        | 429          | 35,1        | 491          | 35,1       |
| Bat ere ez      | 7          | 3,9         | 137          | 11,2        | 144          | 10,3       |
| Ez d./Ez du er. | 10         | 5,6         | 11           | 0,9         | 21           | 1,5        |
| <b>GUZTIRA</b>  | <b>179</b> | <b>12,8</b> | <b>1.221</b> | <b>87,2</b> | <b>1.400</b> | <b>100</b> |

*Iturria:* Emakunderen 1991.eko inkesta.

Harrigarria da gizonek horren pozik agertzea, etxeko eginkizunetan oso denbora gutxi emateaz gainera, egiten dituzten lanak oso mugatuak baitira. Hemen bi interpretazio izan daitezke. Batetik, etxean presentzia aktiboagoa bereganatu duten heinean, gizonak, egoera berri hau kontsolagarri suertatzen zaiela, familiaren elkarbizitzari dagozkion alderdi guztietan ere partehartze handiagoa dutelakoan daude. Bestetik, emandako erantzuna emakumeei zuzendua dela ulertu daiteke, hau da, etxeko lanen egile nagusia emakumea denez gero, berau lan horrekin pozik dagoen ala ez baloratuz.

Lehenengoa balitz, etxe-arlokoan emakumeei eta gizonei atxikitzen zaizkien betekizunen arteko ezberdintasuna arindu eta leuntzeko ate bat zabalik izango genuke. Bigarren balizkoan, alderantzizkoa dakusagu, hots, zereginen zatiketa eta eremuen bereizketa finkatu eta sendotu egingo litzateke etxe-arlokoa emakumeen eta ez beste inoren ardura pean utziz.

Emakumeen poztasuna handiagoa ala txikiagoa da adinaren, egoera zibilaren eta ihardueraren arabera, eranskinen IV.11 taula. Ezkonduen artean, oro har, poztasun epelagoa somatzen da, % 55 baino gehiago ez dago bat ere pozik edo pixka bat baino ez. Datu hau erabat lotzen zaio poztasun-ezarik nabarmenena emakumerik adintsuenen artean izateari: 45 eta 59 urte bitarteko emakumeetarik % 60 ez da bat ere pozik edo pixka bat baino ez, 60 urtez gorako artean halakoak % 71,5era iristen direla. Etxekoandreei dagokionez, % 60tik gora dira etxeko lanarekin pozik ez daudela adierazten dutenak. Gauzak honela, etxeko lanak egitetik poztasunik urriena erdiesten dutenak, hain zuzen ere, etxeko lanetan baino ez dihardutenak berak direla esan daiteke ondorio gisa.

Etxeko lanarekiko gutxiespena eta aintzatespenik eza argi eta garbi azaltzen da, beste behin ere, erantzun dutenen iritzietan, bai gizonak eta bai emakumeek lan gogaikarria, monotonoa eta eskertzarrekoa dela baiteritzote, ordu gehiegi eman behar zaizkiola azpimarratuz, 4.8 taula.

#### 4.8. TAULA. Etxeko lanari buruzko iritzia (etxeko lanak egin ohi dituztenak)

|                           | EMAKUMEAK    |             | GIZONAK    |             | GUZTIRA      |            |
|---------------------------|--------------|-------------|------------|-------------|--------------|------------|
|                           | Abs.         | %           | Abs.       | %           | Abs.         | %          |
| Ordu asko eman behar dira |              |             |            |             |              |            |
| Ez                        | 111          | 9,1         | 23         | 12,8        | 134          | 9,6        |
| Batzutan                  | 188          | 15,4        | 23         | 12,8        | 211          | 15,1       |
| Bai                       | 917          | 75,1        | 131        | 73,2        | 1.048        | 74,9       |
| Ez d./Ez du er.           | 5            | 0,4         | 2          | 1,1         | 7            | 0,5        |
| Gogaikarria/monotonoa     |              |             |            |             |              |            |
| Ez                        | 197          | 16,1        | 25         | 14          | 222          | 15,9       |
| Batzutan                  | 246          | 20,1        | 38         | 21,2        | 284          | 20,3       |
| Bai                       | 771          | 63,1        | 115        | 64,2        | 886          | 63,3       |
| Ez d./Ez du er.           | 7            | 0,6         | 1          | 0,6         | 8            | 0,6        |
| Eskertzarrekoa            |              |             |            |             |              |            |
| Ez                        | 159          | 13          | 25         | 14          | 184          | 13,1       |
| Batzutan                  | 129          | 10,6        | 23         | 12,8        | 152          | 10,9       |
| Bai                       | 921          | 75,4        | 124        | 69,3        | 1.045        | 74,6       |
| Ez d./Ez du er.           | 12           | 1           | 7          | 3,9         | 19           | 1,4        |
| <b>GUZTIRA</b>            | <b>1.221</b> | <b>87,2</b> | <b>179</b> | <b>12,8</b> | <b>1.400</b> | <b>100</b> |

*Iturria:* Emakunderen 1991.eko inkesta.

Emakumeen artean, lautik hiru, egoera zibila edozein izanik ere, bat datoz etxeko lanak egiten denbora gehiegi eman beharra dagoela aipatzerakoan, eranskinen IV.12 taulan agertzen den bezala. Alabaina, ezkonduen artean gehiago nabarmentzen da lan gogaikarria eta monotonoa delako ustea. Eskertzarrekotzat jotzerakoan ere adostasuna da nagusi. Azken honi dagokionez, alargunek, bananduek eta dibortzietuek osoturiko taldea ez da horren gordin azaltzen.

Etxeko lanetan emandako denborari dagokionez, inkestari erantzun dioten emakumeek egunero batzbestekoa lau ordu ematen dute zeregin horietan. Dena den, % 22 emakumeek sei-zortzi ordu ematen ditu etxeko lanetan eta % 9k zortzi ordu baino gehiago, eranskinen IV.13 taulak erakusten duen moduan. Iharduera nagusitzat etxekoandreairena duten emakumeen artean batzbesteko dedikazio horrek gora egiten du, eguneko 5,4 ordu, eta hauetako % 16,1ek 8 or-

dutik gora ematen du etxeko zereginetan, ezkonduen batzbestekoa ere zertxobait handiagoa da, eguneko 5 ordu hain zuzen.

Emakume landunak, batzbeste, 3,2 ordu ematen ditu etxeko lanetan, hauei lan ihardunaldiari dagozkionak gehitu behar zaizkiola. Asteburuetan, gainera, batzbeste 4,3 orduko dedikaziora iristen da, baina % 18,3 emakumek zortzi ordu baino gehiago ematen dituzte larunbat eta igandeetan etxeko lanak egiten, ikus IV.14 taula.

Astegunetako batzbesteko dedikazioaren eta asteburuetakoaren arteko diferentzia txikia da: 4,3 ordu eta 4,6 ordu, hurrenez hurren. Hala ere, asteburuetan, zortzi orduz gora lan egiten duten emakumeen proportzioa gehitu egiten da eta lau ordu baino gutxiago ematen dituztena, alderantziz, gutxitu.

Asteburuan, beraz, etxeko zereginetan denbora gutxiago eman eta jolaserako astia gehitu behar omen denean, emakumeek, batzbeste, astean zehar baino ordu gehiago ematen dute etxeko eginkizunetan, eta hau ez da harritzekoa baldin eta etxetik kanpo lan egiten duten emakumeetarik gehienek erosketak eta garbiketak asteburuan batez ere egiten dituztela kontutan hartzen badugu.

## **ETXEKO LANA OGIBIDE GISA**

### **4.1.5**

Aurrez aipatu den bezala, etxeko lanetan baino ez diharduten emakumeak, oro har, ez dira oso pozik beren lanarekin, egokitu zitzaizkien eginkizunak gogaikarri, monotono eta eskertzarrekotzat dituztela. Erantzun hauek, bestalde, etxeko ihardunari, funtsezkoa izanik ere, atxiki izan zaion status eskasa isladatzen dute nolabait. Eta hau ez da emakumeen susmo hutsa, beste zenbait gizataldetan ere uste berbera nagusitu baita.

Izan ere, inkestari erantzun diotenetarik gehienek esanetan "jendeak etxeko erantzunkizunari eta eginkizunak egiteari ez die zor zaien garrantzia ematen". Eranskinen IV.15 taulako datuen arabera, iritzi honek indar handiagoa du emakumeengan gizonengan baino, % 81 eta % 68, hurrenez hurren, egoera zibila edozein izanik ere. Era berean, gazteen artean ere indartsu dago, adinak aurrera egin ahala gizartearen aintzatespena duen lana delako ustea zabalduz baitoa.

Aintzatespen-eza ez dator bat etxeko lanei eskuesten zaizkien garrantziarekin, etxeko funtzionamendu egokia bermatzeko funtsezkotzat jotzen baitira inkestaturiko gehienek erantzunetan, % 93 emakumek eta % 87 gizonek hala diote, behinik behin.

Etxeko iharduera beste lanbide batzurekin alderatu da, lantegiko langilea izan ezik, zerbitzu sektorekoak diren lanbideekin, hain zuzen, izan ere, lanbide hauetan etxean egiten denaren antzekoa egiten baita, hots, garbiketa, erosketa, janariak prestatzea, senitartekoen zaintza, etab. Denetarik erantzunak atera dira, 4.9 taula. Etxeko lanaren aldean, merkataritzako saltzailearena eta ileapaintzailearena omen dira hura baino errazagoak, % 35 eta % 34en ustez, hurrenez hurren. Erizain, zerbitzari eta, batez ere, lantegiko langilearen lana, aitzitik, etxeko lana baino nekezagoak dira % 42tik % 50erainoko portzentaiez. Nolanahi ere, % 19tik % 22ra emakume-

ren iritziz, lanbide horiek etxeko lana bezain nekezak dira. Ezkondutako gizonen erantzunek ere antzerako pentsamoldea erakusten dute.

#### 4.9. TAULA. Etxeko lana ..... baino nekezagoa dela uste dut, sexuaren arabera

|                    | EMAKUMEAK    |            | GIZONAK    |            |
|--------------------|--------------|------------|------------|------------|
|                    | Abs.         | %          | Abs.       | %          |
| Saltzailea         |              |            |            |            |
| Ez                 | 467          | 35,5       | 162        | 39         |
| Berdin             | 301          | 22,9       | 91         | 21,9       |
| Bai                | 438          | 33,3       | 110        | 26,5       |
| Ez d./Ez du er.    | 108          | 8,2        | 52         | 12,5       |
| Ileapantzailea     |              |            |            |            |
| Ez                 | 453          | 34,5       | 134        | 32,3       |
| Berdin             | 294          | 22,4       | 91         | 21,9       |
| Bai                | 430          | 32,7       | 140        | 33,7       |
| Ez d./Ez du er.    | 137          | 10,4       | 50         | 12         |
| Zerbitzaria        |              |            |            |            |
| Ez                 | 575          | 43,8       | 193        | 46,5       |
| Berdin             | 281          | 21,4       | 99         | 23,9       |
| Bai                | 329          | 25         | 74         | 17,8       |
| Ez d./Ez du er.    | 129          | 9,8        | 49         | 11,8       |
| Lantegiko langilea |              |            |            |            |
| Ez                 | 658          | 50,1       | 228        | 54,9       |
| Berdin             | 251          | 19,1       | 78         | 18,8       |
| Bai                | 265          | 20,2       | 58         | 14         |
| Ez d./Ez du er.    | 140          | 10,7       | 51         | 12,3       |
| Erizaina           |              |            |            |            |
| Ez                 | 555          | 42,2       | 182        | 43,9       |
| Berdin             | 280          | 21,3       | 96         | 23,1       |
| Bai                | 344          | 26,2       | 83         | 20         |
| Ez d./Ez du er.    | 135          | 10,3       | 54         | 13         |
| <b>GUZTIRA</b>     | <b>1.314</b> | <b>100</b> | <b>415</b> | <b>100</b> |

*Iturria:* Emakunderen 1991.eko inkesta.

Etxeko lanaren aldean, erreferentzia gisa hartu diren lanbideak nekezagoak ote diren galde-tzean emakumeengandik jasotako erantzunak ez dira aldatzen lan ihardueraren arabera. Erans-kineko IV.16 taulan ikusten den bezala, etxekoandreak eta etxetik kanpo lan egiten duten emakumeek antzerako iritzia agertzen dute etxeko lanari buruz.

#### ETXEKOANDREEN EGUNEROKOA

## 4.1.6

Etxekoandreak beren eguneroko bizimodua nola hartzen duten, mundu horren inguruan dabilen gizarte-estereotipoa zein den eta etxekoandreak beraiek zernolako balorazioa egiten duten, hauexek dira, hain zuzen ere, inkestaren azken galderak.

Hirian eta industrian, batez ere, oinarrituriko gaur egungo gizarte honetako etxeoandreen munduaren ezugarri nagusiaz galdetzerakoan, etxeo lana egiten deneko isolamendua aipatzen da. Emakumeak dira, gizonak baino gehiagotan, etxeoandreen bakardadea aipatzen dutenak, % 69,6 eta % 55,2ko portzentaiez hurrenez hurren, eranskinako IV.17. taulan azaltzen den bezala. Galdera honen erantzunari dagokionez, ez da adinaren arabera ezberdintasun nabarmenik antzematen, nabarmenezkotan 45 eta 59 urte bitarteko emakumeak nabarmen-tzen dira gainontzekoena baino portzentaia handixeago batez, % 65,5az hain zuzen. Gizonen artean, gai honekiko desadostasunik handiena adintsuenek adierazten dute, dena den, talde honetan askotxo dira erantzunik eman ez dutenak ere.

Etxeko lana egiteak ahalbidetzen duen burujabetasunaren aldetik, etxeoandreen egoera gainontzeko lanik gehienena baino hobea dela esan daiteke, azken horiek arauen, ordutegien eta abarren menpe egoten baitira. Ikuspegi hau gehiago azpimarratzen dute gizonak, % 17, emakumeak baino, % 12. Hala ere, galdera honi gizon gutxi erantzun diotenez, gainontzeko portzentaia baliogarritasuna ere nolabait hutsaldu egiten da. Honek, beste alde batetik, gizon-talde garrantzitsu batek etxe-arloko eginkizunetikiko sentiberatasun eskasa duela erakusten du.

Etxetik kanpo lan egiten duten emakumeek etxeoandreen bakardadea azpimarratzen dute, eta gainera, etxeoandreek beraiek baino iritzi okerragoa agertzen dute. Eranskinako IV.18 taularen arabera, lan ihardueraren bat duten lau emakumetarik hiru baino gehiagok etxeoandreek bakartasuna jasan beharra daukatela adierazten dute, halako iritzia agertzen duten etxeoandreek % 68 direla. Etxetik kanpo lan egiten duten emakumeek, gehienak aldi berean etxeoandree ere badirenak, beste ikuspegi batetik dakusate euren etxeo zeregina eta, euren egoera dela eta, etxeoandre huts izateak dakarren bizimodua etxetik kanpo lan egitearekin alderatu dezakete. Ikuspegi honetatik argiago ikusten dute etxeoandreen bizimoduaz jabetzen den isolamendua.

## **SEME-ALABEKIKO ETA BESTE SENIDE BATZUREKIKO ZAINZA ETA HARTUEMANAK**

## **4.2**

Familiak erakunde gisa betetzen dituen eginkizun garrantzitsuenetako bat, seme-alabekiko eta beste senitarte batzurekiko zaintza eta harremanetan datza. Zeregin hau, bi ezkontideen ardurapekoa izan beharko lukeena, finean emakumeen erantzunkizun bihurtu da, eta familia bera-ren jardunerako nahiz komunitateak jaso ohi dituen gizarte-zerbitzuak behar bezala funtzionatzeko ezinbestekoa den arren, gizarte-mailan balio eskasa aitortzen zaio.

Emakumeen etxeo lana ez balitz, bizitza pribatuaren eta gizarte-zerbitzu publikoak ematearen artean dagoen katearen funtsezko katemaila hautsiko litzateke.

Laura Balbok<sup>30</sup> azaltzen duen bezala, emakumeen laguntzarik gabe, ez legoke sendagilearen diagnostikoaren osagarri gisa gaixoei nahiz elbarriei etxean ere zor zaien zainketa medikoak ematerik eta, era berean, medizinen hartzea, beharrezko jan-neurria nahiz bestelako zainketa osagarriak ere kolokan egongo lirateke. Halaber, oso zaila gertatuko litzateke familiaren dietaren bidez edo higieena zainduz nahiz espezialistengana (dentista, pediatra eta abarregana) joanez lortzen den osasun-prebentzioa betetzea.

Gizarteak rol hau emakumeei atxikitzen dietetik, emakumeak baldintzapeturik daude lan merkatutzeko, lanean dihardutenek ere, zeregin hauek bete ohi dituzte eta.

Monografia honen beste atal batean adierazten denez, inkestari erantzun dioten iritziz, ezkontzeko arrazoi nagusienetako bat familia eratu nahia da. Hau egia bada, seme-alaben zaintzarekin, ongizatearekin eta hezierarekin zerikusirik duten iharduerak etxe-arloko gainontzeko ihardueren eta erantzunkizunen aldean, aita zein amaren ardurapecoak izan beharko lituzkeen ihardueren aldean alegia, lehentasuna dutela esan nahi du.

Alde horretatik, amaren zaintza ordezkatzan duten bestelako zaintzak, familiaz kanpoko haurtzaindegiak esate baterako, nolabaiteko polemika sortarazi zuen hasieratik. Norberaren seme-alaben zaintza gehienetan emakumeak diren pertsona arrotzen ardurapecan jartzea, aureskola-ko umeak zaintzeko bereziki prestatutik dauden profesionalak izan arren, nolabait, zalantzan jartzen omen zuen, familia, eta batez ere ama, seme-alabekiko erantzunkizunari aurre egiteko gai ote zen. Haurtzaindegiak erabiltzen direnetik, agerikoa da zerbitzu hau erabat mesedegarria suertatu zaiela berorretaz baliatzen diren familiei, bai amak enpleguren bat duenean, eta bai ama langabea izanik ere. Beste alde batetik, amatasun nahiz aitatasunagatiko baja ahalbidetzen duten lan-legeriaren arloko aurrerapenei esker, haurraren lehenengo bizialdian ama funtsezkoa izateaz gainera ia ordezkazina delako pentsamoldea ere praktikan zalantzan jarri da, zeregin hori aitak edo beste pertsona heldu batek ere bete dezakeela planteatu delarik.

## SEME-ALABEN ZAINTZA

### 4.2.1

Egindako zaintzaz eta nahiko litzatekeenaz galdetzean, 4.10 taula, gehienetan seme-alaba txikiak amak berak zaindu dituela erantzuten da, aitak zeregin horretan lagundu gabe: seme-alabak dituztenen artean, % 70,1 amek, aitaren laguntzarik gabe edo senitartekoengana nahiz erakundeengana laguntza eske jo gabe, seme-alaben zaintzaz eurak zuzenean arduratu zirela adierazten dute; % 9,6k etxeko umezaina ordaindu zutela, eta % 5,4k senitarteko baten laguntza izan zuela erantzun dute.

<sup>30</sup> Balbo, Laura. "Hablando del Welfare State: la sociedad asistencial, la sociedad de los servicios y la sociedad de la crisis". *Inchiesta* delakoan, 46-47 zk., 1980eko Uztaila-Urria.

#### 4.10. TAULA. Seme-alaben zaintza; egiazko soluzioak eta nahi direnak

|                                  | EGIAZKO ZAINTZA:       |            |            | NAHI DEN ZAINTZA:      |            |            | NAHI DEN ZAINTZA:        |            |            |
|----------------------------------|------------------------|------------|------------|------------------------|------------|------------|--------------------------|------------|------------|
|                                  | SEME-ALABAK DITUZTENAK |            |            | SEME-ALABAK DITUZTENAK |            |            | SEME-ALABARIK EZ DUTENAK |            |            |
|                                  | EMAKUMEAK              | GIZONAK    |            | EMAKUMEAK              | GIZONAK    |            | EMAKUMEAK                | GIZONAK    |            |
|                                  | Guztira                | Landunak   | Guztira    | Guztira                | Landunak   | Guztira    | Guztira                  | Landunak   | Guztira    |
| Amak                             | 70,1                   | 42         | 73         | 19,8                   | 14,1       | 20,3       | 10,9                     | 10,4       | 12         |
| Aitak                            | 0,9                    | 1,9        | —          | 0,3                    | 1,1        | 0,5        | 0,4                      | —          | —          |
| Batak zein besteak               | 8,8                    | 9,4        | 13,1       | 19,9                   | 23,4       | 20,4       | 23,4                     | 19,6       | 29,3       |
| Hautzaindegia                    | 4,2                    | 7,6        | 4,9        | 23,9                   | 22,1       | 21,9       | 32,8                     | 38         | 26,1       |
| Ordaindutako umezainak etxean    | 9,6                    | 25,4       | 4,9        | 15,6                   | 23,2       | 14,1       | 12,2                     | 13,9       | 10,1       |
| Senitarteko batek etxean         | 5,4                    | 13,1       | 4,5        | 12,9                   | 8,6        | 10,7       | 10,2                     | 9,8        | 11,5       |
| Umeak familiaren etxera eramanez | 1,4                    | 3,8        | 0,5        | 1,2                    | 1,5        | 0,9        | 1,8                      | 1,1        | 1,4        |
| Beste ama bati ordainduz         | 0,3                    | 0,6        | —          | 0,3                    | 1,1        | —          | 0,3                      | 0,8        | —          |
| Amak                             |                        |            |            |                        |            |            |                          |            |            |
| Amak lanari utziz                | 2,1                    | 3,3        | 2,9        | 4,4                    | 3,9        | 10,1       | 3,1                      | 3,4        | 2,8        |
| Beste batzuk                     | 0,6                    | 1,2        | —          | 0,8                    | 1,1        | —          | 0,8                      | 2,2        | 0,9        |
| Ez d./Ez du er.                  | 0,9                    | 0,5        | 0,5        | 2                      | 1,8        | 1,1        | 5,3                      | 2,8        | 7,2        |
| <b>OINARRIA</b>                  | <b>813</b>             | <b>202</b> | <b>212</b> | <b>813</b>             | <b>202</b> | <b>212</b> | <b>501</b>               | <b>178</b> | <b>203</b> |

*Iturria:* Emakunderen 1991.eko inkesta.

Gainontzeko bost hautabideak inkestaturikoen % 5ak baino ez ditu aukeratu. Amatasuna dela kausa lanari uztearen alde % 2,1 ama agertzen dira. Umeak etxeak zaintzen dizkieten ordaindutako umezainak edo beste senitarteko batzuk hobesten dira hartzaindegien aurretik, hauek inkestaturiko emakumeetarik % 4,2k baino ez dute jo, alabaina, nahiko litzatekeen zaintzaz galdetuz gero, hartzaindegietara joko luketenak, % 23,9, ordaindutako umezainez baliatuko liratekeenak, % 15,6, baino gehiago dira, eta honek zera erakusten digu: hartzaindegia umezainak baino gutxiago erabili badira, garestiegiak eta urriak direlako, eta ordutegi nahiz kokapen desegokiak dituztelako izan dela.

Enpleguen bat duten emakumeek, ama guztiekin alderatuz gero, zenbait berezitasun erakusten dituzte seme-alaben zaintzari begira hartutako irtenbideari dagokionez. Berezitasunik azpimarragarrienak hauexek dira: norberaren partehartze urriagoa, ordaindutako umezainari garrantzi handiagoa ematea eta umeak etxean zainduko dituen senitarteko batengana gehiagotan jotzea.

Aurreko datuen arabera, lanen bat duten emakumeen familiek, seme-alaben zaintza konponterakoan, gehiagotan jotzen dute kanpoko laguntza bilatzera, hau da, ordaindutako umezainengana eta ama, amaginarreba eta abarregana, hartzaindegiez baliatzera baino, nahiz eta, lehenago ere aipatu den bezala, familiek beste zaintza-mota batzuk nahiago dituzten, izan ere, hobesten diren aukerak aita zein amaren zaintza, hartzaindegia eta etxean ordaindutako umezaina baitira, hurrenez hurren. Eta gai honetaz iritzi berberaz ageri zaizkigu inkestari erantzun dioten amak zein aitak.

Seme-alabak dituzten gizonak seme-alaben egiazko zaintzan amari dagokion zereginaren garrantzia azpimarratzen dute, % 73k, emakumeek aldiz % 70,1ek. Gainera, ez dute iritzi berbera euren laguntzaren garrantzia neurtzerakoan, % 13,1 gizonentzat eta % 8,8 emakumeentzat, ordaindutako umezainaren lanari ere eragin txikiagoa ematen diotela, % 4,9.

Seme-alabak dituztenek haiek zaintzeko onartu duten soluzioa ez da nahitaez hoberena, euren iritzi, amak eta aitak lan egiten dutenean. Galdeketa aipatutako soluzioei dagokienez, amaren

garrantzia erabat murrizten da benetan duen eraginaren aldean. Guraso biek lan egiten dutenean, emakume eta gizonetarik % 20k baino ez du ama aipatzen seme-alabak zaintzeko soluziorik hoberena bezala.

Hobetsitako zaintzaileen artean amak behera egiten duen heinean, haurtzaindegiek gora egiten dute, izan ere, seme-alabak dituzten halako ametak % 23,9k irtenbiderik egokiena dela uste baitute, haurtzaindegia benetan erabiltzen dutenak % 4,2 baino ez badira ere. Ondoren, gurasoetako bata zein besteak burututako zaintza aipatzen da % 19,9az, eta ordaindutako umezaina eta senitartekoak etxean zaintzea, % 15,6az eta % 12,9az.

Seme-alabak dituzten gizonak ere bat datoz haurtzaindegia, aita zein amak eta amak bakarrik direlako soluzioak lehenengo hiru tokietan jartzerakoan, baina, horiekin batera, lanari utzi behar badio ere, zaintza amaren ardurapean uzteko irtenbideak ere % 10,1az ageri dela azpimarratu beharra dago.

Seme-alabak dituzten emakumeen artean, ordea, askoz ere gutxiago dira, aita eta ama lan egiten dutenean, seme-alaben zaintzaz ama bakarrik arduratu behar dela esaten dutenak, aitzitik, aita zein amaren zaintza, % 23,4az, eta ordaindutako umezaina, % 23,2az, gehiagotan aipatzen direla.

Seme-alabarik ez dituzten emakumeei, berriz, familian baino gehiago berdintasunean oinarritutako jarrerak antzematen zaizkie, izan ere % 32,8k haurtzaindegia hobesten baitute, eta ondoren, % 23,4k aita zein amaren zaintza.

Erantzunen arabera, haurtzaindegiak garrantzizkotzat jotzen badira ere, argi dago seme-alaben zaintza erabaki behar denean etxean eta etxekoengan oinarritutako irtenbideak hobesten direla. Hala eta guztiz ere, lehenago aipatu den bezala, lau ametak batek eta ama ez diren hiru emakumetak batek haurtzaindegiari deritza irtenbiderik egokiena. Paradoxa galanta dugu, beraz, inkestari erantzun diotenen artean seme-alabak dituztenetarik % 4k baino ez eramatea beren seme-alabak haurtzaindegietara, aita eta amak lan egiten badute, irtenbiderik hoberena dela esaten dutenak ia sei bider gehiago izanik. Datu honek zera erakusten du, dela gutxiegi direlako, edo ekipamendu urria eta ume gehiegi izanik kalitate gutxi dutelako, dela garestiegiak gertatzen direlako, haurtzaindegietako zaintzari egotzi ohi zaizkion akatsak direla medio, erreallitatea eta nahi dena elkarrengandik urrun daudela.

Haurtzaindegiak beharrezko zerbitzutzat jotzen badira ere, ez omen da zerbitzu egokia biztanle gehienentzat. Halako zerbait gertatzen bide zaie soldatapeko ihardueraren bat duten emakumeei, haurtzaindegiek zati batean baino ez baitzikiete beren gain dauden etxeko eginkizunek sortarazitako arazoak. Horregatik gertatzen zaio hain garrantzizkoa talde honi, etxekoandreei ez bezala, etxeko laguntza ordaindua delako irtenbidea, % 25,4 eta % 3,9 hurrenez hurren.

Jarraian, haurtzaindegiari loturiko zenbait arazo aztertzen dira, hala nola, ordutegia, bertaratzeko adina eta haurrak zaintzeko zerbitzu hauen beste ezaugarri berezi batzuk.

Umeak haurtzaindegian ematen dituzten orduak dagokienez, 4.11 taula, umeek bertan, bataz-beste, lau ordu edo lau ordu t'erdi ematea omen litzateke egokiena. Batazbesteko berdintsuak azaltzen dira inkestaturikoen artean, seme-alabarik edo lanik izatea ala ez izateak ezer gutxi aldarazten dituela erantzunak.

Deigarria gertatzen da, bestalde, egokitatzat jotzen den ordutegi hau ume bat zaintzen eman beharreko orduen aldean aski urria izanik, ez dirudiela oro har lan ihardunaldi osoan diharduten

gurasoen baharrizanetarako hain egokia suertatu daitekeenik. Hala ere, aipatu behar da, seme-alabak dituzten emakumeek gizonak baino ordutegi luzexeagoaren alde agertzen direla, 4,5 ordu eta 4,3 ordu batzbestek.

#### 4.11. TAULA. Haurtzaindegietan egun bakoitzeko gehienez eman behar den ordu-kopurua

|                  | EMAKUMEAK<br>GUZTIRA | SEME-ALABAK BAI      |            |                    | SEME-ALABARIK EZ     |            |                    |
|------------------|----------------------|----------------------|------------|--------------------|----------------------|------------|--------------------|
|                  |                      | EMAKUMEAK<br>Guztira | Landunak   | GIZONAK<br>Guztira | EMAKUMEAK<br>Guztira | Landunak   | GIZONAK<br>Guztira |
| Eguneko ordu-kp. | 4,42                 | 4,5                  | 4,6        | 4,3                | 4,3                  | 4,4        | 4,3                |
| Ez d./Ez du er.  | 22,6                 | 23,5                 | 19,1       | 33,3               | 21,2                 | 15,8       | 33,3               |
| <b>OINARRIA</b>  | <b>1.314</b>         | <b>813</b>           | <b>202</b> | <b>212</b>         | <b>501</b>           | <b>178</b> | <b>203</b>         |

*Iturria:* Emakunderen 1991.eko inkesta.

Beste eztabaidagai bat haurtzaindegian hasteko adinik egokiena da. Eranskinen IV.19 taulan ikusten denez, % 12,7 emakumeren iritziz umeak ez du haurtzaindegira joan beharrik, aitzitik, inkestaturiko lau emakumetarik batek baino gehixeagok, % 26,2k hain zuzen, urte bat egin ondoren bertaratu behar delakoan dago eta, ia % 45ek geroago, urtebetera iritsi ez diren umeak etxean zaindu beharra azpimarratzen dutela.

Iritzi ezberdinak ageri dira seme-alabak izan ala ez izatearen arabera. Seme-alabarik ez dituzten artean, haurtzaindegian lehenago hasteko iritziak ugaritzen dira eta, alderantziz, baliabide horretaz inoiz ere baidatuko ez zirenen portzentaia asko jaisten da, % 7,2, seme-alabak dituztenen % 16,1aren aldean. Jokabide honetara daraman arrazoiak, behar bada, adinaren eta seme-alabarik ez izatearen arteko loturan aurkitu liteke, eta horrela, talde honek gazteenen iritzia erakutsiko luke, haurtzaindegien aldeko jarrera dutenena alegia. Nolanahi ere, litekeena da, amatasuna bizi izanak eta horren ondorioz umeen beharrizanen berri zehatzagoa izateak hasierako haurtzaroan amaren zaintza oso garrantzizkoa delako pentsamoldearen pizgarri suertatzea.

Gizonetarik gehienak ere lehenengo urtea bete ondoren umeak haurtzaindegietara eramatearen alde daude, hala diote % 42k. Kasu honetan ere, seme-alabak dituztenen eta ez dituztenen arteko ezadostasuna nabari da, aitek ez dituzte oso gogoko haurtzaindegiak eta umeak lehen urtea bete aurretik haietan sartzeari muzin egiten diote, besteei, aldiz, onargarriagoak deritzete biei. Erantzunik ematen ez dutenen portzentaia ere nabarmena da, gai honekiko interesik eza edo ezezagutzea erakusten duena, gizon guztien kasuan % 13ra iristen dira erantzuten ez dutenak eta seme-alabarik gabekoen artean % 17,4ra.

Emakumeek gai honetaz duten iritzian adinak duen eragina ere aztertu nahi izan da, eranskinen IV.20 taula. Eta eragin hori, are nabarmenagoa da haurtzaindegia erabiliko zen ala ez erabakitzerakoan, umeentzat haurtzaindegia egokia den ala ez esaterakoan baino. Hortaz, zenbat eta adintsuagoa izan, seme-alabarik izan ala ez izanik ere, orduan eta gehiago dira hautabide hau baztertzen duten emakumeak. Horrela, 45 eta 59 urte bitarteko emakumeek dagokienez, amen artean, % 17,3k bazter uzten dute baliabide hau, seme-alabarik ez duten % 18,5 emakumek bezala; 60 urtez gorako emakumeen kasuan, berriz, portzentaia horiek % 25a eta % 24a jotzen dute, hurrenez hurren.

Lehenengo urtea bete baino lehen umeak haurtzaindegira eramatea gogokoen duten emakumeak, berriz, 30 eta 44 urte bitartekoak dira, % 12tik gora seme-alabak badituzte, eta % 25 seme-alabarik gabekoen artean. Ondoren 15 eta 29 urte bitartekoak daude, eta gainontzekoen artean oso gutxi dira hile gutxiko umea haurtzaindegira eramateko aukera baliagarria izan zitekeela uste dutenak. 45 eta 59 urte bitarteko ametak % 5ak besterik ez eta seme-alabarik gabeko emakumeen % 3,7ak baino ez dute onartzen urtebete ere ez duten umeak haurtzaindegira eramateko hautabidea; adintsuagoak direnen artean % 4,2ak baino ez du onartzen aukera hau.

Seme-alaben zaintzarekiko erantzunkizuna amarena bezala, aitarena ere izan ohi ez dadin bitartean, lanen bat duten emakumeek batera eraman behar dituzte seme-alaben zaintza eta lan iharduera, eta askotan ez dute familiaren laguntzarik izaten horretarako, edo ez zaie interesgarria suertatzen laguntza horretaz baliatzea. Hala ere, umea haurtzaindegiratzeko adinik egokienari buruzko iritzia azaltzerakoan, eranskinen IV.21 taulan ikusten denez, ez da ezberdintasun adierazgarriarik agertzen landunen eta langabeen artean, aintzitik, ezberdintasuna seme-alabak izan ala ez izatearen ondorioz eta, beraz, adinaren eraginez suertatzen dira. Nolanahi ere, landunek umeak haurtzaindegira txikiagoak direnean eramateko prest daudela antzematen da, hiru hile bete aurretik eta urte bat egin aurretik direlako kategorien bitartean portzentaiazko hiru puntutako diferentzia nabari dela.

Kontutan izan behar da, dena den, galdera hau umea haurtzaindegian sartzeko adin egokia mugatzeko egin dela. Baliteke egokitutako jotzen den adina eta amen nahiz familien benetako beharrianak bat ez etortzea, eta horrela, praktikan euren seme-alabak haurtzaindegira bidaltzen dituzten amen benetako nahia bestelakoa izatea. Alde honetatik, interesgarria litzateke umeak haurtzaindegian sartzen direneko benetako adinari buruzko datuak ezagutzea.

Haurtzaindegietako zaintza dela eta gehien baloratzen diren alderdiei dagokienez, 4.12 taula, beste ume batzuekiko hartuemanak azpimarratzen da bereziki, inkestaturiko emakumeen % 75ek adierazi duten bezala. Bestelako alderdiak, amaren burujabetasuna edo haurtzaindegien baliabide materialak eta profesionalak, esate baterako, oso urruti geratzen dira, % 9,2 eta % 9ko portzentaiez.

#### 4.12. TAULA. Haurtzaindegietan azpimarratu beharrekoak, seme-alabak izan ala ez izatearen eta sexuaren arabera

|                            | SEME-ALABARIK GABE |             | EMAKUMEAK<br>SEME-ALABEKIN |             | GUZTIRA      |            | SEME-ALABARIK GABE |           | GIZONAK<br>SEME-ALABEKIN |           | GUZTIRA    |            |
|----------------------------|--------------------|-------------|----------------------------|-------------|--------------|------------|--------------------|-----------|--------------------------|-----------|------------|------------|
|                            | Abs.               | %           | Abs.                       | %           | Abs.         | %          | Abs.               | %         | Abs.                     | %         | Abs.       | %          |
| Beste umeekiko hartuemanak | 382                | 76,1        | 594                        | 73,2        | 976          | 74,3       | 150                | 67        | 120                      | 62,8      | 270        | 65,1       |
| Baliabide materialak       | 47                 | 9,4         | 71                         | 8,7         | 118          | 9          | 18                 | 8         | 11                       | 5,8       | 29         | 7          |
| Norberaren burujabetasuna  | 42                 | 8,4         | 79                         | 9,7         | 121          | 9,2        | 33                 | 14,7      | 33                       | 14,7      | 66         | 15,9       |
| Ez d./Ez du er.            | 31                 | 6,2         | 68                         | 8,4         | 99           | 7,5        | 23                 | 10,3      | 27                       | 14,1      | 50         | 12         |
| <b>GUZTIRA</b>             | <b>502</b>         | <b>38,2</b> | <b>812</b>                 | <b>61,8</b> | <b>1.314</b> | <b>100</b> | <b>224</b>         | <b>54</b> | <b>191</b>               | <b>46</b> | <b>415</b> | <b>100</b> |

*Iturria:* Emakunderen 1991.eko inkesta.

Gai honi dagokionez, gizonen erantzunetan berezitasun adierazgarri zenbait nabari dira. Hortaz, beste ume batzurekiko hartueman nabarmenak badute ere, emakumeek baino gutxiago azpimarratzen dute alderdi hori, % 65,1 % 74,3ren aldean, amak askatasun handiagoa izateko aukera, ordea, gehiagotan aipatzen dute, ia % 16k.

Deigarria da, bestalde, seme-alabarik gabekoek, gizonak nahiz emakumeak, are gehiago aipatzen dutela beste ume batzurekiko hartueman haurtzaindegietako alderdirik onuragarrienaz galdetzerakoan, % 76,1 emakumek eta % 67 gizonak, hurrenez hurren.

Galdegin zaien emakumeen adinaren eta ihardueraren eragina ere nabari da erantzun ezberdinetan, eranskineko IV.22 eta IV.23 tauletan ikusi daitekeen bezala. Izan ere, adinaren arabera, seme-alabarik ez duten 30 eta 44 urte bitarteko emakumeak eta seme-alabak dituzten 15 eta 29 urte bitartekoak baitira beste ume batzurekiko hartueman bereziki azpimarratzen dutenak, alderdi hau gutxien aipatzen dutenak, aldiz, seme-alabak izan ala ez izanik ere, 60 urtez gorakoak direla. Enplegaturik izateak ere badu nolabaiteko eragina beste ume batzurekiko hartueman balioztatzerakoan, ez alabaina adinarena bezainbatekoa.

## **FAMILI HARTUEMANAK**

### **4.2.2**

Familia berri bat eratzen denean eta bizi-zikloan urrats berri bat ematen denean, jatorrizko familiarekiko hartuemanak ere aldatu egin daitezke. Hartueman hauek ahuldu zein indartu egin daitezke, baldin eta urrats berriak lehengo bideari uztea edo jarraitzea badakar. Askotan, famili hartuemanak hobetu egiten dira, norbanakoen arteko gorabeherak gaindituz, norbanakoa baino familia-gunea oinarritzat hartzen duen hartueman berri baten inguruan hezurmamitzen baitira.

Jatorrizko familiarengandik aldendutakoan, familia-kideen artean dirauen hartueman sendoa izan ohi da, eta familiarekiko lokarri hauei eusteko erantzunkizuna bikoteko biei dagokie.

Alde honetatik, familiarekiko hartuemanak direla eta, inkestak ez du sexuaren arabera ezberdintasun argirik erakusten. Nor arduratzen da gehiago familiarekiko hartuemanari eustea? galdetu denean, gehienek, 4.14 taularen arabera, gizonak zein emakumeak berdintsu arduratzen direla erantzun dute, nahiz eta erantzun hau erabiliagoa den gizonen artean, % 69,9, emakumeen artean baino, % 60,9. Nolanahi ere, ardura hori bietako bati bakarrik egokitzen zaionean, erantzunkizuna emakumeari egozteko joera nagusitzen da: lau gizonetarik batek eta % 37,3 emakumek uste dute emakumeen ardurari esker baino ez zaizkiela eusten familia zabalarekiko hartuemanari.

**4.14. TAULA.** Zein arduratzen da senideekiko harremanei eusteaz?, adinaren eta sexuaren arabera

|                 | 15-29      |             | 30-44      |             | 45-59      |             | 60-70      |             | GUZTIRA      |            |
|-----------------|------------|-------------|------------|-------------|------------|-------------|------------|-------------|--------------|------------|
|                 | Abs.       | %           | Abs.       | %           | Abs.       | %           | Abs.       | %           | Abs.         | %          |
| <b>EMAKUMEA</b> |            |             |            |             |            |             |            |             |              |            |
| Emakumea        | 140        | 32,8        | 107        | 30,1        | 150        | 44,2        | 72         | 37,3        | 469          | 35,7       |
| Gizona          | 4          | 0,9         | 7          | 2           | 2          | 0,6         | —          | —           | 13           | 1          |
| Biok            | 267        | 62,5        | 235        | 66,2        | 184        | 54,3        | 114        | 59,1        | 800          | 60,9       |
| Ez d./Ez du er. | 16         | 3,7         | 6          | 1,7         | 3          | 0,9         | 7          | 3,6         | 32           | 2,4        |
| <b>GUZTIRA</b>  | <b>427</b> | <b>32,5</b> | <b>355</b> | <b>27</b>   | <b>339</b> | <b>25,8</b> | <b>193</b> | <b>14,7</b> | <b>1.314</b> | <b>100</b> |
| <b>GIZONAK</b>  |            |             |            |             |            |             |            |             |              |            |
| Emakumea        | 47         | 26,9        | 19         | 18,1        | 22         | 29,3        | 18         | 30          | 106          | 25,5       |
| Gizona          | 3          | 1,7         | 2          | 1,9         | 1          | 1,3         | 1          | 1,7         | 7            | 1,7        |
| Biok            | 119        | 68          | 80         | 76,2        | 50         | 66,7        | 40         | 66,7        | 289          | 69,9       |
| Ez d./Ez du er. | 6          | 3,4         | 4          | 3,8         | 2          | 2,7         | 1          | 1,7         | 13           | 3,1        |
| <b>GUZTIRA</b>  | <b>175</b> | <b>42,2</b> | <b>105</b> | <b>25,3</b> | <b>75</b>  | <b>18,1</b> | <b>60</b>  | <b>14,5</b> | <b>415</b>   | <b>100</b> |

*Iturria:* Emakunderen 1991.eko inkesta.

Senideekiko hartuemanari eusten dietenak emakumeak direla erantzuten dutenen portzentaiarik handienak adintsuenen artean ageri dira. 45 eta 59 urte bitarteko emakumeen artean, batez ere, % 44,2 hain zuzen, emakume guztien % 35,7ren aldean. Gizonei dagokienez, 45 urtez gorako % 30ek ere iritzi berbera dute, gizon guztien artean hala uste dutenak % 25,5 direla.

Famili hartuemanetan emakumearen presentzia ia iraunkorra, konpartitua edo bakarrekoa, izan ohi delako ustea egia bihurtzen da praktikan, eta gainera amaren senideekiko hartuemanak aitaren senideekikoenak baino ugarixeagoak izan ohi dira, eta ezberdintasun hau, oso nabarmena ez bada ere, adierazgarria da. Hortaz, % 88 emakumeek eta ia % 86 gizonek aitortzen dute bere amaren senideekin hartuemanak dituztela, eta portzentaia hauek % 83,6ra eta % 80,7ra jaisten dira aitaren senideekiko hartuemanari dagokienez, 4.15 taula.

#### 4.15. TAULA. Famili hartuemanaren eremua, sexuaren arabera

|                                    | EMAKUMEAK    |            | GIZONAK    |            |
|------------------------------------|--------------|------------|------------|------------|
|                                    | Abs.         | %          | Abs.       | %          |
| Amaren senideekin harremanak ditu  |              |            |            |            |
| Bai                                | 365          | 87,9       | 356        | 85,8       |
| Ez                                 | 26           | 6,3        | 23         | 5,5        |
| Ez du seniderik                    | 24           | 5,8        | 44         | 8,7        |
| Aitaren senideekin harremanak ditu |              |            |            |            |
| Bai                                | 347          | 83,6       | 335        | 80,7       |
| Ez                                 | 43           | 10,4       | 36         | 8,8        |
| Ez du seniderik                    | 25           | 6          | 44         | 10,6       |
| <b>GUZTIRA</b>                     | <b>1.314</b> | <b>100</b> | <b>415</b> | <b>100</b> |

|                                                 | (*) BIKOTEA DUTEN EMAKUMEAK |            | (*) BIKOTEA DUTEN GIZONAK |            |
|-------------------------------------------------|-----------------------------|------------|---------------------------|------------|
|                                                 | Abs.                        | %          | Abs.                      | %          |
| Bere bikote-kidearen senideekin harremanak ditu |                             |            |                           |            |
| Bai                                             | 798                         | 91,2       | 231                       | 97,5       |
| Ez                                              | 42                          | 4,8        | 1                         | 0,4        |
| Ez du seniderik                                 | 35                          | 4          | 5                         | 2,1        |
| Hurbilagoko senideekin harremanak ditu          |                             |            |                           |            |
| Bai                                             | 852                         | 97,4       | 232                       | 97,9       |
| Ez                                              | 8                           | 0,9        | 2                         | 0,8        |
| Ez du seniderik                                 | 15                          | 1,7        | 3                         | 1,3        |
| <b>GUZTIRA</b>                                  | <b>875</b>                  | <b>100</b> | <b>237</b>                | <b>100</b> |

*Iturria:* Emakunderen 1991.eko inkesta.

Hartuemanik garrantzizkoena bikotearen zuzeneko senideekikoa da eta kasu honetan ere emakumearen senideekin gizonarekin baino harreman gehiago izateko joera ageri da. Hortaz, bikotea duten gizonetarik % 97,5ek bere emakumearen senideekin harremanak dituzten bitartean, portzentaia hau zertxobait jaitsi egiten da, % 6a gutxi gorabehera, bikotea duten emakumeen kasuan. Eta era berean, bikotea duten gizonetarik % 0,4 baino ez dira halako hartuemanik ez dutenak, emakumeen kasuan, aldiz, portzentaia hau % 5aren inguruan dago.

5

**METODOLOGIA**

Proposaturiko xehetasunen arabera, aztertutako unibertso estatistikoa Euskal Autonomi Elkarteko 15 eta 70 urte bitarteko emakumeak eta gizonak barne hartu ditu.

Inkesta 1991.eko urtarrilaren 21etik martxoaren 1era bitartean burutu zen.

Guztira 1.729 pertsona elkarrizketatu dira, 1.314 emakume eta 415 gizon, hain zuzen. Ausazko eta etapa anitzeko laginketa EUSTATen zentsu-atalen tipologia oinarritzat harturik atera zen. Lehenengo eta behin, tipologi bakoitzetik, inkesta egingo zeneko zentsu-atalak aukeratu ziren, ataletako biztanle-tamainaren proportzioei erabat lotzen zaizkien irizpideei jarraituz.

Bigarrenik, aukeraturiko zentsu-ataletako bakoitzetik inkestatu beharreko pertsona hautatzeari ekin zitzaion. Ausazko ateratze hau EUSTATEk egin zuen atal bakoitzari zegokion emakume eta gizon-kopurua zehaztu ondoren. Titularra zen pertsona bakoitzeko beste ordezkari bi ere atera ziren. Laginketa aukeraturikoa, aurkezpen-gutun bat igorri zitzaion pertsona bakoitzari. Eraiki berriak diren auzuneak 1986ko Erroldan (EUSTATen oinarritzako iturria) agertzen ez direnez, laginketa ausazko 6 errutat osatu zen Euskadiko hiru hiriburu eta auzune berrietan barrena.

Aukeraketa ausazkoa izanik, a priori, suposatu zitekeen adina delako aldagaiaren arabera laginketa titularraren banaketak biztanle-banaketa jasoko zuela. Inkesta egin ahala, aitzitik, adina delako aldagaia kontrolatzean ikusi zen titularren ordezkariak erabiltzen ziren heinean aldagai hau alboratuz zihoala.

Alborapen hau, 1986ko Erroldan azaltzen den helbide berean irauteko aukera ez delako biztanle guztientzat berdina gertatzen da, hots, gazteek helduek baino gehiagotan aldatzen dute euren bizilekua, aktiboak, halaber, ez-aktiboak baino gehiagotan. Hortaz, ordezkari beharreko tituluak gazteak eta aktiboak zirela, ordezkari adintsuagoak eta ez-aktiboak izateko joera antzematen zitzaien, bizilekua nekezago aldatu eta bertan luzaroago egoteko joera baitute. Aipaturiko kontrola egin zen arren, adinaren eta lanaren arabera azken emaitzetan nolabaiteko alborapenak azaltzen ziren, ponderazioak egitera behartu dutenak.

Laginketaren azken banaketa, lurralde historikoen eta sexuaren arabera, 5.1 taulan agertzen da

### 5.1. TAULA. Laginketaren banaketa

|                | EMAKUMEAK    | GIZONAK    | GUZTIRA      |
|----------------|--------------|------------|--------------|
| Araba          | 182          | 58         | 240          |
| Gipuzkoa       | 406          | 132        | 538          |
| Bizkaia        | 726          | 225        | 951          |
| <b>GUZTIRA</b> | <b>1.314</b> | <b>415</b> | <b>1.729</b> |

Lurralde historiko bakoitzeko laginketa-puntuak eta berorietan eginiko inkesta-kopurua ondoren zehazten dira:

**Araba:** Gasteiz (184), Laudio (20), Agurain (16), Bernedo ( ), Lantarón (8) eta Oion (8).

**Gipuzkoa:** Amezketak (8), Andoain (27), Aretxabaleta (12), Arrasate (47), Azkoitia (28), Beasain (16), Donostia (184), Eibar (32), Elgoibar (16), Hondarribia (8), Ibarra (16), Irun (50), Lasarte (25), Pasaia (8), Errenteria (17), Zestoa (28).

**Bizkaia:** Abanto-Zierbena (16), Zornotza (16), Barakaldo (105), Basauri (40), Bermeo (16), Bilbo (316), Derio (4), Durango (16), Elorrio (24), Erandio (18), Ermua (24), Gernika-Lumo (28), Getxo (35), Guenes(16), Leioa (33), Mendexa (9), Mungia (15), Muxika (13), Otxandio (84), Ortuella (16), Portugalete (78), Santurtzi (16), Sestao (41), Sopela (12), Trapagaran (16), Zalla (20).

% 95eko konfidantza-mailaz eta  $P = Q$  batez, emakume-talde osoaren datu orokorreko errore-margina % 2,8koa da eta gizon-taldeari dagokiona % 4,9koa.

Inkesta egiteko galdera itxiez egituraturako galdeketa bat hartu da oinarritzat.

Emaitzen ustiapenerako, kontroleko sei aldagai erabili dira, Emakunderen arduradun teknikoen iradokizunei jarraiki. Jarraian aldagaiok eta berauen mugapena azaltzen dira:

#### **a) Adina**

Lau adin-tarte bereizi dira: 15 eta 29 urte bitartekoak; 30 eta 44 urte bitartekoak, 45 eta 59 urte bitartekoak eta 60 eta 70 urte bitartekoak.

#### **b) Ikasketa-maila**

Erdietsi den goreneko maila aintzat harturik, hiru ikasketa-maila ezarri dira: a) lehen-maila, hots, primaria zenari zegozkion ikasketak edo oraingo OHO burutu dituztenak barruhartzen dituenak; b) erdi-mailakoa, hau da, lanbide ikasketak (LH), goi-batxilergoa eta egungo BBB/UBI; eta c) goi-mailakoa.

Unibertsitateko erdi-mailako ikasketak (magisteritza, erizaintza, merkataritzako irakaslea, erdi-mailako teknikariak, etab.) eta goi-mailakoak (Unibertsitateko fakultateak eta goi-mailako eskola teknikoak).

#### **c) Lana**

Hiru talde hartu dira: a) landunak, hots, enpleguak, bere kabuzko enpleguak, lan baimendunak edo familiari laguntzen ari direla aitortu dutenak, eta baita bazterreko ihardueretan 15 ordu baino gehiago ematen dituztenak ere; b) etxeakoandreak eta jubilatuak; eta c) gainontzeak, hots, langabeak, ikasleak edo soldadutzan daudenak.

#### **d) Habitat delakoa**

Lau habitat ezberdin sailkatu dira bakoitzaren eremuko funtzio-berezitasunak aintzat harturik: egoitza-metropolia, industria-hiria, industria-ingurunea eta landa-lurra.

Lehenengoan hiru hiriburuak eta funtsean egoitza-koak diren biztanleria-guneak sartzen dira: Gasteiz, Donostia, Hondarribia, Bilbo, Getxo eta Sopela.

Industria-hiria deituriko habitat-ean ekonomi eta egoitza-egitura bildua duten hiriguneak sar-tzen dira, hots: Agurain, Andoain, Aretxabaleta, Arrasate, Azkoitia, Beasain, Eibar, Elgoibar, Iba-rra, Irun, Zornotza, Bermeo, Durango, Elorrio, Ermua, Gernika, Guenes, Mungia eta Zalla.

Industria-ingurunea delakoan industria nagusi izanik bertako biztanleek sektore honetan gehien bat diharduteneko hiriguneak ageri dira: Laudio, Hernani, Lasarte, Pasaia, Errenteria, Abanto-Zierbena, Barakaldo, Basauri, Derio, Erandio, Leioa, Ortuella, Portugalete, Santurtzi, Sestao, Tra-pagaran.

Landa-lurrak, azkenik, iharduera nagusia nekazaritza izanik sakabanaturiko etxebizitzetaz antola-tuak diren aldeak ditugu: Bernedo, Lantaron, Oion, Amezketa, Zestoa, Mendexa, Muxika eta Otxandio.

#### **e) Status sozioekonomikoa**

Aldagai hau lau multzo handitan sailkatu da, etxeko ondasun eta ekipamenduen kopuruen ara-berako multzoetan alegia: behe-maila, erdi-behekoa, erdi-goikoa eta goikoa. Lau multzo hauen eraketan lau fase izan dira: lehenengoan argi eta garbi ikusi zen hiru status-maila ezarri zitez-keela, inkestak berak zehazten zituen ondasunetarik zenbat zeuzkaten etxe bakoitzean neurtuz: behekoa, erdikoa eta goikoa. Hiru maila hauen eta etxeko diru-sarrera guztiak delako aldagaia-ren arteko koerlazio handiak baieztu egin zuen segmentazio horren baliogarritasuna.

Alabaina, erdiko mailara kasu asko biltzen ziren eta, horrenbestez, bereizketarako ahalbideak eta zehaztasunez jokatzeko aukerak nahiko urriak ziren. Horregatik, bigarren fase gisa, erdiko kategoria hori bi multzotan banatzea erabaki zen eta horretarako aldagai anitzeko hainbat ana-lisi egin ziren (korrespondentzia anizkoitzak eta erregresiozko analisiak), ondasun-edukitza de-lako aldagaia statusari loturik omen dauden beste zenbait aldagaiekin elkartzuz: ikasketa-maila, diru-sarrerak, lanbide-egoera eta lanarekin, alegia. Azkenean, erdiko multzoa bi mailatan zati-turik gelditu zen: erdi-behekoa eta erdi-goikoa.

#### **f) Etxeko lanak**

Aldagai hau dikotomizaturik dago inkestan, etxeko lan guztiak-ez guztiak egitearen arabera.

Lehenago ere aipatu den bezala, laginketan pertsona titularren ordezkioak sartzen ziren neu-rrian adina eta lana direlako aldagaiak alboratuz zihoazen. Lagin-alborapena zehazteko, aldagai hauen sexukako banaketa kontrastatu da, 1991.eko lehenengo hiruhilabeteko Ihardueraren arabera Biztanleriaren Inkesta (PRA) oinarritzat harturik. 5.2 taulan azaltzen dira, lanaren ara-bera, adin-tarte eta sexu bakoitzerako erabili diren jasotzaileak.

## 5.2. TAULA. Jasotzaileak

|       | EMAKUMEAK |           | GIZONAK  |           |
|-------|-----------|-----------|----------|-----------|
|       | LANDUNAK  | LANGABEAK | LANDUNAK | LANGABEAK |
| 15    | 1         | 1,2121    | 0        | 0,5708    |
| 16-19 | 1,3783    | 0,9680    | 0,7856   | 0,6270    |
| 20-24 | 0,7490    | 1,0609    | 0,9245   | 1,1204    |
| 25-29 | 1,0924    | 1,5226    | 0,8691   | 1,1461    |
| 30-34 | 1,0036    | 1,1761    | 0,9883   | 1,2127    |
| 35-39 | 1,1710    | 1,2079    | 1,0053   | 0         |
| 40-44 | 0,9904    | 0,8808    | 1,1779   | 2,7123    |
| 45-49 | 1,2807    | 0,9451    | 1,6854   | 0,8822    |
| 50-54 | 1,3110    | 0,8133    | 1,1921   | 4,6690    |
| 55-59 | 1,1535    | 0,8589    | 0,8191   | 2,2101    |
| 60-64 | 1,6462    | 0,8795    | 1,6065   | 0,9610    |
| 65-69 | 0,6512    | 1,2168    | 0,9544   | 1,0659    |
| 70    | 0         | 0,5282    | 0        | 0,2493    |

B

**BIBLIOGRAFIA**

Balbo, Laura. "Hablando de Welfare State: la sociedad asistencial, la sociedad y los servicios y la sociedad de la crisis". Inchiesta delakoan, 46-47 zk., 1980.eko Uztaila-Urria.

Beltrán, M., García Ferrando, M. eta beste batzuk. "Estudio sobre la familia española". Lan eta Gizarte Segurantzza Ministraritza. Madril, 1987.

Becker, Gari. "Tratado sobre la familia". Alianza Universal Arg. Madril, 1987.

Borrajó Iniesta, Santiago. "La ruptura matrimonial en España". Endema Argit. Madril, 1990.

Burguiere, A. eta beste batzuk. "Historia de la familia". 1 eta 2. tomoak. Alianza Argitaletxea. Madril, 1988.

Campo del, Salustiano. "La evolución de la familia española en el siglo XX". Alianza Argitaletxea. Madril, 1982.

Conde, Rosa eta beste batzuk. "Familia y cambio social en España". Centro de Investigaciones Sociológicas. Madril, 1982.

David-Sven Remer. "Familia, población y sociedad en la provincia de Cuenca. 1700-1970". Centro de Investigaciones Sociológicas. Siglo XXI de España Editores Argit.

Díez Nicolás, Juan. "La familia en Europa y el cambio social". REIS delakoan, 21 zk., Urtarrila-Martxoa, 11-31 orr. Centro de Investigaciones Sociológicas (CEIS).

Dowling, Colette. "El complejo de cenicienta. El miedo de las mujeres a la independencia". Grijalbo Argit. Bartzelona, 1982.

Durán, M.<sup>a</sup> Angeles. "De puertas adentro". Serie Estudios, 12. Kultura Ministraritza. Instituto de la Mujer. Madril, 1988.

Ekonomi eta Egitamugintza Saila, Eusko Jaurlaritza. "Escenario Demográfico: Horizonte 2.016", Ekonomi Agiriak, 1990.eko Iraila.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea. "Euskal Autonomi Elkarteko emakumeentzako ekintza positiborako plangintza. 1991-1994". Gasteiz, 1991.

EUSTAT. "Biztanleriaren Berezko Mugimendua, hainbat urte. Biztanleria eta Etxebizitzari buruzko Zentsua, 1981. Biztanleen Udal Errolda, 1986. Demografia eta Balidazioko Inkesta, 1986".

Fernández Méndez de Andrés. "Actividad laboral de la mujer en relación a la fecundidad", Serie Estudios, 10). Kultura Ministraritza. Instituto de la Mujer. Madril, 1987.

Hainbat egile. "Las familias monoparentales". Serie Debate, 5. Gizarte Arazoetako Ministraritza. Instituto de la Mujer. Madril, 1988.

Harris, C.C. "Familia y sociedad industrial". Homo sociologicus, 32. Ediciones Península, Bartzelona, 1986.

Henwood, Melanie; Rimmer, Lesley eta Wicks, Malconlm (Eds.). "Juside the Family", Occasional Paper n.º 6., Family Policy Studies Center, 1987.eko Urria.

Izquierdo, Jesusa eta beste batzuk. "La desigualdad de las mujeres en el uso del tiempo". Serie Estudios, 20. Gizarte Arazoetako Ministraritza. Instituto de la Mujer. Madril, 1988.

López Pintor, R., Tomaria, José Juan. "Separación y divorcio en España. Un informe sociológico". Argitaratzailea: Lan eta Gizarte Segurantzako Ministeriaritzako Argitarapen Zentroa. Madril, 1989.

Ross V. Speck. "Las nuevas familias". Grancia Editor. Argentina, 1973.

Sarribe, Gabriela. "Fecundidad y actividad femenina". REIS delakoan, 52 zk., Urria-Abendua, 85-99 orr. Centro de Investigaciones Sociológicas (CEIS).

**E**

**ERANSKINA**

# A.1

## TAULAK

**\* I.1. TAULA.** E.A.E.ko etxeen eta familia-guneen bilakaera 1971.etik 1986.era (I) eta bi-tarté horretan izan duten portzentaiazko aldaketarena (II)

|                                             | (I) ETXEAk ETA FAMILIA-GUNEAK<br>(milakotan) |       |       | (II) PORTZENTAIAZKO ALDAKETA<br>(%etan) |       |       |
|---------------------------------------------|----------------------------------------------|-------|-------|-----------------------------------------|-------|-------|
|                                             | 1970                                         | 1981  | 1986  | 1970                                    | 1981  | 1986  |
| Familiak                                    | 454,6                                        | 578,2 | 595,4 | 31,0                                    | 27,2  | 3,0   |
| Gunerik gabekoak                            | 35,9                                         | 64,3  | 64,5  | 79,7                                    | 79,1  | 0,3   |
| Petsona bakarra                             | 21,3                                         | 44,7  | 49,7  | 133,3                                   | 109,9 | 11,2  |
| Konposatuak                                 | 14,6                                         | 19,6  | 14,8  | 1,4                                     | 34,2  | -24,5 |
| Gune 1ekin                                  | 387,5                                        | 491,3 | 509,7 | 31,5                                    | 26,8  | 3,7   |
| Hainbat gunerekin                           | 31,2                                         | 22,6  | 21,3  | -31,7                                   | -27,6 | -5,8  |
| Etxearen batazbesteko ta-mainua (banakotan) | 4,1                                          | 3,7   | 3,6   | -12,2                                   | -9,8  | -2,7  |

*Iturria:* INE, eta EUSTAT, Vitoria-Gasteiz eta norberak eginak.

**I.2. TAULA.** Familia-guneen egiturazko bilakera

|                                      | EGITURA (%etan) |       |       | BILAKAERA (%etan) |         |         |
|--------------------------------------|-----------------|-------|-------|-------------------|---------|---------|
|                                      | 1970            | 1981  | 1986  | 1970-86           | 1970-81 | 1981-86 |
| Familia-guneak                       | 100,0           | 100,0 | 100,0 | 11,8              | 8,2     | 3,6     |
| Seme-alabarik gabeko se-nar-emazteak | 17,4            | 17,7  | 16,3  | 5,3               | 10,0    | -4,7    |
| Senar-emazteak seme-ala-bekin        | 73,4            | 74,0  | 74,0  | 12,7              | 9,1     | 3,6     |
| Ama seme-alabekin                    | 7,2             | 7,0   | 8,3   | 21,0              | 1,7     | 19,3    |
| Aita seme-alabekin                   | 2,0             | 1,3   | 1,4   | -18,7             | -27,3   | 8,6     |

*Iturria:* INE, Madril eta Eustat, Vitoria-Gasteiz.

\* Eranskineko taula guztien adierazburuetan erabilitako zenbakikuntza erromatarrak bakoitzari dagokion atala seinatzen du.

**I.3. TAULA. E.A.E.ko familia-guneak talde-buruaren adinaren arabera 1986.ean (I) eta familiak erreferentziazko pertsonaren adinaren arabera (II)**

|                                          | (I) FAMILIA-GUNEA TALDE BURUAREN<br>ADINAREN ARABERA(%) |                                         |                                     |                                      |                                 | (II)FAMILIAK ERREFERENTZIAZKO PERTSONAREN<br>ADINAREN (milakotan) |                                       |                                     |                        |                      |                      |
|------------------------------------------|---------------------------------------------------------|-----------------------------------------|-------------------------------------|--------------------------------------|---------------------------------|-------------------------------------------------------------------|---------------------------------------|-------------------------------------|------------------------|----------------------|----------------------|
|                                          | Senar-<br>emazteak<br>besterik<br>gabe                  | Senar<br>emazteak<br>seme-ala-<br>bekin | Ama baka-<br>rrik seme-<br>alabekin | Aita baka-<br>rrik seme-<br>alabekin | Pertsona<br>bakarreko<br>famiak | Konposa-<br>tuak                                                  | Seme-ala-<br>barik<br>gabeko<br>gunea | Seme-ala-<br>bak dauz-<br>kan gunea | Guraso ba-<br>karrekoa | Zabaldua             | Guneaniz-<br>tuna    |
| 20tik behera                             | 0,1                                                     | —                                       | 0,2                                 | —                                    | 0,1                             | 0,1                                                               | —                                     | —                                   | —                      | —                    | —                    |
| 20-24                                    | 2,0                                                     | 2,1                                     | 1,9                                 | —                                    | 0,6                             | 0,5                                                               | 1,4                                   | 1,2                                 | 0,1                    | 0,2                  | —                    |
| 25-29                                    | 10,8                                                    | 20,6                                    | 2,1                                 | —                                    | 2,1                             | 0,6                                                               | 9,1                                   | 16,8                                | 0,5                    | 2,5                  | 0,2                  |
| 30-34                                    | 7,6                                                     | 45,4                                    | 2,6                                 | —                                    | 2,3                             | 0,6                                                               | 6,3                                   | 40,5                                | 1,1                    | 4,0                  | —                    |
| 35-39                                    | 3,6                                                     | 57,3                                    | 2,6                                 | 0,1                                  | 2,0                             | 0,5                                                               | 2,9                                   | 49,1                                | 1,6                    | 6,2                  | 0,2                  |
| 40-44                                    | 2,0                                                     | 58,8                                    | 2,8                                 | 0,3                                  | 1,7                             | 0,6                                                               | 1,5                                   | 50,4                                | 2,0                    | 7,2                  | 0,2                  |
| 45-49                                    | 2,5                                                     | 53,0                                    | 3,7                                 | 0,6                                  | 1,3                             | 0,6                                                               | 1,9                                   | 44,6                                | 3,1                    | 7,9                  | 0,8                  |
| 50-54                                    | 5,6                                                     | 56,6                                    | 5,9                                 | 1,0                                  | 2,4                             | 0,4                                                               | 3,5                                   | 47,8                                | 5,2                    | 8,2                  | 2,9                  |
| 55-59                                    | 9,6                                                     | 45,9                                    | 6,2                                 | 0,8                                  | 3,4                             | 1,0                                                               | 7,5                                   | 38,9                                | 5,9                    | 6,5                  | 2,8                  |
| 60-64                                    | 14,4                                                    | 29,6                                    | 6,1                                 | 1,3                                  | 5,3                             | 1,4                                                               | 10,9                                  | 25,7                                | 6,0                    | 5,0                  | 3,6                  |
| 65-69                                    | 12,6                                                    | 14,1                                    | 5,1                                 | 1,1                                  | 6,7                             | 2,0                                                               | 9,8                                   | 12,2                                | 5,3                    | 2,6                  | 2,6                  |
| 70-74                                    | 12,1                                                    | 7,5                                     | 3,9                                 | 0,7                                  | 8,4                             | 2,1                                                               | 10,0                                  | 6,3                                 | 3,6                    | 1,5                  | 2,7                  |
| 75-79                                    | 7,6                                                     | 3,2                                     | 3,6                                 | 0,9                                  | 7,3                             | 2,1                                                               | 5,4                                   | 2,6                                 | 3,8                    | 1,2                  | 2,3                  |
| 80-84                                    | 5,1                                                     | 1,3                                     | 2,8                                 | 0,4                                  | 4,5                             | 1,1                                                               | 3,9                                   | 1,2                                 | 2,7                    | 0,4                  | 1,6                  |
| 85etik gora                              | 1,5                                                     | 0,7                                     | 2,0                                 | 0,7                                  | 1,7                             | 1,2                                                               | 0,6                                   | 0,5                                 | 2,1                    | 0,4                  | 1,3                  |
| <b>GUZTIRA</b><br>(%)                    | <b>97,0</b><br>(17,5)                                   | <b>396,4</b><br>(71,7)                  | <b>51,6</b><br>(9,3)                | <b>58,1</b><br>(1,5)                 | <b>49,6</b><br>(8,3)            | <b>14,8</b><br>(2,5)                                              | <b>74,9</b><br>(12,6)                 | <b>337,9</b><br>(56,8)              | <b>43,2</b><br>(7,3)   | <b>53,6</b><br>(9,0) | <b>21,3</b><br>(3,6) |
| 65etik gora-<br>koak<br>(%)              | 38,9<br>(44,8)                                          | 26,8<br>(30,8)                          | 17,4<br>(20,0)                      | 3,8<br>(4,4)                         | 28,6<br>(23,1)                  | 8,5<br>(6,9)                                                      | 29,7<br>(24,0)                        | 22,8<br>(18,4)                      | 17,5<br>(14,1)         | 6,1<br>(4,9)         | 10,5<br>(8,5)        |
| RATIO<br>65etik gora ×<br>100<br>GUZTIRA | 40,1                                                    | 67,6                                    | 33,7                                | 46,9                                 | 57,7                            | 57,4                                                              | 39,7                                  | 30,4                                | 40,5                   | 11,4                 | 49,3                 |

*Iturria:* DBI, 1. Lib. Eustat, 1986.

#### I.4. TAULA. Familia-mota erreferentziazko pertsonaren egoera zibilaren arabera E.A.E.an.

|                                      | PERTSONA<br>BAKARREKOA |             | KONPOSATUA    |            | NUKLEARRA               |             |                   |            | GURASO<br>BAKARREKOA |             | ZABALDUA      |             | GUNEANIZTUNA  |        |
|--------------------------------------|------------------------|-------------|---------------|------------|-------------------------|-------------|-------------------|------------|----------------------|-------------|---------------|-------------|---------------|--------|
|                                      | Emaku. Gizona          |             | Emaku. Gizona |            | SEME-ALABA-<br>RIK GABE |             | SEME-<br>ALABEKIN |            | Emaku. Gizona        |             | Emaku. Gizona |             | Emaku. Gizona |        |
|                                      | Emaku.                 | Gizona      | Emaku.        | Gizona     | Emaku.                  | Gizona      | Emaku.            | Gizona     | Emaku.               | Gizona      | Emaku.        | Gizona      | Emaku.        | Gizona |
| Bizikide ez diren<br>ezkongabeak     | 10,8                   | 8,8         | 6,6           | 5,3        | —                       | —           | —                 | —          | 1,2                  | 0,1         | 0,5           | 0,1         | 0,1           | —      |
| Ezkondutako ezkonti-<br>dearekin     | —                      | —           | —             | —          | —                       | 73,1        | —                 | 35,9       | —                    | —           | —             | 47,2        | —             | 17,3   |
| Ezkondutako gabeko<br>bizikideak     | —                      | —           | —             | —          | —                       | 1,8         | —                 | 2,0        | —                    | —           | —             | 0,2         | —             | 0,1    |
| Bizikide ez diren<br>alargundutakoak | 24,4                   | 3,6         | 2,4           | 0,3        | —                       | —           | —                 | —          | 30,9                 | 5,5         | 4,2           | 0,4         | 2,9           | 0,7    |
| Bizikide ez diren<br>dibortziatuak   | 0,1                    | 0,2         | —             | —          | —                       | —           | —                 | —          | 0,9                  | 0,1         | 0,2           | —           | —             | 0,1    |
| Banandutakoak                        | 0,8                    | 1,0         | 0,1           | 0,1        | —                       | —           | —                 | —          | 3,7                  | 0,7         | 0,9           | 0,1         | —             | —      |
